


Eusebio Erkiaga

GOIZEAN ETA ARRATSEAN

ESKUBETE NEURTITZ • 2

Sarrera:

Igone Etxebarria



SUTONDOAN SORTA

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Eusebio Erkiaga olerkiak idatziz sartu zan literaturan. Gerra aurreko urteetan *Euzkadi* eta *Eguna* aldizkarietan lanak agertzen hasi zanetik, eten barik idatzi eban azken egunera arte. Leihaketetarako, omenaldietarako, lagun-senideen ospakizun eta gertaera bereziak zirala-ta, herriko jai-programarako, nahinorako idatzi eban, edozein atxakia ona zan.

Bera bizi zala eleberriak liburu moduan argitaratu baziran be, olerkiak batu barik egon dira, aldizkarietan sakabanatuta, eta asko eta asko argitaratu barik.

Lan honek Eusebio Erkiagaren beste alderdi bat ezagutzeko bidea emongo deusku, eta osotu egingo dau haren lanaren emoia, lehendik eza gutzen doguzan eleberriak eta prosazko gainerako idatzien bilduma, Andres Urrutiak *Berbaluaren kulunkan* izenagaz batutakoak.



Euskal Biblioteka Labayru



1038642
LITERATURA / N. 7584
v.2

EUSEBIO ERKIAGA

Goizean eta arratsean

Eskubete neurritz

EUSEBIO ERKIAGA

Goizean eta arratsean

Eskubete neurritz

II

Sarrera: Igone Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2006

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren,
Bizkaiko Foru Aldundiaren, eta Bilboko Udalaren laguntza izan dau.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-2502-06
ISBN (idazlan guztiak): 84-89816-07-7
ISBN: 84-89816-08-5

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

I liburua

Ataurrekoa. <i>Igone Etxebarria</i>	23
1931	
Mendi goi-goian	63
Aititaren basetxea	65
1932	
Edur zuri	66
Urtaro kutuna	67
Gau-eresia	68
1933	
Aitona zaharra	69
Txintak	71
Atabal-jotzailea	74
Abenda-irrintzia	75
Udako hodeia	78
Baltxerana	79
Ez dira etorri	80
Mendi zoragarri	81
Haren etxea	82
Neure aberriari	83
Alaia	85
Negu-eresiñoa	86
1934	
Euskadiren urtebarri	87
Alde gugandik	88
Errotazuri	90

Etxeko poza	91
Bide ondoko iturritxua	92
Airoko pagadiak	93
Maitaketan	94
Neurri eta doinu	96
Musker	99
Lekeitio!	100
Baserritar	102
Ezkontzea	104
 1935	
Kresal-ohea	105
Ontzi gorri	107
Gogoaren irritsa	109
Amari maiatzean	110
Eten kataiok	111
Zeure mahaira	113
Lora gorriak	115
 1940	
Arrankuratsu	117
 1942	
Negu-goiz bateko abesti alaia	120
 1944	
Ama hil jat	122
 1945	
Kaieko haizetan	125
 1947	
Fauré-ren soinuaz	126
Loraketa	128
 1948	
San Markos	129
Marti-azken	130
Izarren orduan	131

91	Lekeitioko andra-aureskua	133
92	Saltzaille!	135
93	Gaztaroaren iges egite	136
94	Maiatzean igar	138
96		
99	1949	
00	Amets urratua	140
02	Zuri-baltz	141
04	Eguna	143
	1950	
05	Jaioterri kutun	145
07	Landa gizon banintz	147
09	Karmelo Etxegarai	150
10	Bilintx	152
11	Arrantzale zaharra	154
13	Larran	156
15	Nekazariarena	159
	Arrantzalearena	162
17	1951	
	Alaba galdua	164
	Zarama-zalcak	166
20	Maitale bi	168
	Azkueren heriotzan	169
	Ama, hitzik gozoena	171
22	Bihar ezkonduko naiz	174
	Goraminez	176
	Amaren itzala	178
25	Mao gorri	179
	Txibiritak agertzean	181
	Andre Mari	183
26		
28	1952	
	Gabon-otoia	184
	Beti gose	185
29	Olerki-matxinadea	186
30	Leihoan	189
31	Eukaristia, bake oturuntza	190

Minondoko itxaro	192
Oiharzuna	193
1953	
Ilargitan	194
Mahai saindura	196
Amaren giro	197
Bake-soinu	199
1954	
Arbasoen herri	201
1955	
Legorte	203
1956	
Maiatzeko ilunabarra	204
Bide orlegi	205
Zure ezpainak iduri	206
Garbi eduki nazazu	207
Bion errua	208
Izarrak isilik	209
Biok	210
Ezetz	212
Mingots	213
Eguantz	214
Aingeruak jo ninduan	215
Kaleko lerroak	216
Axular handiari, ohore	217
Ibai garbia zana	220
Mirentxuren buruko ilea	221
Beti ere	222
Dundun	223
1957	
Atsotzen	224
Ohetik ohera	225
Ohetik ohera, bigarrenez	226

92	Giltz berriak	228
93	Ilargiak kuku egitean	229
	Bazeneki...	230
	Apiril uregorri	231
94	Cereziak loran	232
96	Txori azkarraren epaia	233
97	Bikoitza: 1. Izu; 2. Itxaro	234
99	Egonezin	236
	Nork daki zergatik?	238
	Belu xamar	239
01	Nun zagoz, maite?	240
	Zutik	241
	Zanbuluka	242
03	1958	
	Zeu eta neu	243
	Asperraldi	244
04	Ondo dakizu zergatik	245
05	Geroko	246
06	Garra bezain garbi	247
07	Orbangabea	248
08	Ezbehar haundia	250
09	Ezta gaur ere	251
10	Langile oihua	252
12	Aipu ona	253
13	Kaiola politean	254
14	Lanean	255
15	Hogei urte dira	256
16	Aldatu zara, bai!	257
17	Haizetako kantu arinak	258
20	Aita ankerra	259
21	Askatasuna	260
22	Ez da egia	261
23	Bide zaharrak	262
	Haragikeri	263
	Gutxi dira	265
24	Kristo bakartadean	266
25	Atzo bezelaxe	267
26	Berriro	268

Azalkeri?	269
Haurrik gabearena	270
Jaunaren igokundean	271
Basamortuko oihua	272
Ezteuskeri	273
Elkarren etsai	274
Manutxu	275
Ez da berdin	276
Guraiza zorrotzak	277
Mosu merke	278
Kadentasu xune	279
Grina-sarepean	280
Behi itsua	281
Kristo zulatua	282
Nora hoa?	283
Juan Ramon Jimenezi, agur	284
Torrean dago	285
Olala, olala	286
Emazte ona	287
Baietz esango bazenit	288
Lesbosko Safori	289
Margari paupoxa	290
Goiz arre beltzeran	291
<i>Oriz</i> eri Leitzan	292
Elkarren lehian	293
Begirakune bana	294
1959	
Ume txiroa	295
1960	
Bilbo	296
Zinkurinez	298
Ene, Ama!	300
Rosabel	301
Hirugarren gau beltza	302
1961	
Guraria	304

269	1962	
270	Hilobi izengabea	308
271	Iturri agor	313
272		
273	1964	
274	Maite maiteena	315
275	Arraizpe	319
276	Inular beltz	321
277	Bide zaharrek	325
278		
279	1965	
280	Lekeitio	326
281	Zubiganean	327
282	Imanoletxu	328
283	Urrunetara	329
284	Aitita-amamak	330
285	Emongo deusut	331
286		
287	1966	
288	Neskatxa eta ardoa	332
289		
290	1967	
291	Ene maitea	334
292	Txakolina	335
293	Ezkonduko gera	336
294	Arrantzalea	337
	Zu gabe	338
	1968	
295	"Aitita Mokordo"	340
	Anaitasuna	341
	Gurari	342
296	1970	
298	Maitatzen	343
300	Guria	344
301	Gure kai politean	345
302		
	1971	
	Lehorrez ta itsasoz	346
304	Lekitioko kanpaien deia	347

1972	
Ezpatadantza	350
1974	
Lekeitiar entzutetsua	353
1975	
Aurreku	354
Gure txistulariak	355
1976	
Portu-errota	356
Itzali ezina	360
1977	
Kanpaiak ere	361
Dirdiz	366
Larrara bidean	369
Orain eta beti: 1. Elegia; 2. Zortzikoa	371
Eskerrik asko	378
1978	
Gernika apurtu da	383
Bidazti, hor dozu ama	385
Iturrigorri	392
Etorkezunaz gogoetan	396
Aurtengo neurtitzak	398
1979	
Lurraldea ta herria	399
1980	
Arranegiko zabala	400
Agur, Xabier!	402
Itsas soinua	404
Lunentxako kurtzioa	405
1981	
Kasparren zaldi sendoa	406
81, Antzarraldi baltza, 81	408

	1982	
350	Erleen antzera: I. Iturbekoa (Jose Mari Arizmendiarrieta); II. Eztigintzan (Bitoriano Gandiaga); III. Izurtzan jaioa (Nikolas Alzola Gerediaga)	409
353	1983	
	Gorbaiera zoazie?	417
354	Mingotsak	426
355	Ipuin txiki	427
	1984	
356	Politago zirean	428
360	Gomutagarri doguna	429
	Hirukotxa: I. Jaiotetxeko leihotik; II. . . . eta iparraldeko leihotik; III. . . . ta hegoaldeko balkoitik	432
361	Lotsea galduta	436
366	Karraspio txiki	438
369		
371	1985	
378	Dakustana	439
	Errotazurin erostaka	441
	Cavaillé-Coll	442
383		
385	1986	
392	Larrazkeneko neurtitzak	444
396	Antzoriz	447
398		
	1987	
399	Kresalaren penak	449
	Aitabitxi	451
	Besoak zabalik	453
400	Astelehen negargarrian	456
402	Agur, Kołdo	457
404	Don Nemexio	459
405		
	1988	
	Antero ta Sinker	462
406	Agurrik bako agurra	464
408	Artxandaren ostean	466

1989	
Argatzeko pekan gabiloi-habian	468
Alperreko deiak	473
Fausto, Abelardo	474
Eulia ta Atsoa	476
Rufo Castor	477
Txalupetxeak	480
Etxenagusia (Karmelo) Jaumari	482
Goierri ixila	485
Sakabanatzen	486
Mintz	487
Jose Migel Barandiaran jaumari	488
Etxaki laztan	489
Inok entzun barik	491
Gizon urtetsuaren leloak	493
Egumeroko purgatorioak	496
Zikina indartuz	497
Bide zidor	499
Azal barria zergaitik?	500
Emon egidazue	501
Atzenerantz	504
Ai, Alia!	505
Uda bero	506
Aho itxian (erran zahar)	507
Iluntzea	508
<i>Bai</i> eta <i>Ez</i> burruka	510
Izekok esana	512
Euli zirinak	513
Bertso menditarrak	514

II liburua

1990	
Noiz, nora?	539
Santiri...	540
Alkar	541
Bakezko aizkorak	542

	Lekeitioren oraingo ardatz bizkarraldea	544
468	Urteen neurri zoroa	548
473	Ondarru ikusgarri	550
474	Hiru kolore	551
476	Aitzol eta Lauaxeta	552
477	Begietan tristura	553
480	Calarrenaren erpeak	554
482	Harrizko edertasuna	555
485	Ura batez bere	558
486	Lekeitio izena	559
487	Indar bakarra mihinean	561
488	Itsasoak ekarri dau	562
489	Udako ilunabarrean	563
491	Eskolako mutilak	564
493	Iparraize hozkirri	566
496	Ondasun galduak	567
497	Itsas	568
499	Joan behar baina...	570
500	Ziri	571
501	Altzipres zorrotzak	572
504	Aldi joana, zein urrun	573
505	Bizitzako aldapan	574
506	Zure begiak	575
507	Urigintzako jolasak	576
508	Gindax txairoa	577
510	Katuak eta sorginak	578
512	Aspaldi bateko kanta zoroa	580
513	Eguraldia, ederra!	581
514	Pasadio zaharrak	582
	Gure sirimiria	584
	Don Antonio Zamora, agur	587
	Ama Teresa Kalkutako	589
	Mokoroa, Justo Mari	590
	Jose Mari Makua, Agur Jauna!	592
	Zingo txiki, zingo handi	594
539	Txir, txir, txir...	596
540	Anton, Anton	598
541	Goiერი	599
542	Atal txatal	602

Zanetako odol ibiltokia	603
Itsasertzeko maitaleak	605
Hau dok hau...!	606
Orduko treotzarea	608
“Inusente... potente”	610
Samina garaitu nahi neuke	612
Oi, Ameriketako gizon azal gorriak	614
Betoz gazteak	616
Azken unadan	617
Sabin Muniategi hegaz	619
Maitari espiritualak	621
Aldi joanak	622
Arantzazko torreko olerkariari	623
Anton	624

1991

Txomin Jauna	625
Agur-agur azkenak	627
Lau hankako oilarra	629
Txomin abade jauna	631
Ikusgura zolia	633
Matxingarratza	636
Amandarri	638
“Mutxuneneko kabria”	640
Don Tiaoro	642
Antxinako komeriantek	645
Ondo biziko gineala, ta... ..	648
Seina, jarraipena	651
Makina txikiak	652
Ihesi, zetarako?	653
Aro epelean	655
Bagoaz, bagoaz	657
Haize epela urian	658
Urarte, ugarte	659
Masta puntakoa	661
Hiru koplak	662
Lirikor mistikor	663
Enara ameslari	666

603	1992	
605	Espiritua askatasun eske	667
606	Amamaren argazkiak	669
608	Begiak edegitean	670
610	Rafael Uskola	671
612	Euskal burdia	672
614	Neurria	673
616	Lainotzan	674
617	Eguneroko ogia	675
619	Amairik bako egonezinez	677
621	Maitetasuna ereiten	678
622	Isuntzako aldakuntzak	679
623	Mendira begiratu bage	680
624	Bihotzean osina	681
	Oinen ganean gabiltzan artean	682
	Testularia	683
	Bedar txar ugaria	684
625	Geroko tokia	685
627	Anaitasuna, gurari alper	686
629	Txori mutuak	687
631	Itsaso hasarrean zambiluka	689
633	Olgetan eta benetan egun pozgarri honetan	691
636	Oso, alde, atal	693
638	Potin zaharra	694
640	Gizonen artean gizon	695
642	Poesia ezagutu dot	697
645	Lilurea beti da lili	700
648	Arbilagara bidean	701
651	Ogia urdindu da	703
652	Goizak esaten deust	705
653	Ostatua	706
655	Hegalari txolin	709
657	Rosalía Konpostelako	711
658	Tirainik tirain	713
659	Lekeition ikustekoak	714
661	Gurarien laino artean	716
662	Mamuak eta gizonak	718
663	Guraso ongileak	720
666	Ezustcen turrunturruma	722
	Hizlau hotza	723

Abar eta abar	725
Domusanturu	727
Olentzero	729
Isuntza ertzean	730
Hitzak josten	731
Amak bere umea hil	732
Bai, noski	734
Zortzikoen aldrara	735
Zenbat lo eginda?	736

1993

Agur, Jaunak	737
Zipriztin bustiak	739
Emazte ona ta eternidadea	740
Mahats mordoa	741
Aterkinik ez badozu	742
Kaleak	743
Aberri gazte	744
Triki-traka	745
Arimako kili-kilia	746

Olerti-lan luzeak

1959

Bedoñarako ostoa Bikoitza	749
Maiteari	751
Olerkariari	753

1964

Zelai Bizia	755
Atadian	757
Itsas ondoan	762
Itsas handian	769
Alkarrekin	779
Luze eta zabal	785
Neke-doinuak	789
Hartu-emanetan	800
Lilurazkoa	804
Maite-giro	806

725	Zortzikoa	820
727	Hurbil eta urrun	822
729		
730	1965	
731	Saihets-hezurretan	829
732		
734	1969	
735	Haritz jeikian	837
736	Hitzak haizea nahi	839
	Haritz jeikian	840
	Ontzia utzita	842
737	Eroak	843
739	Haizetara berriro	844
740	Ingurumariak	845
741	Oilarbuzten	846
742	Jantzia urratzean	847
743	Ehiztariak dabilta	848
744	Joko berria	849
745	Egia, gure ogia	850
746	Emaidazu eskua	851
	Ximist	853
	Bertsolariarena	856
	Agertuko da	858
	Zortzikoa	859
749		
751	1970	
753	Gizona, hitz ona	861
	Ezerezetik	863
	Jaioberritan, zinkurin	865
755	Plazako poza	866
757	Gizonak, mintzoa du	867
762	Beti penetan	868
769	Cezur, hezur	869
779	Nekea	870
785	Goiko ta beheko	873
789	Bakartadetik ihesi	874
800	Aitaren eta amaren	877
804	Jator	878
806	Ttun ttun	880

1973	
Isilak jan ditu	883
1983	
Garaiz	891
Jasan beharreko	893
Ziri edo irri	906
Haragi loturaz	923
Mahai-azken	936
1985	
Txortea	937
Lehenengoa	939
Bigarrena	944
Hirugarrena	946
Laugarrena	949
Bosgarrena	952
Seigarrena	956
Zazpigarrena	958
Zortzigarrena	960
Bederatzigarrena	962
Hamargarrena	965
1985	
Gaztezaroko ele arinak	969
Lirika	971
Zirika	999
1989	
Intxaur azalak	1007
Bidaztiarena	1009
Lili zurigorri	1013
Eskuen berbetea	1016
Oturuntza	1018
Higuina lurperatuko dogu	1020
Lokarriz askatu	1022
Arerioak erpeak ditu	1024
Txatxandu direanak begoz txatxanduak	1028
Intxaur azalak	1031

1990

NOIZ, NORA?

Zatika barik, osorik
jakin nahi
eta ez da errez jakiten.

Lehen nun gengozan?
Orain behineon, hemen.

Gizon bakoak izango dau
joateko deia;
noiz, ostera?
Alperrekoak dira
gure kezka ta lehia.

Nundik heldua?
Ausaz, ezerezetik,
eta norabaiterako
mezua bizkarrean
lehendabizitik.

“Ai, Jauna!” —esaten
baino ez dakigu.

Eta sarriagotan: “ai, ama!”

Amagandik urten dogulako.
amarik ez izatea
errukarri ta gizagalduko.

Badaezpadakoa da, zehatz
urteen neurria.

Batzuek zaharmendira
igoten dabe,
baina urte lar barik
joan doa gazteria
mundu honetatik.

Atzokoak gomutatu
eta negargurea dator
begietara.

Nora geintekoz, goenik¹, aldatu?

Jaunagana, noraezean
eta zorionean.

Beregana
bihotzaren eskabidean.

90-V-5²

¹ Goen: azkenik.

² Gaur 53 urte, balea sartu eusten gorputzean, Castello lurraldean, Franco-
ren gudari bihurtu ninduen, eta mendian ibili nintzan “soldadu, amaren seme
sobradu”.

SANTIRI...

*Aita Santi Onaindiari
euskal Letren Merezimendu
Saria, 1990ean eskeini eutsenean*

Lokarriaren luzea;
atseginezko haizea
Atxuriarteko mutilari
nik txori on! esatea.

Maiatza dan gozo eder,
ezo landa eta bazter;
merezimendu hori be noizbait;
ez da heldu horren laster.

Behean dogu ardura,
zer ete gure onura?
halakoren baten aingeruak
eroango gu zerura.

1990-V-18

ALKAR

Hitz indartsua da alkar
ta mustur errea/gozoa dakar:
giro gozoak gizartera nakar,
baina edur ta euri guk behar.

Lehorte ikaragarria ...
desezaguna dogu
oraingoan Euskal Herria.

Oi, Aralar gure mendi!
urrun gabiltzaz zugandi,
Herri honen ames handi
garatu ezin guk inundi.

Ilunetarik argia
noiz ete, guretzat agiria?

BAKEZKO AIZKORAK¹

Ederrak berea dauan guna
zelakoa zan, bazenkian zuk,
Sabin Gauteziko²,
ta gazterik zenerabilen zut
lerroetan zehar luma
urduri ta hegoduna,
arima emonkorrean umotua.

Batu eta eskeini
deuskuzuzan lorak,
benetan bakezko aizkorak
osapidetsuak izan diralako,
anaikide emoi
ta ez hasarrerako.

Atzerrietako ortziak
ikusi ta gero
agertu zintxakuzan
begiak argi, bihotza bero,
gure kantu zelai bakartsura.

Lur, zeru eta ura
haizeagaz batean
gizarte gurean
erakutsi deuskuzuz,
zidorren, bideen
ikasgarriak izentaurik,
berbaz eta zizpuruz
gu jagierazo guran,
nekea gorabehera
jardun izan dozu
geure onurako arduran.

¹ Zornotzako Larran, udazkeneko Olerti-egunean, urte horretan Lirika saria irabazirikoa.

² Sabin Muniategi olerkaria hil zanean idatzi neban lantxu hau. *Goiz Argi-*ren egilea izan zan. Poema liburu horrek Lauaxetaren hitzaurrea dauka (1935).

Barruan sua, begietan irria,
holakoxea geratu jat, Sabin,
zure irudia,
lur ta itsas-txoria.

Baina orain,
gure lorazain,
loak hartu zaitu
ta lira arina
bedar ganean
Larraitzen laga dozu,
hariak noiz etengo.

Agureon artean
bakartadearen mingotsa,
hurrengorik hurrengo
bakandutean;
albokoa ezin ukondoagaz jo,
loak hartu daualako.

Horraitino, Sabin, zure lorak
bakezko aizkorak,
jarauntsi lez izango ditugu,
uda eta negu.

Arean,
pitxiak dira-ta,
etxeke elelderrean.

1990-VIII-26

LEKEITIOREN ORAINGO ARDATZ BIZKARRALDEA (Jolas-bizar)

“Ama, zetarako da negar egitea?”
Iparragirrerena dinogun kantea.
Bape igarri barik zahartu gaztea,
noizik behin komeni da bihloratutea.

Trena zan etorteko Arropain aldera,
aurretiaz egin zan Atean hotela.
Hotel horren jabeak fraileak gaur egun,
trenaren azterrena galdu nun edo nun.

Lekeitio liraina zan oraintsurarte,
Arranigitik goruntz Goikokale Ate.
Ardatza lerdan geunkan, eta abor-estibor¹
plazatik urrunean ez zan bizi inor.

Uria hazi ta hazi, gaur popa zabala:
Isuntzan muga, baina libre mendebala.
Arbiatx, Aldaztorre, akabo torila,
Antzoriz² bidean be etxeak badira.

Paskual Abaroaren Etorbide luze
bizkarrazur makala etc dan, ez uste:
Arropainen hasita itsaso aldera
mendi-bake girotik olatu artera.

Bizkarrazurra esan, ta ez briskazurra³,
briskoa merke ebilen; merke botakorra.
Haizetan kontserbata kolaio⁴ gogorra...
halako preminarik zetako gogora?

¹ Abor-estibor: babor-estibor, ezker-eskuma.

² Antzoriz: Lekeitioko Santa Katalina lurmusturra, itsas-farola dago han.

³ Briskazur: ezereza.

⁴ Kolaio: eskamarik bako arraina, neguko janari merkea.

Erdigunean hor da Eskolape estu;
hor zan Alondikea, ardauden aurresku.
Upel handi biribil jira eta bira ...
harako mandazainak ahaztutzat dira.

Zaragi ilunak be karro zaharretan
kalean zehar; gero, gorde tabernetan.
Kabanarik⁵ ez dago; astileruak lo,
txokolate lanteiak agur betirako.

Gutzat ta auzokoentzat hor zan Nautikea,
itsasgizon bidean aukera betea.
Hainbeste ontzi dago kaian barrenean
arrain-kalak lorrinzen diharduenean.

Tretzak enkarnatea⁶ irabazpide zan,
despiskan⁷ ibiltea ez hain beharrian.
Ama, zetarako da negar egitea?
Jantzi zaharra itxi; barria hobe.

Frontoia gaur hobeto teilatu ta guzti,
euria egin arren ezin leite busti.
Zori handi bakoa izan da Hostala;
ganora barik dagon anporrak, zozpala.

Bazan mataderia, frontoian alboan;
zekor, bigantxa, txukun⁸, bildotsak eroan.
Goikokalean bizi zan Matacorderos,
bildotsen narrupean harek putz eta potz.

Parkean euki dogu antzar-bikotea,
arra hil dabe eta... alargun, emea.

⁵ Kabana: eskabetxerako lantegia.

⁶ Enkarnatu: arraina amuan ipini.

⁷ Despiskatu: arraina saretik askatu.

⁸ Txukuna, gure urian, kortako txarriari deritxoe.

Giza eskubideen bila gabiz beti,
bakean dagonari ezin itxi geldi?

Etxeak gehitu arren industria elkor,
uri muga barruan ez ausartzen inor.
Turismo-herri dala esatea errez,
udea laburra da, eta negua ez.

—Ta, zer? —Zaharra barri, guk esakerea,
kendu ezina dogu gauzen gomutea.
Ama, zetarako da negar egitea?
Errez... katu-amesak hemen ipintea.

.. ..

Sendo datoz autobus ta kotxe arinak,
egin beharko doguz zelai ta parkinak.
Parkinak egin behar... eta zein lekutan?
Zabortegian eta Kalbario puntan.

Amandarrira Super-Helikoterua,
han daukagu markata beretzat lekua.
Turismo karriotan Super-Heli hori,
Talatik Lumentxara osterea sarri.

Hirurogei urtean honeek aldakuntzak:
agur gabontz, saguzar ta islako ahuntzak.
Aker barririk ez da urira agertu,
Kaixparren zaldia bai ondotxu ulertu⁹.

Europar egiteko darabilen garra,
kendua ala emona, zein gure intxaurra?
Itsas zabalak ez dau mugarik izango?
Baina arrain handiak arrain zehea jango.

⁹ Badaczpadoako inor gehiagorik ez dala etorri adierazi nahi dau.
Kaixparren zaldia: islaren alboan dagoan hatxa, forma hori daukalako.

Etxetik urteteko ez da berandurik,
antxina ez egoan "usolatrikarik"¹⁰.
Ama... zetarako da negar egitea?
Gatzezko bihurtu zan Loten emaztea.

1990eko udabarran

¹⁰ Usolatrika: *luz eléctrica* uriko ahoskeran XX. mende hasieran.

URTEEN NEURRI ZOROA

Aldiak txilina joten dauanean
igali ta uztak ezkontze egunean,
sortu, erne, hazi
bakotxaren bizi
zalantzako neurri luze zabalean,
urrats ziurrik ez gure joanean.

Sein gareanean ezin jakin ginei,
gauza txiker gara, soilik pertsona gei;
ibilteko motel
ta berbetan totel,
halangoren baten hiru urte, lau, bost, sei
—Noiz egingo ditut, amatxu, nik hoge?

Amak irribarre, bildur antzekoa,
oraina gurago eta ez geroa,
—ezin ditu umeak
susma aldaketak—,
hazi ahalean unea badoa,
ta amaren bizia urtetsuagoa.

Udazken mordoa gugan dogunean
eder minak gaukaz lilura bidean;
lan neke, ardura
bazterrera gura,
larrosa ederrik ez dot baratzean,
basalora ausartak muna medarrean.

Hori nik buruan izan eta gero
barruan izan dot zizta zoli bero,
adoreak ames
ta bihotzak ganez
goiz ta arratsez egin dagien barrero
poz-giro barriak bilatu ezker?

Zahar zamaz dago kantaria ere,
nun hogei urteko txinpart eta umore?
Azalak izpila¹,
grineak ixila;
kanta dagidazan hil bezperararte
betirako kantik nasai eta bare.

90-XII-4

¹ Izpil: orban, lohi.

ONDARRU IKUSGARRI

Lehenengo berba horrek
dauan nagusitasunak
txit menperaturik zaukaz,
menpe zure oroimenak.

Zeuen uri maite hori
zure bihotzeko lora,
horren izen ta izana
daroazuz edonora.

Ta Ondarru aitatzeko
darabilzu sarri Txomin:
biok goretsi beharrez
zeu ezkutatu, Augustin¹.

Kresalez kareleraino
boga-bogan eten barik,
haize berdi², ipar baltza
horrek bapez ardurarik.

Inbirigarri da dozun
bazter-zaletasun hori,
zeure idazle bizitzan
Ondarru zuk kantagarri.

Herrimaite dan gizona
benetan zintzo ta eder,
gaur zeu goratu nahi zaitut,
bertsuok ez beitez alper.

Aita Augustin... *Txomindarra*:
barriro kanpo ta barru
lilura bizi-bizian
agertu dozu Ondarru.

90-XII-5

¹ Augustin Zubikarai ondarrutar idazlea.

² Berdi: berde.

HIRU KOLORE

Amandarriko argi berdea,
barrako argi gorria,
topeko farolaren begia
zuri-zuria.

Aberriaren ikurrak
ditu hiru kolore,
muturreko hiru argiek
bardin beste hainbeste.

Egunez itsasoa ta
zeru urdina,
mendien berdea dabe lagun;
ilunpean geroago
hiru kolore ezagun.

Gauaren ilunean
baltza errekon doa,
baltza itsasoa
hiru argien irribarreek
adoretuten gogoa.

Marmar luzea dabe
olatuek beti,
bizi dardarea dabil
euren zanetatik.

“Olatuak Karraspion”
aspaldiko esaera labur;
urduritasun horren
irakin etenbakoan
mosuka ta mosuka
itsaso eta lur.

AITZOL ETA LAUAXETA

Gizon biok tiroka
inork gogortuak,
arerioak eukan
gorrotoak.

Gipuzkoan
eta Araban lurreratuak.
Pekatu zan
Euskadi maite izatea,
kristau izenekoek
—mahometanoan antzera—
indarrezko ta eskubidebako
heriotz egarri,
eurek Satanasen
mirabe gorri.

Eder-eleko saiogilea bata,
olerkaria bestea,
Aitzol eta Lauaxeta
erbestekoen amurruak
zitian erre,
gorroto ustelaren
uzta baltzaren
zoritxarreko ume.

Norbere aberria maitatzea
errurik haundien!

Nahitaezko aberria
ezarri beharra
ez guk ulertzen.

Agur adiskideok,
agur...

gizon sendo,
bihotz samur.

1990-VIII

BEGIETAN TRISTURA

Gauza berbera
esan deuste gizon bik.

Aspaldian naz aita,
noiz izango naz ...
—dino Erremonek.
Eta beste horrenbeste
Manu Kokoxek.

—Aitita? —ebagi deutset.

Buruagaz baietz
erantzun deuste.

Aitita izatea,
amama izatea
adinekoen
gurari ta ames;
baina hori lortutea,
arriskuan,
gaur ez errez.

Antza danez
udabarriko lorak
galdu egingo
ete dira?

Gizon gazte,
emakume gazte...
bizitzako iturriak
lorrinduko ete?

Nork daki ezer?
Umeen umeak
ez ete dira eder?

GALARRENAREN ERPEAK

Trumonaizea dabil,
trumonaizea;
zirrikituetan zehar
haize errea.

Piparra ugari dago
dendetan,
baina ez garitzarik
inguruetan.

Trumonaizearen
ostean galarrena,
horixe da izan be
itsasoko zezena.

Hainbat bidar
sekulako kalteak egina,
galarrenaren zoria
atsekabe ta samina.

Jaio nintzan urtean
hainbat ito zirean
Kantauri hasarrearen
barru sabelean.

Bitartean
hor dagoz egon,
neke barik
plastikozko potinak
portuan lotuta
egoteko eginak.

HARRIZKO EDERTASUNA

Lekeitioko Basilikea
txairoetan txairo,
haren ondotxuan
jaiorik nago.

Berrehun uztai
—arku luze, arku labur,
arbotante mehe arinak—,
dana da harri,
azpian lur.
Berrehun uztai ditu
gure eleiza haundiak.

Aspaldiko gizaldietan
hasi ta egina,
oraingo fedea
ez da ordukoa aina.

Zurezkoa soilik
altara nagusia,
zoragarria, osoa;
koru garai zabalean
Cavaille Coll oparoa.

Jauretxeak hiru atal eskergea ditu,
erdikoak goibehe handiena;
alde bietakoak apalagoak
eleiz-ostean
besarkatzen dabe alkar.

Aurrealdean torre jagia,
kanpaien habia
ta urrunerako begia.

Kanpantorre hau
apur bat bihurria,
gotiko eratik ihes egina,
griego-erromano taiu goiskoan;
lau alboak bardinak.

Kanpaietan ditu esaldi ziur gordinak:
kanpai astun
eguerdiko hamabietakoa;
kanpai ilun nahaste
hiletetakoa.
Baina jai alaien iragarkizuna be
sekulako dilindan,
kanpai guztien burrundadan.

Ibarrean eta itsasoan zehar
joan doaz oihartzunak
eta eskeintza hori onartuz
itsasoak bere marruma luze sakon
zelanbait amaibakoa
bihurtzen deutso erregalu antzera.

Kanpai-hotsak zeruetan,
uraren murmuixea
haizearen hegoetan.

Lekeitioko Basilikea
eder ta ikusgarri,
haren ondotxuan
jaioa naz ni.

Gizonen eskuz landuriko harriak,
alkarren ganean jasean jarriak,
gotiko loratsu finak,
harrizko arku lirainak.

Andra Mariari eskeinia,
hortxe datza, altara berean,
hasierako elorria,
elorri zuria;
unezaroan hortxe
lamera hasieran
Ama Birginearen madariak,
txiki-txiki, gorriak.

Etxe handi horretan
hasi zirean bizi izaten
gure arimak,
hortxe menperatu ginduzan
zeruminak.

Lekeitioko Basilikea
txairoetan txairo,
haren ondotxuan
jaiorik nago.

1990-VIII

URA BATEZ BERE

Hazur eta mamin
ditugun arren
ura da gugan nagusi,
gorputzak daukan gehiena
ura da;
ur barik ezin bizi.

Lehenetan zelan izan zan
ez dogu oraindino
artez ikasi.

Amak, bere sabelean,
urtzan gaukaz:
uron azala urratsean
seina gertu da jaioteko,
eta honelan gatoz
argitara.
Senideek ikusiko gaitue
jaiota batera.

Ura, amasea ta negarra
gure izatearen agertzaile;
ez gara euren jabe
baina zainduten
ahaleginduko gara.

Amaren emoi ederrak
gorputza ta maitetasuna;
amaren bularra
gure lehenengo ura
gorputzean barrura,
iraunazoten gaituana.

Esne eta ur.
geroago janari;
bizia misterioa da
zor deutsagu Jaunari.

LEKEITIO IZENA

Otaio, Lumentxa eta
San Nikolas uhartea,
hiru tontorron barrutian
Lekeitiok bere tartea.

Tarte handiegia ez,
baina bai nahikoa.
Zein ezjakinek asmau ete eban
“Leku itoa”?

Lekeitio berbeak
zer esan nahi dauan
gaur dan egunean be
oraindino ez dakigu.

Argitasuna dabil gure urian
uda eta negu,
portu eguzkitsua,
mahasti zabalak be
lehenago izan ditu.

Ito...
itsasoan ito leiteke
hanka bikoia.
Lekeitio ez da inoiz ito.

Lumentxan, Otaion
eta uharte morroskoan
gure muga jakinak
urteen orpoan.

Alderik zaharrena Atea,
harrezkerokoa Arranegi
ta portu barri.

Hau ez da barriketa
azkenik bakoa,
gure auzo oparoak
lehorra ta itsasoa.

Izena?
Etimologistek porrot egin eta
libre dabil zezena.

INDAR BAKARRA MIHINEAN

Jesarteko gogoia,
belaunak ahul,
bular barruetan
haizebideen esturea,
begietan gandua.

Koita jot¹en egun latzen joanean,
inoiz lo, inoiz ez;
egonezin ...
ezer ulertzen ez danean.

Esku-ganeetan
zain tontor eta urdinak,
koxkor eta txanbihur.

Epearen zortzi koxkak
beteurren direanean
agurearen buruhauste eta kezkek.

Nor etorriko ete da gure bila?
aingeru ona ala gaiztoa,
arean "beste mutila"?

Itxi dagiguzan ardurak
Betikoaren eskuan,
Berak jarri ginduzan munduan,
guk ez dakiguna dago Haren buruan.

Gu soilik,
loguradunok loguran.

¹ Koita jo: kexuz bizi, erosta jo.

ITSASOAK EKARRI DAU

Dandarrez dakarre
arranplan gora, gazte bik
ito dan gizonaren gorpua;
biloizik dago,
kresala dizdizari
haren azal bustian.

Itsasoak ekarri dau kairaino,
buruan ez dau ulerik
ez ahoan haginik,
ez daki inortxuk bere adinik.

Baina arrantzale zahar batek
ezagutu dau gorpua,
antzinako indartsua,
hiru emazte izan zituana,
seme-alabez noizbait hornidua.

Dandarrez ekarri dabe
arranplan gora
eta bertan laga,
epaikaria ager dadin arte.

Mantar nabar bat ganean ipini
eta estaldu deutsoez lotsariak.
Kristala haren begiak
ortziari ixilkiro deiez.

Hiru emazte izan zituan
gizonaren gorpua
gilazgora¹ dago
nasa-aldapa berdean.
Katabiñta hor dau bidean.

¹ Gilazgora: ontzia gilaz gora dagoela, goikoaz behera, iraulita.

UDAKO ILUNABARREAN

Salbe ederraren gauan
uneen tanborradea
amaitu danean,
iluna dator ixilik.

Erdi lotsaz edo
moiletako farolak
isiotuz,
hiru argidunak lehenen,
besoluz argibikoak hurren.

Potin banakak
pra... pra... pra...
herriko bandan,
arrain apura barruan.

Abadeen moilako
jesarleku luzeak
—harriak epel-epel—
lagumez beteak.

Zeru aldea ilun garbi,
Otaio alderantz
hodei dunduak mehatz,
orban antzera
pintoreak jarri.

Atunzaleak ez dagoz portuan,
irabaziaren bila
euren intxaur-azaletan
urrunetara dira joan.

Zazpi-zortzi mutiko
moila muturrean
pantxotan,
gurariaren
txitximurkadea
haragi bizian.

Gaur ez da galarrenik,
zorionez.

Antzozizko farolak
distira zuria
itsasoan zehar.

Gaur loak
berandu hartuko dau
uriko lagunteria.

ESKOLAKO MUTILAK

(Tokian tokiko)

Erdi geldirik, erdi ixilik
egon behar zan eskolan,
ezerezetik haserretxuak
errez samar sortzen zirean.

—Cero... auskaka egingo dogu.

—Num? Zuk nahi dozun tokian, ez.

—Ba... bai. Hondarrean
edo frontoian.

—Ez. Eskolapean.

—Baita zera be. Txaputxeruen
herrian, ez.

Arranegitarrak

euren toki ta teknikak:

“emotea”; “behera etxatea¹” ...

“muturrak zebatea²”

“begiak karenatea³”

“koipegorriak⁴ ataratea” ...

Mutikoen indar kirolak,
gorputzekoak.

Txikitan ikasi behar
burruka moduak
burrukea eskatzen dau
sarritan munduak.

Lehorrean, itsasoan,
kale eta tabernan
emote ederrak alkarri,
zelakoak eta zelan.

¹ Behera etxatea: behera botatea.

² Zebatu: handitu, ezpanetan jo ta jo eginez.

³ Karenatu: baltzitu, begi ingurua baltzinez jarri.

⁴ Koipegorria: odola.

Umeak... aingeruak,
baina ez sarritan;
inortxu ez da hilgo
munduan birritan.

IPARRAIZE HOZKIRRI

Dendetan agirian
sagar ta okaranak,
ta hondartzetan, barriz,
titi baltzeranak.

Antzinako kantea
"sirenita del mar",
gaur begien aurean
iztar eta bular.

Honaino be heldu da
ingelesen top-less;
neguan jantzi lodi
eta udan bapez.

Hondartzan erdi biloiz
gaurko *añasekak*¹,
eguzki beroagaz
bularretan pekak.
Iparraizetan dabiz
maminak aidean,
sermoia zetarako
belarri gorrean?
Aldi baten bikini
eta orain top-less,
upinen² hasieran
"munduan asko lez" ...

¹ Aña seka: umeei bularra emoten ez eutsen inudea. Handikien etxeetan ondo ikusita egoan.

² Upin: ipuin.

ONDASUN GALDUAK

Maitetasun lorea
zimeltzen hasten danean
lehenengo kolorea
ta usain gozoa
ihesi doaz
begietatik,
usaimenetik.

Orduaren tamalgarri.
Maitea ez da maite,
edonor da, edozein,
urli...
Oi, desamodio mingotsa.
Lezezuloa ez da
hain baltza.

Buruan lainoa hasten,
eztarrian legorra,
ezpanetan
eztiaren orde z hondarra.

Maite-etxe samurra
txabola saskel bihurtu da,
kantuak ahaztu jakoz
haizeari,
ura murriztu iturriari.
Bizitzako zidorrak
sasibide dirudi.

Nora zara, Maitea?
Nora zara
preminaren preminea?
Amatau da gure
barruko laba beroa.

Zauririk handiena
bihotzekoa,
gizakiak gizakia
hobira daroa.

ITSAS

Itsas... berba labur izenez;
berba zabal, izatez,
zeruaren seme,
lurraren senide,
jaio gineanetik
gure begion adiskide,
itsas.

Ameskariak zeugan
nahi dabe mozkortu,
ontzi oihaltsuetan
joan, jolastu,
zeure ule harroak orraztu.

Itsaso
gaur eta atzo
zeure barruan
soinu etenbakoa,
eta edonun
hatxa ta hondarra,
zeure atadiko lurra
samurregia jatzulako.

Itsaso
hitz jaso
haizea zuk morroi eroso.

Itsasoa...!
Mundu biribila,
haizetan hutsean dindilizka
eta itsas-trak ez dira hutsetara jausten.

Mirariaren haundia!
Hainbatentzako eskeintzen dozu janaria,
zeure ume dira ibaiak eta aintzirak.
Hodeien inude,

gizonarentzat zure
euri aberatsa.

Itsasoa...
bizitasunaren jabe
zure gogoa.

JOAN BEHAR BAINA...

Zu ta ni alkarrenganatu
gineanean
munduan bateko gineala
guk uste;
astiak astiro esan deusku
gure ustearen ustel.

Bigandik hirugarrenik
baletor,
zorioneko batzea,
joan gaitezanean
hor lagako dogu atzea.

Behin da bizi izatea,
beste guztia barriketea;
lehenengo egunetik
hasten dogu hasi
haruntzerako bidea.
Neurri estu samarra
gure epea.

“Argia... haizea.”

eskatu eban jakintsuak
bere estu larri itzelean,
gelako leihoak edegi arren
argirik ez haizerik ez eban.

Joakerea zan,
eta joan egin behar eban:
egon eta jarrai
ezetzak dira
arnasestua danean.

Beste indar batek
menpekotzen gaitu,
ta joakerako burdi astuna
ezin inork gelditu.

ZIRI

Maitetasunak
ba ete dau hazurrik?
—itandu dau goizeon
txakur gosekilak.

Inork ez deutso erantzun
eta haizea, bere hutsa,
hutsetan hustu da.

Txakurrak nekea dau
ortziari begira egoteko,
belaunetatik beherakoa
gehienbat, ikusteko.

Usainaren guna dau
gaitasunik ziurrena,
usain jakinari deutso
bere gardia¹, bere mena.

Maitetasuna jaio zanean
hazurra aitatzen da,
saihetsekoa, hain zuzen.

Maitetasuna
mamina ta azala dala
uste dogu orain hemen.

Maitetasuna, barriz,
hazur, azal eta mamin
guztietaz gain dago.
Alkarrenganako
txera ona,
horixe da maitetasuna.
Bai, andrea.
Bai, gizona.

¹ Gardi: eretxi, uste.

ALTZIPRES ZORROTZAK

Zeruaren udako urdintasuna
altzipresak zulatzen dihardu,
zuhaitzaren ertzak
baltzak
nabarmen dira
ortziaren arpegian.

Haizea, alper txatximurkadaz
erdi zauritua.
geldi, lo antzean dago.

Hilerriko gizon
zulagilea
alkondara hutsik,
atxurra sorbaldan
ta pala zapala eskuan
kurtzio artean,
txakurra etzunda gerizpean,
ixilaren jaun haundi.

Auzune honetan
inor ez da hasarre,
bakeak
begiak zabalik ditu,
egunez eguzki,
gauez ilunaldi.

Zeruaren zabalunea
altzipres baltzak
zulatzen dihardu.

ALDI JOANA, ZEIN URRUN

Amandarriko¹ amandak
—arrain txikia ta gitxia—
nun zagoze orain?
Abadeen moilako
barbarinak be,
joan zirean, joan.

Lamerako harri kixkirri
eta bedartxuak be,
kendu ebezan
asfalto une bihurtzeko.
Umeak horra hona
bizikletan,
zaharraren gorputzak
jo ta hankaz gora,
batzuk eta besteak.

Barrako ixkira gozoak
ez doguz orain auzoak.
Plastiko eta zikinak,
petroleo hondakinak,
ai, aspaldiko
hondartza finak!

Frontoia geunkan txikitan,
aterpe bakoa
ta aterik bakoa,
goiz eta arratsalde guk
pelota jokoa.
Orain, aterpe bai,
baina atea
ez da serraila bakoa.

Hauxe dok hauxe
ekologiaren porrota,
aititaren potina
hondoa jota.

¹ Amandarri: talako moila sendoa, olatu-hauslea.

BIZITZAKO ALDAPAN

Itsasoaren eta zeruaren
lerroa lanbroak jan dau
gaur goizean;
grisak hedatu ditu
bere gona arinak
eta azpian gorde
lotsor direan maiteminak.

Bihar datorke iraila;
irak oraindino
heze, berde-berde,
ta holantxe gotor
gaztaina lakatzak;
eskas samarrak artotzak
udako egarria ase ezinik.

Hegaluzeak moilaganean
ikustea ez da hain errez;
ontziratu arren
erbestectara daroetz
kabanak hutsak eta hautsak
jan ditualako.

Bizimodu barriko
egoera bakana,
kanpotik ekarri beharra
jana ta edana.

Diru ziztrinez
ugaritu arren
gauzaz, behartsuago.
Dendaria
kamioi trauskilen
begira dago.

ZURE BEGIAK

Zure begiek zer dauken
ez dakit,
kanta baten barriketea
izan dala gogoan nik.

“Zure begiak”
esan arren
beste gauza asko be
baditu emakumeak,
paradisuko distira
zeharo azaldubageak.

Pixurik arinena
ta astunena
maitetasuna dalako,
maiteminen arriskuak
zetarako?

Filosofoen nekea
inor nekez betegurea.
Halan be, gu, kantagileok
maitetasunaren alde;
txinpart hori
suspertzen ez badogu
zerk erabiliko gaitu
munduan?
Sarrerarik izango
ete dogu zeruán?

URIGINTZAKO JOLASAK

Etxe horren parean
kalea estuegia dalako,
etxe hori botateko asmoa
sortu da sekulako;
beribilak behar dabe
lekua zabalago,
pertsonek espaloia be,
txanda zain dago.

Goiti beheiti etxe batzuk
tantaiegiak ei dira,
hor ditu arkitektu jaunak
artaziak neurrira.

Hiru goibehe, ez gehiago,
kale zaharrekoa dalako,
kale barrikoa balitz
edozer dago ondo neurriz.

Urigintzeak dakarskun
fabula barria,
atzo esaniko baietza
orain kondenagarria.

Holakorik nork esango?
Urigintzan be, jolasak;
atzo soka lirainak
eta gaur matazak.

GINDAX¹ TXAIROA

Antzina be matxinak²
geunkazan portuan,
kargaz erabilteko
behar zan moduan.

Baltzak ziran matxinak,
baita balandrak³ be,
aldian aldikoa
aitatuten dabe.

Oina, bakarra eta
besoa be bakar,
gindax barriak jantzi
zurizkoa dakar.

Kontenedorik ez zan
karga kontuetan,
gauzak erreztu dira
oraingo lanetan.

Indar haundia dauka
beso bakarrean,
horren laguntzarri
sustraira oinean.

Beso horren galtzarpean
erraila bidea,
pixua zelan zaindu
hor dau aukerea.

Anporrak eta olak
aidean dantzari,
ondo etorria gindax
zuri-zuri hori.

¹ Gindax: garabi.

² Matxina: garabi.

³ Balandra: balandro, kargarako ontzia.

KATUAK ETA SORGINAK¹

Hogei mauts eta makon bi
katuentzako janari,
islako moilan mutil txikiak
arrantzuan ondo daki.

Kanpiluan Katukale,
parajea Uriarte,
bazkal-aurrean hainbeste katu
udan eguzki-hartzaile.

Kalerdira deirik bage,
jantziak hainbat kolore,
baltz eta zuri, gorri ta nabar
ezin-egonik ez dabe.

Etxunda dagoz lurrean
ta automobilen ganean,
mihinagaz garbitzen dakie ta
lohirik ez gorputzaldean.

Aroztegiko txakurra
bai zaunkalari maltzurra,
kataiagaz lotuta dago ta,
katuei ez deutse ardura.

Harako antxina baten
Atxabal kantat² barrenean
goizaldean gizonen susmoan
katu baltza ikusi eben.

¹ Oraingo eta lehengo pasadizua.

² Kantal: kantoi, ertz.

Katuari bota harriak,
bihamonez agiriak:
kalean andra bat erdi-itsu
ta koxoka hanka biak.

Katua eta sorgina
ez da, ez, gauza bardina,
Kaixparren zaldi inguruan be
sarritan andra-arraina.

Ai, sirena, sirenita,
ziletik gora polita,
ganora bako iztar bakarra
eskamaz dauko josita.

Lekeitioko sorgina
gabean katu egina,
gure urian aspaldikoa
amesezko dan upina.

Upina nahi dot, upina,
hoba pare bat lupina;
hazurrak be, mizkau behar dira
amaitu bada mamina.

Hogei mauts eta makon bi,
atzo hamasei gorroti;
katua ez ur-zalea, baina
arrain-zalea gogotik.

1990-II-27

ASPALDI BATEKO KANTA ZOROA

Portupinera¹ joan nintzan,
behinola Portupinera,
neure mutil lagunagaz
bakarrean egotera.

Kaioak han ebiltzan
gorago ta beherago,
gure maitetasuna
loran gogozago.

Portupinetik ikusi
itsaso luzea,
hantxe susmau olatuak
eta kresal haizea.

Gizonari bizarrak
urteten deutsanean
odol gaztea zanetan,
erdi irakinean.

Portupinen gengozanean
mundua guk ahaztu;
munduak, ostera,
gure hegoak moztu.

Orduan hasi genduan
gure ames handia, upin ...
Azkenengo egunerarte
ez jat ahaztuko Portupin.

¹ Portupin: Portupin, XVII. mendean, orain Ezpeleta ingurua, Arranegian.

EGURALDIA, EDERRA!

“Zero nobentaizinko”
Kose Kanonean:
salabardo, kankarru,
aukera onean.

Kale horretan ez da
berorik sekula,
hortxen entzun genduan
lelengo eztula.

Hor bertan “Guzurmendi”
barriketa toki,
lekeitiar *agora*,
zurrumurru iturri.

Antzinako frontoia
bazan plazan bertan,
ta Kabau aldekoa
gero egingo zan.

Mataderia zana
laster da gertuan,
hiru adinekoak
kaiola barruan.

Etxe bakotzak dauko
bere historia,
nun bizi ete ziran
Peru ta Maria?

Zero nobentaizinko
Kose Kanonean,
gaurko pezetatxua
diru handia zan.

PASADIO¹ ZAHARRAK

Isabel Lekeition
udan egoten zan,
jauregi jardinean
ta nasai, hondartzan².

Isabel bigarrenak
hondar txikinean
bañista gizon ona
zintzo izaten eban.

—“Señora Erregina, altza
la pata; dzangate—
bañistek agindu
ta Isabelek barre.

—Arrantzale ikusgurak
zer esaten dabe?

—Ai, señora Erregina,
serdo que pareses”.

Espaniakoa zan
Erregina eder
generalak cukazan
eskuma ta ezker.

Serrano (=Karraspio)
eta bestea Prim,
tremes³ antzeko ziran
eta ez ogi fin.

¹ Pasadio: pasadizu.

² Isabel II.a erregina Lekeition.

³ Tremes: ogi baltz, erres.

General biok eben
erregina kendu,
ta biok gura eben
burua gizendu.

Hirulau tiro hartu
ta Prim hil egin zan;
Serranoren eskuak
zirtzil, azpiak jan.

Serrano hori ministro
ta gero Regente,
Isabelen tronuan
oilarra lez tente.

Esparteron mailara
Serrano zan heldu,
baina handik lasterrera
berau be, zapaldu.

Tronutik bota eben
aukera beroan...
ta Isabelen semeak
koroia buruan.

Ikasgarriak ditu
sarri Historiak;
benetakoak dira
gure komediak.

GURE SIRIMIRIA¹

Arratsaldeko seiretan
loak hartzen ditu
etxeetako iturriak².
Arratsaldeko seiretan ...
eta itzartu
goizeko izarretan.

Basterrak, Unamunok
eta Blas de Oterok
kantatu eben sirimiria
galdu egin da gure zeruan,
idorteak
eskuan darabil
bere zigor gorria.

Umeak amaren titia
gura dauan arren,
gizonaren egarriak
ura dau eskatzen.

Baina ez dago titirik,
ez dago euririk, ez urik.

Arratsaldeko seiretan
loak hartzen ditu
etxeetako iturriak.

Bolintxu osina
aspaldietan udan
bilbotar mutikoen

¹ "Gure sirimiria", *Bilbao*, 1990, 26. zk., 9. or.

² Sikatea zala-ta, ura moztu egiten eben gauze. 1989ko urrilean hasi, 1990 urte osoan jarraitu eta 1991ko otsailean amaitu.

igari leku atsegina.
Agur, igari ta bustialdiak,
edateko behar doguz
ur guztiak.

Ordunte eta Zadorra
murriztuz doaz,
euren bularrak
oraintsurarte hain oparoak.

Bilboko ura
hain harrokiro aitatua,
alkohola kendu
ta edateko behar izango dogu.

Ortzia
gehienetan urdin,
—harako trimotor egunetan
gerrateko lehen udabarrian
egon ohi zan antzera—
hodeiak banaka edo nahastean
agertzen dira,
baina pikaro keinua egin ondoren
atsegin ezorik emoteke.

Arratsaldeko seiretan ...

Legorteak ere
ukabil gogorra dauka,
gorrotoaren ezaugarri;
ukabil horren barruan
gorde dau
edur, txingor eta euri.

Harrituta dagoz
zahar eta gazteak,

iturriko uraren eske
hain modernuak diran umeak.

Baztertu ditugu
ugari ta entzutetsu
genduzan guardasolak ...
eta kirol arloan,
ai, Pichichi! ai, Zarra!
lupuak jo ditu
Athletiren golak.

1990-II

DON ANTONIO ZAMORA, AGUR¹

Zure umetako ingurua
Arropain izan zan:
Kurtxia, Otaio,
ta Lumentxa
begien aurrean.
Lekeition eskolea ikasi
eta latin;
mutiko zineala
buruan zerbait,
asmo sendoa bihotzean:
Jaunaren zerbitzari
eta gaztetxuen laguntzaile.

Horrelan hasi zinean,
horrelan jarraitu
azkenerarte.

Hemen eleizan
eta kalean
itsasoaren soinu artean.

Edonork ohi dauan lez
lagunak eta adiskideak
izan dozuzan arren,
areriorik bakorik
ez da inor hemen.

Ta zu be, joan zara.

¹ Lekeitioko abadea, bertako semea, hainbat urtetan bertako abade. Hil zanean egindako olerkia.

Hutsune handia inguruan.
Ordezkoren bat
agertuko al da urira!

Hutsune aukerakoa
zori onez bete egizu
zeruan.

1990eko gabonilean

AMA TERESA KALKUTAKO

Zu be, adinen tontor
gora batera heldu zara,
maite zaitue zeure kideek;
harroek, ez ostera.
Baina zeure alabek
dedu handian zaukaze
ta gailurrenera jaso gura.

Nagusi ez izateak
mingostu ez zagizan
barrero be, Goren
egin zaitue,
eta barrero be
mila buruhauste
zure izpirituan.

“Jaunaren izenean baldin bada”
izan da zure berba apala.

Emakume maitegarri,
maitegarrien artean.
Ez nator bat, ez arean,
horrelako usteetan.

Zahartzaroko atsedetik, behintzat
ez ete dozu merezi?
Ai, zure alaben
itsumendu hertsil!
Zegaitik ez, zu,
egon baketsuan utzi?

90-IX-9

MOKOROA, JUSTO MARI¹

Mende honek mundura ekarria,
txit maite izan duzu sorterrria
eta hemen zu euskeraren ume,
horrentzat zure lanarteko une.
Nagibera den sehaskan ez duzu
losuna nimiñoenik gozartu,
zegoena, genuena biltzen,
begi, esku eta buru
atseden orduetan erre,
 ekina nahien,
arbasoen eta gurasoen
esaldiak, hitz-xortak
 saskietaratzen,
sagar gorri ederrak
 bailiran.

Garapena urte sailean
lanpean makurtua,
azkenaldian arbola zaharra
erdi loak hartua,
neke luzeen luzapena
 hor laga duzu,
—hor ikusi pozarren
irrifar bare, ez izu—.
Esaldien sorta
euskaldun gazteei
bihotzez eskaintzeko.
 Joan zen Lekuona,
 joan Koldo,
ta orain zu, Mokoroa ...
bost urte estuk
dantza beltz eroa,

¹ Justo Mari Mokoroa *Repertorio de Locuciones del habla popular vasca* lanaren egilea da eta 1990eko azilaren 7an hil zan.

geldumendian ugalduz
umezurtzen saldoa.

Zalapartako bideez
urrunduzale izan zara,
baina eztabadan zure hitzak
ez zalantza, ez dardara.

Zintzotasunean zakiguz eredu,
guztion artean bide arteza
hizkeran ere behar dugu
distirapean jarri.

Betor argi, betor beroa
euskal zelaira;
esan dezagun:
idazle zaharrak
zintzoak izan dira.

90-I-8

JOSE MARI MAKUA, AGUR JAUNA!¹

Zortzi egunek ihes egin dabe
zeure agurraren ostean,
zeharo joan baino lehen
egotaldixua zuk Artaganen;
hortxe dago Miren,
ama izenekoetan haundien.
Abestiak eta soinuak
euskera gozoak
zalaparta motel minberatsua,
han gorago eguzkia
laino artean lanbro ixila,
erdi itzalirik sua.

Errotariak gau ta egun
urteetan bira ta bira,
eginbeharra hurrean, atsedena urrun.
Bizkaian mehaztu dira
basoetako haretzak,
banakak dira orain, banakak ...
Lurra garraztu
eta aizkorak zorroztu,
eguzkiaren labalditik
ezin lur zaharra babestu,
hodei zorangak sarritan
arrapaladan, antzu doazenean.

Azilean deutzazu lotu, Jose Mari,
biderako pardelari uhala,
eta ikasle horretan ere,
Sabinen agur-egunean
itxi dozu Euskadiren lur azala.

¹ Jose Mari Makua Bizkaiko Aldun Nagusi izan zan 1979-1987 aldian.

Artaganeko agurra!...
Bialdu deutsezu herrikideei
preminazko dabena edurra;
gorputzaren preminak
izan itxi ezinak.

Aberri lurdunaren goimuga
misterio biribil bihurtu da:
oraingo gure min mingotsak
zuretzat girbina² dau:
agur kezka, agur ardura!

Lardabiorik ez zukan,
urrats gorena eginbarri dozu,
Beti-herriko ate estu
estutxu horrek grin³ egingo dau
ta sarrera medarra
sarrera zabal gertu.

90-XI-30

(San Andres egunean idatzia)

² Girbin: iruntzi, atzeko alde.

³ Grin: grin egin, sarrailearen joko-doinua.

ZINGO¹ TXIKI, ZINGO HANDI

Zingo txikian igeri ikasten
ume denporan aurrera,
eta gero abadeen moilan
zapaletik zapalera.

Zingo txiki ta handiak
hor dira aukeran,
marraixu ta izurdak
bizi euren eran.

Portu erdian buia egoan,
haraino joan ta etorri,
horren hurrengo bildurrik barik
moilatik moilara segi.

Lehorrean azeri
itsasoan zarbo...
bizitzarako maixu
hoberik ez dago.

Olatu bako itsasertzari
makal eretxi ezkeru,
Karraspioko olatu bitsak
lantxarakoan ze ederto!

Hostala laster dogu
erdi barriztaurik,
hor egon da aspaldion
hain ganora barik.

¹ Zingo: sakonera erreka edo itsasoko uretan.

Zortziko handi, zortziko txiki
erdizka aurtengo bertsuak,
anaitasunik samurrenagaz
emon alkarri eskuak.

Itsasondoan jaio,
ta kresaltzan busti,
zerura igongo dogu
guk kresal ta guzti.

TXIR, TXIR, TXIR,...

Negu ilunetako kantu apala
Ibeni bazterrean,
Atxuriren galtzarpean...
Euskerea galduriko
eremu elkorrean,
ur ertzean
kantuaren oihartzun bakana:

“Las angulas al sedaso
han de venir.
Con su linterna
van a la taberna,
con su farol
van al mostrador.
Anguleros,
anguleros,
tengáis valor” ...

Txir,txir, txir...
Bapatean, zaparradan
euskera iraultzea
Udaletxean:
“Euskerearen ordenantza”
aldarrikatu dau
Koldo Celestino
gizon gazteak;
noragino
hizkuntza zaharraren
oihu barria,
guria, gorria,
Ibaizabaleko
uririk haundienean?

Txir, txir, txir...
belaunaldi kezkatia
hortxe dabil.
Ereile zaharrok,
langile aspaldi nekatuok
begi haundi, harriturik.

Txir, txir, txir ...

1990-II

ANTON, ANTON¹

Albiara naiatortzu
zeugaz barriketan jardutera.
Gaurkoan, udabarriko
goiz ederrean,
ezin zuk berbarik aukera.

Zu, ez zinan bilbotarra;
ni ere, ez.
Baina uri eskerga honetan
aterpe ta ostatu izan dogu,
ta Billbogaz zaletu gara:
eskerroneko da
emon deuskunaz gomutatea,
txera samurra izatea
jainkotxuen gazigozoa dalako.

...Enkarterriko ume,
amesez betea,
kantu politen egile,
ipuin gozoen esalea.
Enkarterriko umea ...

Gizaldien harri zaharrak
lakarren ganean
jarten ditue gizonek.
Eta gizaldiek
eta belaunaldiek
eratzen ditue
misterioa ta zadorra.

90-II

¹ Antonio Trucba: idazlea, hil eta harik 101 urtera, oles hau.

GOIERRI

(Lan ilunkara)

Kezka ziztrinaren erpe zorrotzak
ene sentimenaren azala
 urratzen deustanean...
 arean
behinola hegoe aldetik
 heldu zan,
haize mehe samurrean
 igurtzi ixildua doinu emean ...
hain emonkorra zirudian zuhaitzak
ezbeharra izan ete dauan,
 susterrean,
 enborrean,
 adarretan.

Orpoan ez dot
lehenagoko dantza zoragarria
 opari eskeintzaile,
ene arnasbidean, ostera, hesia dot;
berdez jantziriko orri ta orriak
ene begiok ikusi gura.

Higia gelditu da,
 doinua ixildu,
 ez dantzut ezer.
Nora zara, nora,
noizbaiteko ainara?

Hegoaldeak beharrago
 izango ete zaitu?
Bideak, curijasak, uriolak
 nahastaurik.

Baina ez noake errekarra,
umezurtzaren larra sastrakan
ez etxe, ez ate,
ene arimakide gozoaz aparte?

Ihunabarrak ez dau argirik;
egunak ez dakar albista barririk.

Loa, egona,
anemonaz betea,
distira baten,
txertatze baten begira.

.. . .

Eleiza ederreko
ixiltasun bigunean
gonadunen Abemarien
doinu murmuixa,
kristalera koloretsuetarik
eguzkia zili-ziloka jolasean,
soprano baten ahotsak
sortzen dauan oihartzunean
lilurazko kantuak lau, zabal,
ezkonberrien oheko izara antzo.

Bezperako intsentsua
arkuen harrietan kokatua,
usain emoile mozorrotua,
aro arotsu honetan
ixil eta doinu,
huts eta usain urrin.

Huts bihurtu ez dan hori ...
arima nireak badau alkarmin,
arimen batzar,
izpirituen mozkortze,
lilurazko ardau,
birlorazko katalingorri¹.

¹ Katalingorri: Pattar.

Sentimen liburuko
pasarte samurretan,
samurrean inoiz
agertzen ez danetan,
bibolinak ez kirin
bareagorik,
erdi ilunetan,
saloi ertzeko baztertxuan.

Oi, gurarien gurari,
zuzaz orain naz ari,
Zure pasarteen gosez nago,
begien dirdaiz egarri,
mintzoaren eskale,
noharroin² gorri.
Ments³ nago, ments;
amesten ditudan pereka ta txera,
noiz helduko ene etxera?
belarriak adi-adi ditut
zure kantu sorginen hotsera.

Egunsenti,
ilunabar,
eguzki bete;
gurarizulo gara,
grina-ontzi.

1990-II

² Noharroin: pobre, txiro, behartsu.

³ Ments: falta, gabezia.

ATAL TXATAL

(Hits)

Hautsi egingo ete dot
amaitu ez neban
maite lokarri eitekean
oharka¹ irotua?
Cauak hotz,
ta egunez ere ez, arean,
sutondo beroa.
Ai, etorkizunaren hegoa ...
Aterik-ate doan
eskale gizarajoa.

90-II

¹ Oharka: ohantze, kamastra.

ZANETAKO ODOL IBILTOKIA

Eskumako eskuturrean
esku ezkerrekoa ipinten dodanean
pultsu-tintina bere martxan
sentidu nahi neuke sentidu,
martxan.
Antzera lurra be,
uda ta negu.

Gizona
kosmos txikerra da
—metro bi lar jota
luzera-muga;
motxagoa zabalera—
ta iraupen laburrekoa;
baina gogoak hegoak urduri
gorputzak baino areago;
gizaseme edo gizalaba,
guztiak amak sortuak.
Gizonaren egitekoa
ezin motxagoa.

Gurariak mila,
beste hainbeste grina,
aldakoi ta irauzale,
haizearen jostailu.
Irakatsi deuskuenez
Jaunaren irudi ta geriza,
baina bai alde haundiko.
Ha Bera neurribako,
gu iraupen motxeko.
Ai, hilezinak
bagina...!
Horrelakoa ei da gure arima,
iraute osorako egina.

Artean, gurari ta grina
odol tintinak
dart-dart dagian bitartean
gure Kosmos txikerra
bizirik, berean.

90-II

ITSASERTZEKO MAITALEAK

(Bertso zaharren taiu)

Txanbiur asko dauka nire kordeletak,
zarata haundia zuen etxeko kisketak.

Biok gineanean barriketan hasi
mundu aparteko bat genduan ikusi.

Maitetasuna ixilik sareak zabaltzen
eta alkarrenganako gogoia berotzen.

Aitearenka hasi zan Mariya Belasko:
—“Atzo... txitak, eta gaur oilanda oilasko”

Norteko moila ertzean jesarleku gogor,
gabaz argi motelez, ez ebilen inor.

Txanbiur asko dauko nire kordeletak,
zarata haundia zuen etxeko kisketak.

Gure mundu gozoan ezin ikusia,
nonok eten dau gure pozaren haria.

Ni, zera nintzala ta ...
zu... ez dakit ba nik ...
eperdiereren bat
kaltean atzetik.

Hasi genduzan maite itsasorateak,
morro zantarren batek ebagi sareak.

Gaua ta eguna lez banandu ginean;
zure usain gozoa nik beti bihotzean.

Zarata haundia zuen etxeko kisketak...
txanbiur asko eukan nire kordeletak.

1990-III-8

HAU DOK HAU...!

“Zirillo lapurretan
ortu zarratuan...”

Europara begira
dago itsasoa,
zeinek zainduko deusku
lurra ta basoa?

Zikindu dabenean
mundurik erdia
gai barria sortu da.
Zein? Ekologia.
Petroleoak erre,
hondatu itsasoak,
alkarren kontrarako
doguz iskiloak.

Ekologia zer dan
edonok daki gaur,
egin eta desegin ...
bat, bi, hiru ta lau.
Barrera sartu eta
entzun dogu aurrez:
—Apokalipsis piskat
Calisayren ordez.

Edozeinek gura dau
jana ta edana,
neutzat hobaria ta
zuretzako lana.
Baltzen herrietara
gizon zuriak lehen,
orain azal-ilunak
dabiz, han, hor, hemen.

Amankomunidade
Lea-Artibaikoa
hamabi zulokoa
bere gerrikoa.
Gerrikoa ona da
alkarganatzeko,
holan hamabi herri
auzo ta etxeok.

Mugak kentzeko dira
Europa aldean,
mugak kendu nahi baina
ez dakigu zelan.
Aldakuntza handiak
urte gitxi barru,
orduan be izango da
bizimodu karu.

Europara begira
dago itsasoa,
zeinek zainduko deusku
lurra ta basoa?

91-II

ORDUKO TREOTZAREA

Treotzarea niri
emon zeustanean
txirrist eginda jausi
nintzan Kaiganean.

Hasierako berba
zurien ondoan
iluntasun baltzena
sortu zan orduan.

Burua atezuan ta
konorta galurren,
oinak kili-kolo ta
begiak ez zuzen.

—Haxe izan zan trantze
gogorra, Martzela:
trubiando¹ joan zan
nik neukan batela.

Ezin sinistu neban
zure berba latza ...
ez herrikaize epela,
bai kanpaize hotza.

Ule txorta politik
alderdi banatan,
zure irudi ederra
maite nik benetan.

Eskua igurtzi neutsun
lotsaz ta bildurrez,

¹ Trubiando: trabas, jitoan.

goian izar barri bat
hasi jatan oinez.

Zenbat bihozkada ta
zenbat sentimentu,
munduan batekoa
ete zinean zu.

Halako ezbeharrik
nok esango niri
ito behar neban ta
ezin ein igiri².

Matarlan³ behera isil,
negar anpulu bi ...
Gehiago ez dot inoiz
malkorik isuri.

Treotzarea niri
emon zeustanean
katu baltz zikin batek
miau! Kaiganean.

90-XI-11

² Igiri: uger.

³ Matarlan: matraila.

“INUSENTE... POTENTE”

Gabon gabetik hiru
egunera jaia,
sasoi baten guretzat
zoro ta alaia.

Kalean didar eta
kanta hots arinak,
ahoan geldi ezin
euki gure minak.

“Inusente! ...
potente! ...
Kaixko kaixko! ...
buruen erdian
sartu deutse. ...”

Zarata zaparradak
kale estuetan,
barre zoranga asko,
olgetan benetan.

—Begitu horrek zelan
lepoan daroian,
paperezko irudia
dindilizkikakoan.

Orratz zorrotza sartu
jumpetoi¹ lodian,
hari mehegaz dabil
dantzari haizetan.

¹ Jumpetoi: ganerako jaka lodia.

“Inusente! ...
potente! ...
kaixko kaixko!...”

Erremonbuluk, barriz,
bere denda aurrean
pezeta bikoia dau
inkata hurrean.

Bidean doazanak
hori ikusita
gerria makurtzeko
nagibako prisa.

Pezeta bikoari
ikutu ta ikutu,
zidar horrek ez dau nahi
tokitik aldatu.

Erremonbuluk barre
karkaxak gustora,
jentea leihoetan
zerbait ikusgura.

Galipotagaz ondo
inkata dirua,
makurtzen zireanak
lotsa ta amurrua.

Lotsatua orduan
arin arin iges
Erremonbolu zanak
komeriak errez.

SAMINA GARAITU NAHI NEUKE

Besoetako seme Antonio,
egun bateko sein zineanean
geure eleiza ederreko teilatupean
bateatua,
eta bertatik Txantantorrera
barrero bihurtua,
ama Tomasaren bularretara,
gurasoen etxe laztanera.

Hirurogei urte joan dira;
zahartu egin naz,
ez hainbeste zu,
baina Jaunaren asmoaz
burua behar dogu makurtu.

Emazte ta semeen buru,
guztien aita maite,
lanari emona
gizon zintzoen artean
izan dozu bitarte:
euskaldun on,
sinismenez bete,
zure irribarre ta berba gozoaz
izango dot orain nik sikate.

Agurearen malkoa
urik bakoa da,
arimea daukat negarrez,
baina zorra ordaindu dozu-ta,
egongo al da zure gogoa
hemendik gora
betiko zorionez.

Gure etxondora ekarri zaitue,
ohitureari jarraitu deitsoe;
altzipresak larden dagoz
zerurantz begira,
guztiak heltzen dira
bakotxa bere neurrira.

90-VII-25

OI, AMERIKETAKO GIZON AZAL GORRIAK

Oi, herri zahar,
—gizonak gizonen zigorpean—.
Mila galera ta eragozpenez
mugartetua,
oker guztiak gorabehera
bizirik dirauzu
zeure lur maitagarrian.

Zuen ohiturak,
zeuen hizkuntzea
eta kulturea,
lanbide mazal eta
leku errotuak
arbasoen ume zindo,
zeuen gurari ta ames,
zeuen kantuak,
arean baketsu
lurralde ezagunei atxiki,
maitezko ardurea
zeru ixilpean
bakcaren ixila,
inoizka bakezko oihua,
bihotzaldi bigunak
kanporatzea ...

Gizarte ergelaren menpe
aspaldietan zapaldua,
badirudi oraingoan
ergelok dabela ezagutua
euren okerra, euren zitala.

Aurrerantzean uxela⁵³!
bizi bedi zuen bizia,

⁵³ Uxela: oxala!

zuen askatasuna,
zuen arnasa ta gogoa.

Aurrerantzean
gizon zuri, gizon baltz,
hori eta gorri
izan beitez
gizabide barriaren
zuzi sendo aratz,
giza hirtuteen txirlarri,
askatasunari
ta alkartasunari adi.

90-II

BETOZ GAZTEAK

"To be or not to be,
that's the question"
W. Shakespeare

Izan ala ez izan,
hona hemen koxka,
Hamletek aspaldi
esanikoa, hoska.

Shakespeare ingeles
idazle zorrotza,
gure artean oraindino
ezin halakorik goza.

Baina betorz gazteak,
edegi leiho ta ateak,
ikertu lanbideak,
buruak argi jarri
ta jakintza legeei
ekin eta eutsi.

Izan ala ez izan?
Izatea, bizia,
gure barruko guna,
maiteen doguna.

Izate hau
ezin huts gerta,
gure premina
gordina da-ta.

To be or not to be ...

Badakigu hor dogula
gure zain
ezezagun hori.

90-I

AZKEN UNADAN

Honelako eretian
susterren bidea hastea
alperreko lana ete dan
badot halako ustea.

Nundik, zelan heldu nintzan
ez dakidalako;
joakerea, azal-azaletik
ikusi daroagu:
gurasorik ez orain,
senideak urri,
joan direala
(eroan egin dituela)
dakigu soilik.

Bizia mehetuten danean,
bihotzaren dantzeak
etentxuak¹ ditueanean...
higieratik sor-egoerara,
baietzetik ezetzera,
portuan azkeneko sarrera
geldia, sorra, lorra.

Begiek zabalik iraun arren
gehiago ikusterik ez hemen.

Arimeak isilean
bere tresna ta atxamartak
guretik, gugandik atara
eta etxe hau
hutsik laga deuskulako.

¹ Etentxu: arritmia.

Ustez
gaba sekulako.
lo ta lo (martolo)
egunsentirik bage;
kirioek sentimena
karraldo² bihurtu dabe.

Gure irakasleek be
aldegin eben
harei be arratsbeherea heldu
eta hanka! goienbarren.

Azken unadan lumea
burua baizen nagi,
zerbait esan, irakatsi nahi,
baina bizi-kandelea
itzaliz itzaliz,
argi barri gosez
ta egarri.

90-IX-7

² Karraldo: izotz baltz.

SABIN MUNIATEGI HEGAZ

Urte berean jaio ginan, Sabin,
—hiru hilabeten aldean—
Bizkai estu honen lurtean.

Gerratea baino hiru aste lehenago
alkar ikusi genduan, inoiz ez-ta,
Azkuearren omeneko Olerti Egunean,
Lekeition, 1936 gko bagilean.

Han ziran hainbesten artean
Aitzol eta *Lauaxeta*;
hain lasterrean bitzuok
arerioen bala setatsuek
gorputzak zulatuta,
bata udazkenean,
bestea hurrengo uda hasieran,
aberriaren arerioen gorrotoak
edozer birrindu gura, galdu, erre...

Gaurko eguzkiak mantila luze baltza
dauka buruan,
Bizkai eremuan
hiletaz gagozalako;
edari mingotsa dakar eskuan,
katilu barruan
erdirakinez albista iluna.

Sabin,
begi ta arpegi argi,
adoretsu beti,
Aberriaren ederra egin guran
emon dozuz urteak eta egunak,
euskerearen kutunak
zure neke ta kezkek.
Gandiaga azkorrak be
agertu euskuzan bere espak.

Agur egiteko unea
ez ei dogu geure menpe,
bitartean dira alkar ezikuste,
jazoera bakan edo ezuste.

Udabarri honek azken leihoa hertsi
ta ixilak gugandik zaitu berezi.

Nora zara, Sabin,
hara gora hegamin?

Euskal amesez ta hitzez
txortak egin dituzu,
bizi gihartsuak
ta ez mamu, ez betizu.

Oraingo Donianez soloetan,
bide kurtzeetan,
basetxe ateetan
nork ipiniko ete ditu?

Garoak ez zu gehiago
goiz ederrean bustiko.

Zera dakit, ostera:
joan zareala, joan
urrezko Olertia irakurtera.

90-VI-22

MAITARI ESPIRITUALAK

Gogoango amorante ...
ez da berbertatik
sinistutekoa;
egia da horraitino.

Amoranteak kutun
izaten dau haragia;
ez da horrelakoa, arean
maitari espiritualaren
guraria.

Gorputza gara,
buruan, bihotzean
beste zerbait dogula;
gogoa, joera,
espiritua bera,
aldietan erasozale dan
indar eta lera.

Nor da, zein da?
ikutu ezina dan
sentimentua dabil,
ez dago hor
erlerik ez lorarik;
ez da behar oherik,
izarak
begien kliskadak,
haragi zirikaria ez baina
berbeta gozo bare,
beso ta eskuak lanik bage.

Izar goratik jaisten dan
dirdira eta mana,
zoramenezko iturri,
geldiaren geldi.

Amorante bero zoroa
ez da arimakide gozoa.

ALDI JOANAK

Neure potina izan dot,
neure potina oraino,
ez itsas handietan ibilteko,
itsas txikietan baino.

Astuna ez dan arren
aldiaren haize latzak
ezarri deutzaz
erpoi¹ zorrotzak.

Gila ta saihetsak
iraun makalean
ene potinak,
arrakala, zirritu, zulo
galdu ditu maminak,
aldi joanen esku errea,
txorta luzcan datoz
urtea ta urtea.

Hondoratuko ete jat
potin makaldua?
Bildur naz.
Txikien dan olatua
nahikoa, okerra ekarteko.
Lemazain nazan honek
geroko kai-harriari
ete deutzat oratuko?

90-9-24

¹ Erpoi: erpe.

ARANTZAZKO TORREKO OLERKARIARI¹

Eguna argitzean
serraileak grak atean,
etxeke gazteak urten;
zaharragoa, barriz,
ohean, nagiak hausten.

Txikitako zerak gomutara:
aitita gureak zituan ardiak,
txabola inguruan sakabanaturik;
gabaz, barruan.

Orain, menpean nauka uriak
eta ez dot baserriko gatzaturik.

Baserriaren deiaren
oihartzun leuna,
Candiagaren esanetara
heltzen nigana.

Bizkaiak, zori onez, daukan
idazle ta olerkari
ixil eta ozena.

Caldu? Zer galdu, Biktoriano?
Ez dakigun misterioaren
argi murrizteko laino.

Halan be,
itxaropen kurtzelua
sutondoan pox-pox,
aitita-amamen gogo
ames lotsorrez betea.

Kurtzelutxu horrek
argituko geroetako atea?
Ailitz Jaunaren
borondatea.

¹ Bitoriano Gandiagari, *Denbora galdu alde* liburuaren egile eta adiskideari.

ANTON

Ta... nora zara, Antonio,
hirurogei urte besterik
ez dozuzanean?
Hemen dagoz Audio
eta Otaio...
baina zu ez zagoz.

Behe honetako lorra
eten eta askatu dozu.
Urteen kataia
luzea ala laburra ete dan
ezin jakin dogu.
Noiz, nun eta zelan...

Honako ez gareana
bagenkian arren,
gau bakoxtxaren ondoren
egunsentia,
gure gurariz, alaia.

Baina bestelakoa be
izaten da, ene besoetako
seme hori.
Egun argiak, gau baltzak,
urte mamintsuak, urte mingotsak.

Aitabitxiren aurretik joana,
aurrean dozu Betiko Jauna.

1991

TXOMIN JAUNA¹

...mi sol re mi²
si re do sol sol fa...

Buruan tokia dauken
izakien artean
soinua dozu zeureen,
antzinetakoko ene Txomin;
soinua da izan be
entzumenaren hurun-edari,
ames sortzailea.

Ixila losorroan egonik
iratzartzen danean
oihu, entzungai
bigun edo ozena...
tekladun elementuak
dituzu zeure tresna.

Soinutasuna
hegan doana da;
hitza ere, soinua da,
baina soinua ez da hitz.

Izadiak ixila ta zaratea
morroilopean cuki nahi ditu
txandaka;
baretasun emea

¹ Txomin San Sebastian, lekeitiarra, bertako abadea eta organista zaharra.

² *Doctor Zhivago* pelikulako eresi biguna ere entzunerazo euskun, musika jasekoa zala-ta.

edo burrunbadea
gure entzumenean
igurtzian edo takadaka.

Zaratearen eta ixilaren
senidea oihartzuna da;
gogotsu hasi eta
apurka-apurka
hilten, hilten ...

Amesaren sortzapen frutueta
doimua eta poesia
ahiztak dira.

Basilika ederraren
teilatupcan durundia,
soinuzko durundi
atsegingarria.
Bibliak hitzez esana
soinuak beteten dau dana.

Urruneko musika, bertoko soinu
entzumenaren barru kutunean
jai eta urre-errainu.

Herri maite zarean horreri,
zeutzat idazten
herri-olerkari.

Zu gazte zinean,
ni tiple mutikoa,
orduxetik dogu
adiskidetasun bigun
etengabekoa.

AGUR-AGUR AZKENAK¹

Agurka, joate-agurka dihardut
iragan azken urteotan
eta irail ozkarbi
ta epel honek ere
berba ilunak ene belarrietara,
ta lerro baltzak begien aurrera.

Dimako Obako erle²,
azkar eta langile ...

Hil zatxakuz!

Udazkena geugaz urretsu
ta zuk bizion gizarteari
agur-agur egin deutsazu.
Aurreruntz, bizkor, ibiltari
ortozik ekin deutsazu
urrunerako bideari.

Bihotza ukabil barruan
estuturik daukat;
eta entzun, Lino,
horixe jazoten jat
gero ta sarriago.

Oraindino ...!

Arnasestua
neke arinaren ondoren;
arnasestua
atsekabearen hurren.

Adiskide kutunok
banan-banan alde;
larra lardats bihurtuko da
amonaren baratza.

¹ "Agur-agur azkenak (Aita Lino Akesolori)", *Karmel*, 1992-2, apirila-ekaina, 200. zk., 119-121 or.

² Aita Lino Akesolo, 1991ko irailean hil zan.

Ugartu egingo dira
atxur eta golde.
Baina, Jauna, hau bai triskantza
ta mehaztute errukibage!
Betikotasumeruntzekoan
antza danez, ez da sasi-biderik,
ez lurgane honetan dogun erriperik.
Horraitino,
hegoak behar, Lino,
hegararik luzeena egiteko.
Horretarako ere,
ez dozu nagirik izan;
iraileko goizalde epelaren gerizan
ixil-ixilik batu dituzu
zeure izarak.
Gure etxondotik
gaur joan dira enarak.
Arbolapeetan
orbelak haizeak hara hona.
Urliarentzat
guztion txaloa ta esker ona
eskatu dituzu
idazlan oraintsukoan:
Esker ona,
lora bakana ...
horixe eskeiniz
betorkizu euskalduna.
Ta aldiaren neurririk
ez dan tokian
izan bedi zure
pozezko atsedena.

LAU HANKAKO OILARRA

(Koplak)

Aketeneko txakurra
maitetasunen lapurra
lotsabageak txit gaztetatik
uxatu eban bildurra.

Arranegian hasita
edozeinentzat bisita,
uri osoa txiki geratu
bere sena ikusita.

Lagungina zan benetan
ta ez ekian berbetan,
mosalduna ta mosalbakoa
bat arbola ondoetan.

Ez hesi eta ez muga
ezek ez eutsan ardura,
inguruetako baserriak
bere planean barrura.

Bide estuetan zehar
konpasik ez eben behar,
hain basetxeko txakurremeak
haren zain intziri negar.

Batzuetan ez-ikusi,
hurregoan zaunkaka hasi,
baserritarra akuluagaz
eta Aketa... ihesi.

Ibilteko modukoa
Narea-r¹ lau hankakoa,
dzartazo batzuk barruma arren
ez harek galdu gogoa.

Zokil, harri ta egurra,
bildurrik bako muturra,
sarritan aitatua izan da
Aketeneko txakurra.

Ahaztu jaku zein kolore
haren gorputzeko ule;
lumarik bako oilarra zala
zaharrek esan ohi dabe.

Arranegiko katuak
gabaz sorgin bihurtuak,
famarik bage hor itxi ditu
zaunkalari burutsuak.

Aketeneko txakurra
liberalaren agurra;
frantsesen *laissez faire* (eginda libre)
katedratiko maltzurra.

¹ Narea, Lekcitioko kale bat, Arranegikoa hain zuzen.

TXOMIN ABADE JAUNA (†1991-XI-3)¹

Ermua, Avilés, Lekeitio

Arimen eguna
eta biharamonean
hain zuzen domekan, Domingo,
utzi dozu bizien zeure lekua.
Oraintsu esan zenduan
zaharra zineala
herritarren artean irauteko,
eta gertu zengokezala
goierri txikiruntz joateko.

Ixilak jango ete ditu
basilika ederreko
arku finak?
Unada batez izan ditugu
organu ta bibolinak.
Musika jator,
musika barri,
Cavallé-Collen hodieta
zeure atzamar trebeak
buru-bihotzak eraginda
soinu sendo,
soinu bigunen
emoile emonkor.
Zapirainen *Txanton*
azkeneko koralean
jo izan deutzazu hainbeste lagumeri
urteak urte
agur haundia egitean.

¹ Txomin San Sebastian, lekeitiarra, organista (1903-1991).

Lumentxaren altzora zure gorpua,
—lurrezko ontzia—
zemendi hasieran,
eta basilikako arku finak
gorderik dituen soinuak
entzunezina dan durundia
egingo deutse lekeitiarrei.
Hor goi horretan
zagokez honezkero
Jaunagaz berbetan.

1991-XI-4

IKUSGURA ZOLIA

Haizea,
arean bere arnasea
eskatu eban behinola
olerkari jator batek,
itoko ez bazan.
Larriaren haundiz
lehioak edegi egiezan
bere ingurukoei
arren bai arren eskatuz.

Biziaren pendiz
biloz gordina
bere oinpean huts
susmatu ebalako.

Haizea!

Argiaren eskea
eginbarri dot nik ere,
ene begion leiho
medarren zehar
argiaren kliska
bizi dantzari
sar ahal izan dadin.

Ikustearen dohaia,
guztia beharreko dan deia,
inguru ta ingurukoen
ilun-distira izan dagidan.

Gau azkenbakoa
benetan bildurgarri dalako.
Iluna, haizerik ezaren pareko
bihurtzen da-ta.

Lerroen sailari
agur egin beharra
mingotsa dalako.

Ikusmena...
Izan be, zetarako begiak
besteen begiak ikusteko,
maite ditugunen begiak
ikusteko gauza ez badira?

Berrikustea dan eder!
ziztadan datoz barriro maizter
izpiak begi barruraino.
Betazalak edegi
ta zoriaren zori,
amaitu bide dira
gandu eta laino.

Arimako jai gozo,
barriraztua dan egumsenti,
jai pozkor eta ezti.

Jaunak baimena emon
eta gizonen trebetasunak
gandua
aldendua,
ebagi pitina,
agiri ez dana.

Hilabete luzeetan
basamortuko ibilaldi,
bakarti ta erdi geldu.

Maragallen behi itsua dot
arimearen hondarrean.
Harek halan iraun eban,

Ni neu,
Jaunaren errukiz,
argiaren ingurumarira
bihurtu naz maiatzean.

1991-V

MATXINGARRATZA

(De re ironica)

Gauzarik entzunenak
bertsoetan jarri,
horixe izango dot
aurtengo gurari.

Gugaitik hau ta hori
esaten dakie,
norbera ona beti,
ta auzoa gaizkide.

“Lekeitio-bedarra”
matxingarratzari¹
deritxoe batzuek
lotsa handi barik.

Horraitino, Derion
“Bakio-bedarra”
matxingarratz gorriak
izen bedegarra².

Jokorako kartetan
txanka bernutsari
lekeitiarra izena
deutsoe ezarri.

Itsasertzean gizon
edo mutilari
txo esaten deusagu
errez eta sarri.

¹ Matxingarratz: andra-bedar, matxin-bedar.

² Bedegarra: berezkoa.

Ta emakumeari
potxua esanaz
aspaldiko berbea
darabilgu geugaz.

Gugaitik baditue
esan guztiz putzak:
"Terra marique" ... *potes*,
norteko andaluzak.

Bakotxak berak dauko
berez ganorea,
halan be mundua
uda ikaste bidea.

Egarria ei dakar
itsasoak beti,
ume egarritsuak
datoz erbestetik.

Baserdi eta txetxu,
pitxar ta potoak ...
luna baltzak potorro³
ta karrabasoak⁴.

Hauxe da bertso-erdi
hamabigarrena,
zuzeneko bakea
doerik onena.

³ Potorro: ubarroi, karrabaso..

⁴ Karrabaso: potorro, ubarroi.

AMANDARRI

Leku hau guretzako pozgarri.
Egunero,
lotara orduko,
Talarantz
gure oinak ibiltari.

Egotaldia egiteko be
toki txairoa
eguraldi onean:
itsasoa aurrean, goietan zero zabala
ta lehorra oinpean.

Batzuetan olatu latz
edota azal ur kirinau;
hurrengoan bare,
lekeitiar arima urduria
aldakuntza zale.

Itsasoaren
kresal-usainak
mozkor-antza dakarsku,
eta arrantzale
ta itsasgizonen
egitada brauak gogoratu.

Joan dan aldiak
beti dauka misterio,
itsas bizi honeri
ezkutumina dario.

Mendien ertzean,
mutur-muturrean
geure Lekeitio,
eta hemen

edergarrien artean
Amandarri,
eguneroko gurari.

Aldamenean Lumentxa,
mendebaldean Otaio,
lur-bitarte honetan
ginean jaio.

“MUTXUNENENKO KABRIA”¹

San Pedro Handi,
San Pedro Txiki
ta San Pedro Baltza
lau gino izateko
bat bakarra falta.

Baltz hori Telmo dogu
Tortola kalean,
ixilik egon dana
aspaldi luzean.

Iretargia gorri
betea danean,
harro agertzen jaku
han Labaganean.

Harako denporetan
gosea ta hotza,
luzea izaten eban
neguak okotza.

Txixitxoko gogorak
eta junpetoia²
ha zan praka ta gona
luzeen sasoia.

Afaritarako, zer?
Arrain ta patata,
kabra bakarra hantxe,
katua miauka.

¹ Kabria: itsas kabra, kabrarroka.

² Junpetoi: negurako jake lodia, gizonezkoentzat.

Mutxuneneko kabria
errespetagarri,
ta etxeko guztiak
eskeini alkarri.

Patatak txandaka jan,
kabria han geldi,
gizarte baketsuan
diplomazi handi.

Baina... argia amata zan,
mahaira hogeia esku,
kabria nork jan eban
oindino ez dakigu.

Mutxuneneko kabria
pasadio txiki,
horrelako upinak
herrian ez gitxi.

Mutxuneneko kabriak
bertsoak merezi,
beranduago baino lehen
argi dot idatzi.

DON TIAORO¹

Don Teodoro Labiduria gomutan

Don Tiaoro lekeitiarra
abade eder galanta,
txiki denporan gu haren bildur
eskua prest eukan-eta.

Bere joera ta moduetan
ez genduan hain aparta;
lebatz freskua bere mahaian ta
czkatzekoan takarta².

Sasoi haretan etxeke hormetan
burdinazkoak txingetak³,
ta euretan sendo lotu gurarik
sartu astoen txikotak.

Prozesinoan ginoiazala
gu mutikoon eskuak
pasau ahala txingetak joaz
burdinearen soinuak.

Sarri askotan Don Tiaorok
Arranegiko kalean
astoak hormari lotuta
estropezuan eukazan.

¹ Gure herriko semea, 1936ko gerratean erbestera bialdua. Don Juan Eguskizak 1939an esan eustanez, Timoteoren doktrineaz txit zaletua.

² Takart: paneka, palanka.

³ Txinget: kisket.

Halan, sokatik askatu eta
astoa libre zanean
Don Tiaorok ostikadea
astoari iztarrean.

Asto-otzaratik jausten zirean
esne potuak lurrera,
Don Tiaoro gora begira
kalean zehar aurrera.

Sermoi bakarra egiten eban
domeketan goiz mezatan,
agiraka ta erremuskadak
ugari haren berbetan.

Berez hain dotorea izanik
beren ezegokitasunak
berbalekua emoten eban,
baina... hor konpon, esanak.

Harako goiz baten abadeak
sermoiginen ziharduan,
entzuleak erdi lotan eta
Don Tiaoro kulpituan.

“Arrantzaleak... arda, arda,
txalupetxe ta taberna
grina txar hori noiz kenduko da...”
Haxe zan bai galarrena!

Agure batek kulpitupetik
gehiago jasan ezinik,
goruntz begiratu eta esan,
barru-barrutik mindurik:

—Don Tiaoro jauna... hau zer da?
nik barrua hausi orduko,
hainbat arda ta hainbat taberna
kakota dot barrunako".
Marinelaren berba garratza
hain argiro entzun eban,
berba garratza gozatu nahirik
erroia estu praktetan.

.. .. .

Puro ederrik erreten eban
Don Paskualitoren kontura,
ta udan arratsaldean edan
Santa Luziako ura.

Gerrate⁴ ostean zigor bidez
erbestea Donostia,
onago izateko arduraz
amaitu eban bizia,
Timoteoren doktrina ona
artez eban ikasia⁵.

91-III-12

⁴ Gerra Zibila, 1936-39.

⁵ Timoteoren karteia irakurteko eta harezaz zelatzeko ardurea, Don Juan Eguskizari, 1939an neuk entzuna.

ANTXINAKO KOMERIANTEAK

Sasoi baten genduzan
noizean behinean
gabetan komeriak
plaza zabalean.
Tribu ilunetan
etortzen zirean
komeriante aldrak
artisten antzean.

Motzailak¹ be sarritan
ikusten genduzan,
matxangoa² eurakin
eta hartza dantzan,
pandero ta tronpeta
kale edo plazan,
patarien zikina
ikusgarria zan.

Tribuli³ eta zaldi,
txakur, ahuntz, akerr;
gizon, andra ta gazte,
umeteri eder;
baterik besterako
emigrante leber⁴,
bizimodu ekina,
ezelan be ez alper.

Turuta zolia ta
tanbor durundua,
horixe izaten eben
gau ta egun soinua,
zabalkunde bitartez
danak ulertua,
karburu argiagaz
plaza ingurua.

Komerianteak beti
azal baltzerana,
herria ikusgura
bihurtzen ebana;
soinuz bete kalea
ta kantabarrena⁵,
gabaz izango zala
jaialdi lerdena.

Plazearen erdian
korru biribila,
umeak arduratsu
jesarleku bila,
zurezko aulki luze
hazurren makila,
pilaretan be, asko
korrura begira.

¹ Motzaila: ijito.

² Matxango: tximino.

³ Tribuli, tilburi: lau gurpileko autoa, eta zaldi edo mando bi, komediante-
en eta motzailen etxe ibiltaria.

⁴ Leber: bizi, trebe.

⁵ Kantalbarren: kale-kantoi.

Lehenengo saioa
txakurren kontura,
txirriboletan zehar
kanpo ta barrura,
txakur baltz eta zuri
argal ta jangura,
hazurren orde z sarri
ituriko ura.

Tronpetea jo, eta
zeregin barria,
emakume jaseko
eta dantzaria,
satenezko soinekoz
distiragarria,
gizonezko gehienek
harengan begia.

Baina beranduegi
egin ez eitean
dirua batzen eben
ikusle artean,
hojalataz egina
han euken hestean
dirua sartzen jaken
tantaka antzean.

Tanborra be jo, eta
ahuntz adar okerra
eskila estuan
gora ta beheara;
adardunak horixe
lana ta galera,
tontorrean apatxak
lau-laurak batera.

Modako kupleten bat
kantagai alai,
arrantzaleek pozik
dinotse: "Ole, ya."
Txiste batzuk esanez
aurrerantza jai,
azkenengo arloa
arriskuz josia.

Azkenengoko horrek
badau bere zera:
"alanbre-ganekoa"
herri esakera;
masta puntakoaren
halako antzera,
baina behean ez urik,
bai harri lazbera.

"Alanbre-ganekoa"
egin bitartean
ikusleak ixilik,
arnas etenean;
tanborra makal-makal
burrin apalean,
artisteak be larri
aurrera bidean

Eta... "mañana, mejor"
esaten ekien,
azken diru-batzea
hutsa zan sarrien;
halan diru eskasa
sumaten baeben
"mañana, mejor" hori
hutsean geratzen.

Mux eta mux egiten
komerianteak
hazur bigunekoak
une ta gazteak,
eta euren antzera
gu eta besteak
hondartzan mux eta mux,
samara hesteak.

Hain urrun dagoz orain
antxinako erak,
terrala patrikaran
ta duban eukerak ...
Edurra hasten danean
triste hegaberak,
danok gura gendukez
bizitzan uberak.

ONDO BIZIKO GINEALA, TA...

Aberriaren izena
hainbeste bider esana,
zaharrak etxera, eta gazteek
ezin dabe lortu lana.

Zaharrak etxera bildu
lanbidea errez galdu,
barriketea ugari baina
bizimodua moteldu.

Jai egun eta bezperak
gastateko bai aukerak!
irabaztea ez da hain errez,
zaharrez beterik bazterrak.

Indarra jasan genduan,
danak ixilik orduan,
askatasuna utopia huts
izango al da munduan?

Askatasuna, askatasuna ...
ai, zenbat bidar entzuna,
bakotxak berak dauka neurria,
horixe auzi iluna.

Lapur handi eta txiki
alderdi guztietatik,
errebajaldi... salida ...
langile eta dendari.

Europa begi aurean
ona ta txarra nahastean,
itxaropena handia baina
taketa ate ostean.

Hor da IVaren mutura,
zikina dauka adurra,
ekarteko ez da aldasbeherarik,
eroan dagon apurra.

Munduan dogu tiraina,
polbora eta makina,
bakea ez da inun agiri,
sarri esaten da baina.

Aita itsasoak hausten,
uineak pastelak jaten,
ai, gure gurasoek ez eben
ikasi bizi izaten.

Hormona eta plastiko
abereen barrutiko ...
esne eta ardao kartoi-kutxetan,
zer ez dogu ikusiko?

Telebistan haragia
emakume agiria,
orain konturatu badogula
amak emonda jantzia.

Gerra usaina ugari,
gizona beti patari,
alkarri kalte egiteko prest,
agintearen egarri.

Minbizi eta infarto,
nun dira tremes ta arto?
ehun urtera heldu nahi eta
jan-edanetan ez planto.

Kirol, hegan eta footing
ez txalupatxu ta ez potin,
gero bihotzak grak-egin eta
alargunak negar-zotin.

Danak ondo bizi gura
—gure katua logura—
esku-beharririk nok egin ez, ta
esturaz atso ta agura.

Guzurak ate laburra,
ta askori ez ardura;
ondo biziko gineala, ta
horra ba, dana guzurra.

SEINA, JARRAIPENA

Abenduak badau bere kolkoan
beste hilabeteek ez dabena,
barri onaren jabe
aingeru ta artzain
dakarskuz gugana.

Munduak ez dau nahi
sinismen buztarririk,
baina Gabon jaietan jai dana
jai egin nahi dau,
jai, Seina jaio danean,
arean, neguko iluntasunean.

Itxaropenaren mendi santua
gizadiak besarkatzen dau,
azkenen galdu daikeana
horixe dauan ezkerero,
entzun eta ikusi,
barruko sua
zerbaiten eske dauka-ta.

Abenduaren talanta
gizonen bizigurea zirikatzeke.
Gizonak adimenean dau nahastea
ta ilunaren zazkarra;
baina gogoratu behar dau
biziaren jabe nagusia
Jauna dala,
biziaren ugazaba bakarra.

91-XII-25

MAKINA TXIKIAK

Zokondo baten aurkitu dot
baztertua egoana,
Filishave bizar-makina,
kobaltoaren tximist ikusezina
gorputzean sartzen eustenean
erabili izan nebana.

Osasunaren gura,
elektrizidadekoa
bizarra moztutea;
arpegian zehar
ez labaina ta ez atxur,
Filishaveren dardarea.

Inoiz estimadu izaniko
gauzatxuak ahaztutea,
hori be ez da
esker onaren senailea.

Geroago, egunen ta jazoeren
gurpilen azpian zapalduak
leze sakonak iruntsiten ditu
bere ilundura ilungarrian.

91-X

IHESI, ZETARAKO?

Lau horma
adiskide handi ditugula
begiko ditugu;
senitarteko antzera orain
lehengo itsasaldeko hondartzak
eta baso eta mendi.

Halan be, arimearen leihoa
edegiteko irrikitzen beti.
Zorion kopautxuaren eskari.

Egun barria gura
ta eguna errez dogu lauzkituten,
gorputza makal,
arean arimea makalago,
erlojuaren besotxuak
sarritan ikusten.

Lau horma lagun soil izatea
ez da gaurko kontua,
gurasoen modua
ihesi joan da,
aitita-amama ta gurasoak
eta umeak barruan?
aldaketa handiak ditu
oraingo munduan.

Pasako txori bihurtu da
gizartea,
ez aita, ez ama
ez umeak etxean
lau horma artean;
zaharrak eta indargak
kokolo antzean.

Ihesi doa gizartea,
etxetik ihesi;
begien aurrean dot baina

ezin dot ikasi.
Beroak ito,
hotzak kikildu,
zer gara gu?
Halan dabiz gauzak,
ez hanka ta ez buru.

91-IV

ARO EPELEAN

Abadeen moilan
udako iluntzean
lagun asko batzen da.

Harrizko jesarleku luzean
edo haruntz-honuntz ibiltari
autuan edo ixilik,
eguneko nekea
atseden-uneaz trukau nahirik.
Orain ez dago barbarinik.

Ontzi txikinak banaka datoz
herriko bandan;
barakatxak nagi dagoz
alemanari
ardurarik ez jakolako.

Hamaika hamaika ta erdiko
heltzen da urira,
eta hemen ibiltzen dira
bazterretara begira
nun zer ikusiko.

Bazter polit hau
—eta bertoko jentea—
gustaten bajake,
honuntz barrero etorriko.

Uragorak, urabeherak
harrituten dau lehortarra,
itsasondoko umeentzat
hain gauza zaharra.

Aremaiteko eta geroago
arimen kanpaiak entzun ostean
eguzkiak kuku egingo
Otaioaren beste aldean.

Aro epelean bai gozo,
moilan iluntzea!
bizikletarik ez dabil eta
sekulako bakea.

BAGOAZ, BAGOAZ

Alkondara idunak
harrabete sobra,
zahartzaro argalak
nigan dau aterpe.

Urteetan neukazan
mamin apur hareek
errez eroan dabez
lepoko urteak.

Zugatzen antzera
igartuten gara,
ta txakadan bihurtu
zulodun otzara.

Osasunak euskeraz
bai izen ederra,
zatituten hastean
hortxe da okerra.

Hazurrak dantzazale
bagenduzan arren,
orain ikasi dogu
geldirik egoten.

Ezer egin baino lehen
bularrean neke,
holakorik gaztetan
ez dau inok uste.

Munduko aldi hauxe
bakarra dogula
sarri entzun, ta ezin
sinistu sekula.

Argi da eguzkia
ta ezkutua ez,
zirrín-zarran gabiltza
ezjakintasunez.

Gaztetan udabarri,
geroago uda;
igarri be egin barik
bizia amaitu da.

HAIZE EPELA URIAN

Udeak agertu dau
bere musturra,
—mustur atseginbera—
espaloietan zehar doazan
emakume lirainen
jantzi zurietan.

Eguzkiaren beroak
irrits egiten dau
oihal arinen maldetan.

Zuhaitz berantiarrek
hori pixpilak ernerazo
adar guztietan.

Garia urre bila dabil
solo luze zabaletan,
maiatza amaitu dala
susmatu dauanean.

Andre gazteak hazurbarri dagoz,
gorputzak gizenduak,
amets-lorak loratuak
euren kolkoetan,
barruan dituen seinak
gizadiaren pozgarri
izan daitezcan.

Erakarpen jator
hurrengorik hurrengo
barriren barri dator
guraria,
eta preminea
ez da gerätzen hutscan.
Munduak segi
bere bidean.

1991ko maiatz azken

URARTE, UGARTE

San Nikolas hatxandia
pinu lerdenez jantzia,
Amandarri ta Karraspioren
artean dogun pitxia,
udako amestokia.

Ontzi biribil zaldia,
gane ta barru, harria;
leku horretan behar zaitugu
eguzki ta iretargia,
uretan zuk igeria.

Ibilteleku bakana
itsas-zurrunurru dana;
bakez betea zarean arren
inor ez dator zugana,
inor be ez bizilaguna.

Guztion auzoa izanik
hor bizi zara bakarrik,
gazteak eta ume azkarrak
noizik behinean hor dabiz,
ta gero, etxera barriz.

Hor dozu koba txikia,
hortxe Kaisparren zaldia
prailearen buru sendoa ta
zure surtzilo garbiak,
kresalak ondo igurtziak.

Umetatik maitagarri
San Nikolas isla hori,
barrakatzak auzoan daukazuz,

Aittitta Mokordo be bai,
guztiok gure amesgai.

Zeure taiu ta etxurea
begion poz emoilea,
uda ta negu gureztat dozu
urdin artean berdea,
umeen amesetea.

MASTA PUNTAKOA

Igaz igazkoa ta aurten aurtengoa
abadeen moilako maste puntakoa.

Marragazko kaltzerdi lodiak antzina,
hondarragaz batean ibilera fina.

Ez *mastearen zehar* ta bai mastan zehar,
horixe da jokoa, hori, lekeitiar.

Daukan koipea kendu masta lodiari,
apur-apurka ekin, eta itxi garbi.

Hondarra mazi mazi, kaltzerdi azpian,
oinak txirrist gehiago egin ez dagian.

Zapi zuria dago masta puntan tente,
haren bila gogotsu bata eta beste.

Bide estua dau-ta, gorakoa dan gatx,
harrapatzaile askok dzanga edo dzapart.

Tente joan behar da, tente mastan zehar,
hori da jasekoa, hori, lekeitiar.

Koipea kendu ahala gero ta gorago,
hondarra mazi mazi, oina sendoago.

Ta, halakoren baten nonor muturrera,
eskuagaz oratu, ta bota barrura.

“Itsasora jausi gure Kaltzapintto,
pozik geratu nintzan ez zanean itto.”

HIRU KOPLA

Lepokazurreko mina
ez da gozo ez arina,
hoba da txitximurkadaz bete
beso lodiko mamina.

Antzina bazan *expresa*,
balandren kontra ateza¹;
gizon ta emakumeek orain
aldean dauke estresa.

Serengaldean² okila,
ez zan txarra morokila,
ekologiaren izenean
hutsitu daigun barrila.

¹ Ateza: ikuspegi honetan kamioi *expresa* itsasoko karga-balandren lehiakide, kompetentzi eduan ipini euskuen 1920 urte inguruan.

² Serengalde: serenga, basetxe izena.

LIRIKOR MISTIKOR

I

Badira uneak
ezpanak berba egiteko barik
ixilik egoteko
gertuago ohi direanak.

Halakoetan
begiak kontu-kontari.
Erreza da berba egitea,
baina bere legeak ditu
eta preminak;
are, eraginak.

Izpirituaren gose-egarri
intzirizko iturrian
ase daiteke.
Halan ba, haragia
bego, bego, bego;
gogoaren izaeran
pisugarri baino ez dalako.

Ez jakin goiz bakotxean
edo iluntze bakotxean
hasten dan bihotxean
kantua,
igurtzi gura dauan
hazur bako eskua.

Ixilik dagoan abian
txoriak bapatean
txinta pirrinta,
Bihotzak bere kortinak
edegi
ta agur gozoa
igurtzi barriari.

Harmailetan gora igon,
harmailetan behera jatsi,
arimakideen izpiritu txingarra
santutasunean
pispildu ta iragazi.

II

Goibel dot gogoa,
zein ete da zioa?

Bakartadeak badau
alde onik;
baina ez bakar-minak.
Saihets artean
histura iluna,
ames samurren gomutaz
behaztun jat
egun epelen guna.

Haragi hauskorraz bereiz
izaten hasi zan
adiskidetasuna,
neguko lehenengo hotzak
antsiarrez ete dau zauritu
izpirituzko habia kutuna?

Ez dakit. Baina.
oinaze minsorrez
ene arimea gaur goizeon.

Abian nago egon,
uso alarguna,
kuma umezurtzik
izango ez dodana.

III

Abenduko iluntzea
ixilkiro heldu danean
hariaren bitartez
bizirik doan giza mintzoak
zalantzaz hots egin,
eta hari horren beste musturrean
txera biguna.

Diztiraz jantzi da iluna,
eta arimako leihoak
emonkor edegi dira.

Oraintxe,
berbearen doinuak
urdinez jantzi dau zerua.

Hitzen soinua,
eta itzarrik nago amesetan.

Taborretiko hondakina,
zorion egarri,
zerumina,
arimako sutegi garbian
soilki landua, betegina.

Zerualdean daitekena;
munduan, ezina.

ENARA AMESLARI

Aurtengo Madalena bezperan
enarak ikusi ditut
etxe inguruan hegan.

Enara ameslari
urrunduak aspaldi ...
Poz ixila emon deuste,
umeen arpegiak
berbatxu ta begiak
agertzaile diranean
halako pozaren kide.

Enaren hegadea,
umeen irribarrea
aintzat hartzen
ba ete dakigu?

Seme-alabengan
txiki diranean
hain guragarri jakuzala,
berbea ta begirakunea
samurtasunez betea
zegaitik geroago
zimeltzen ete da?

Hain latza ete da
gure arimea
urtetsuago
bihurtzen jakunean?

Enara hegazabal
zatoze barriro
zeuen auresku horreek
jatsi eta igo,
uda luze baten gozoa
izan daigun barriro.

91-VII-21

1992

ESPIRITUA ASKATASUN ESKE

Buru, bihotz, arima
dituan gizona
bat dala eta ez bi uste izanik
munduko lur ganean dabil.

Kanpoz, bat dau bere gorputza.
Bat horretan baditu
bere amairik bako burrukak;
argi ta iluna,
beratasun ta zitala,
danbadea ta ixila;
ekatxa ta barealdia dituan itsasoa
barruan dauka beti.

Barrutik erantzungo deutse
bere gorputzeko ez dira erasoei,
mundukoen zirikadei.
Gorputz bakar horrek
bakartadea eskatzen deutso;
baina bakartadea maiz samar
itogarri jako,
ta kalera doa, plazara, gizartera.

Komentua ta dantzalekua
ez dira kide, arerio baino.
Bihotzeko soloan sortzen dan
lora bakanari
maitetasun izen biguna
deutso ezarri.

Zer ete da maitetasuna
amurruz, suminez ta gorrotoz
gaiztobera bihurtzen dan munduan
gizonak bere burua
hain zurtz, hain deslai ikusteko?

Ez da errez aurkitzen maitakidea,
egunero jan beharrak
pareko egiten gizon ta aberea.
Jan beharra baino ez balitz ...

Nahi eta ezin, zadorraren¹ latza,
buru-bihotzean dauka errota baltza,
ta urun zuria, beti urrin.

92-I

¹ Zador: sekretu, isileko.

AMAMAREN ARGAZKIAK

Album txikiak amamak
mahai ganean daukaz zapatu iluntzean;
etxean bakarrik geratzean.

Argazkiz beterik dagozan
album ezbardinak,
azalez gorri, berde,
arre eta urdinak.

Lehenera begira egotea
atsegin jako,
urtean hainbat bidar
haren kirol eta joko.

Guraso, anai-arrebak;
senar, seme-alabak;
urteetan zeharreko irudi
harro edo apalak.

Orriak irauli ta irauli
urteen azterrenak ihesari,
norbera mundu txikian
gomuta zaharra egarri.

Sein, ume, gaztetxu, garatu;
argal, sendo edo morrosko;
batzuetan irribarretsu;
ta beste batzuetan betozko.

Pozak eta penak
argazkietan ez dira denak,
bihotzak bere izan gura,
ahaztu nahi iraganak.

Joanaldiko testigu ixil,
testigu mutu estimadu,
gomutea hautsez betetean
begian argia lagun dogu.

Mahai ganean albumen tontorra,
amama begira begira,
noizka malkoa ihesi
eta jausi
argazki erdi-erdira.

BEGIAK EDEGITEAN

Artzabal eta Karraspio
ta bitartean Labagana;
alde bateko ta beste bitsak
ez datoz alkarrengana.

Ur haunditan ere, sakonak
eta mendiak dira,
itsasoak sartu ditu
kresalaren azpira.

Cogorra da lurra,
gogoragoak hatxak;
urak ez daki zutunik egoten,
etzunera daukaz bere apatzak.

Itsasoa, etzunda egon arren,
ez da bere gogoko geldi egotea,
hogeta lau orduan bere txotixa
sei ordu ta piku goruntz,
beste hainbeste beheruntz.

Iretargia ta haizea
parranda lagun dituenean
irakiten ipinten dau bere barrua,
orduan zutunik dabil ura,
zutunik ekatxaren burua.

Erronda luze edo labur ostean
sukarra ibituten jako,
itsasoa aharrausika hasten da
eta geroago
bare-bare lo ta lo.

Badau, berriz, aparteko egonezina,
azalera agertu ez arren,
indartsua ohi den tiraina.

Zelai zabal urdina
gure jaioterriaren arreba egina.
Labaganan eta Amandarrin
bits zurien dantzamina.

RAFAEL USKOLA¹

Geure urian, geure bizitzan
izan genduan adiskide ona,
ule argi, buru zintzo,
bihotz oneko Rafael Uskola.

Lanbide zur-arotza,
adore arloan irudia euren menpe
sen zorrotz, esku trebe.

Soinuaz ere, zaletua zan,
eta halan
uriko musiko bandan
tarteko arduratsua.

Potin barrien izenak
zintzelez ezarten zituan
domeka goizetan Arropainen,
laugarren astileruan.

Noizbait sortu eben
gerra madarikatua,
eta zeharka, metrailaz,
hil euskuen Rafael,
artista ta artisaua.

Era askotako mingostasunaz
edaten dogu munduan,
barruan zauria
zertu jatan orduan.

¹ 1937an hil zan gudari hau, udabarri odoltsuan, Bilboko "El Sitio" zauri-
tuen etxean, Bidebarrieta kalean. Derion lurperatua.

EUSKAL BURDIA

J.M. Barandiaran, M. Lekuona, J.M. Arizmendi

Errez da esatea;
errezago hiltea.
 Gure burdiak kirrin-kirrin,
 ardatzean ete dau min?
 ez al dau orain arte
 nahikoa negarrik egin?
Gasteizko etxe handi baten
—orain berrogeta hamabost urte—
ostatu egoki:
lehenengo biak goiti,
hirugarrena ikasle kirmen¹.
 Mendian eder pagoa,
 herrian gizon zintzoa;
 hirurok ostu deutsoe
 Jaun onari abaroa.
Errekondoko kainaberetan
soinuz ta mintzoz ebilen haizea
ihesi ihesi ete doan
da susmoa.
 Ta bien bitartean
 bazter maite hau ixilak
 bildur izuz josi daroa.
 Gure burdi zaharrak
 kirrin-kirrin,
 malko bakoia dan
 negar zotin.
Errez da esatea;
errezago hiltea.

91ko abenduan

¹ Kirmen: leial.

NEURRIA

Neuria gizonaren preminea,
hor asmatu ditu ordua
ta egutegia.

Gizona arauaren morroi,
maite ditu langa ta hesia.
Ez da txoriaren antzean
askatasun jabe.

Antzinetako gizonentzat
gaua ta eguna,
argia ta iluna
neurri maila jakinak,
baina ezbardinak.

Egunak eta gauak
orain be badiraue,
baina hor dau eskumenean
aberats dan elektrizidade,
sinestu ezineko
ipurtargi, ilunpeko adore.

Gizonak ba ete daki
zer gura dauan?
Ba ete daki nor dan?
Jaun ta nagusi izan nahi
ta urteen bultzadek
darabile biribolan.
Bere tronua, azkenaren buruan
hurpean zuloa.

LAINOTZAN

Lehenari lotua dozu arimea
gizontxu horrek;
biharko eguzkiari dei egin arren,
atzoko iretargia dozu gomutan.
Egunero estu
praketan eta gonetan,
ohearen zabaltasunez dozu gurari
gorputza bilozik jarteko.

Gizartean leporaino sartua,
birloraz dozu itxaroten
etxeko bazterra,
ixiltasuna ta sua.

Burrukan estututen dozuz umeak,
limoia estututen dozun ainean,
asmo txit barririk
ez dabil errez aidean
eta danbadak jasan behar
gorputza jausten danean.

Lainoak ez dau esateko pixurik
urrun danean;
lainoaren ehun mehatza
edo izarraren diz-diz kukua
kasko barruan dituzu,
ausaz, sarriegi.

Beti askatasunaren galde,
gizontxu hori,
baina haziak ezarteko
zeure oldarra, adi.

Nahiz lo nahiz itzarririk
sari bai sari amesetan,
izan ere zeure egite luzeena
ezina dozu mundu honetan.

EGUNEROKO OGIA

Goizean
ez da orain
etxeko atea goizetik edegiten.
Txakurrik ez dago etxean,
eta aita ez dabil lanean;
irabazpide jakinik
ez dau, arean.

Ogipidea lorrindu da,
ez soilik negua dalako.
Gizaseme batzuek
patrikerak diru erionean ditue,
eta alboan,
urrunago hurrerago
txanponak urri dabiltz.

Bihotza daukan gizonaren kaltean
sortu ditu gizonak berak
buru, hanka ta besodun,
oporrik egiten ez dakienak,
ta ez eztarririk ta ez ukabilik
dabenak.

Hamaika gizarajo
eskale dira aberrian;
azkarrenak, txerpolari ... goian
garatze sasoiari.

Ai, zein errukarri
inork emoteko begira dagoana!

Kristok goratu ebana
txiroa
txiro da gaur ere,
ta ez jauna.

Arean, ozonoari eginiko kalteak
kaltea ekarriko deusku
guztiongana.

AMAIK BAKO EGONEZINEZ

Urruneko zorionaren bila
ez ete dabil gizona?
Eguneroko neke ta poza,
hartuemon eta bakea,
ez ete da zorion-bidea?

Gose, egarri, logura;
hotz, bero, bakartadea ...
gorputzeko mina osatzen;
atsekabea uxatuten
gizasemeek
zegaitik ez ahalegindu?
Baina, antza,
egingarri daitekena utopia bihurtu.

Etxeko epeltasun giroan
zorion apurra
ezereztat ete daukagu?
Munduan katu-amesak
zentzuna baino indartsuago.
Ezkonduteko gertuago,
maitetasuna lurperatu dogu.

Utopia, lapiko hutsa.
Himalayaraino joan behar ete da
norbere bizia galtzeko?

Ikusi, entzun, jakin ...
emazte eta senar aldatuak ...
—Video dinozu? video?
—Hoba guztientzat bakea,
jana ta lana balego.

1992-IV-21

MAITETASUNA EREITEN

Ez dogu oraindino ikasi
olerkariok
maitetasunaren hazia ereiten.

Lurra mokilez ganezka,
ez dogu aurretiaz, behar dan moduan
alperrarririk erabili.
Nun da preminazko dogun azaroa?

Otsoak otsorik ez ei dau jaten,
baina gizonak gizona bai.
Banaketak eta alderdiak egiten
mutilak gara luma bako hanka bikook.

Aldendute jasa siniskerea ez bada,
hizkuntzea ta etxauntzea asmoa da
banatzaile
herrien eta gizataldeen joanean.

Gizarte ibaiko ura
murgildu egiten da
txitean pitean,
abereck ez edan gurago dabela
iguinez muxin eginik.

Etxaguntzearen bazterra
ganoraz gobernetako
auzoen beharra preminazko.

Edari ezti-metxa baino sarriago
dogu mingotsa,
gure berbetan
urliaren okerra,
ezbeharra ta gatxa.

Penagarri bada ere,
ez dogu olerkariok
maitetasunaren hazia
arogan eta ilbeheran ercin.

ISUNTZAKO ALDAKUNTZAK

Itsasaldia ta eretia
bereizten ditu itsasertzekoak.
Urezko zelai handi urdin horrek
bai daukala bihotz sendoa!
Urabehera ta uragora
birritan egunero,
Isuntzako hondartzan
itsasoaren gorputza
igonez zabaltzen da
ta jatsiaz kuskurtzen,
hondartzea bilozik lagata.
Urteak kontatuten ez daki
Isuntzako hondartzeak,
ta ez da izutzen,
gizonok izutzen gareanez bestera.
Aldia dau agureak, eta atsoak,
arerio ezkutua;
arean bere, hortxe dauka
bere neskame hazurtsua,
sorbalдан dakar
kodain ugarrez loditua.
Ugarra gorabehera
kodaina ondo zorroztua.

MENDIRA BEGIRATU BAGE

Etxeko leihotik edo kaleko espaloitik
euskalduna
mendia ikusi guran beti;
mendiak eta basoak
gehienez ohi daberen berdea
begientzako guztiz atsegina.
Hainbatean itsasoaren urdina
ta edonon egonik ere, zeruarena.
Ahaztu egin gara
suaren gorritasunaz,
urre koloreaz.
Ikusten ez dogun berotasunez
egiten ditugu lapikokoak,
sartaineko txirtxirrak
eta txopetekoak.
Sua, maitagarri zan sutondoa
dirudunek dauke orain
euren etxebizitza apainetan.
Eta osin urdinak ditue
etxondoetan, igeri antzeko egiteko.
Doinu zaharraren oihartzuna
gure belarrira:
"baina orain kalean
bizi banaiz ere,
ez naiz bizi mendira
begiratu bage".

92-I

BIHOTZEAN OSINA

Lehen, berba luze-gozoak,
ezti-erionekoak;
orain berberditxu.
Neguko iparraizez gure gogoak.
Kopa berberetik, adurrik garbitzeke
edaten genduan maite-edaria;
gaur, ur ugariz garbitu beharra
kopa horren ezpana.
Ez dira gustagarri alkarren adurrak
Osina dago bihotzean aurki;
iturburu gardena geunkala
uste genduan, geure inorantzian.
Ta zorion-haizez genbiltzan
txoriak adarrrik adar lez,
txio ilunak barik txinta alaiak
jo guran, ahaleginez.
Osorik geunkan ames-jantziak
ipingei behar dau,
alperrekoa nunbait.
Alkar-joerea okertzean
erroi baltzak dabiltz hegan
susmo bihurritz
gure aldamenean.

OINEN GANEAN GABILTZAN ARTEAN

Ohean egunez egotea edo egonbeharra
ez jako guztiz atsegin gorputzari,
are ezago, gogoari.

Ondoezak harrapatzen gaituanean
kukulumutxu, indar barik
egoten gara ohean,
leiho sareko argitxuaren eske,
kaleko haizearen egarri,
gizartera barriro noiz joango
ete garean geure buruari galde.

Oinen ganean ibiltea
hiru hilabete seinaren lehenengo
ahalegina, bultzadea,
unero dogun jita ta joerca.

Joera bedeinkatua
biziaren agerpena dan ezkeru;
gaixoa, gatxa, makaltasuna
ta ermainua¹ ditu urtetako arerio.

Eta urteek eratzen dituen erletxak,
oztopo, traba ta eragozpenak ...

Enei ...!

Oinen ganean gabiltzan artean
kakoan esegi penak.

92-1

¹ Ermainu: elbarritasun.

TESTULARIA

Sutara botako ditut
ezetarako balio ez daben paperok;
lerroak lerro, gantzik daukenik
ez dirudi-ta.

Barriketa lar
onerakor edo egoki ez dan antzera,
alperreko letrak beioaz sutara.
Inkizino txuren bat
komeni da noizean behin.

Beharbada
bertsokada luzeen orde
testulariaren orratz zorrotza
zoliago, sarkorrago izan daiteke.

Egunerik egunera
gabiltz zarataka
—oiloak kakaraka—
eta doinurik ez dogu sortzen,
datuak zapaldurik gaukazala edo.

Ederra nahi, ta guzurrezko testua,
prosarik astunena darabilgula
sinestu gura ez-ta.

Barriketea gorua balitz ...
mandeuliaren jarduna
idazlerroak anakideegi direanean.

Testulariaren sen fina
noizbait behar,
eta gaur dot patxaraz goratzen
haren gatza ta pipermina.

BEDAR TXAR UGARIA

Inbiriak gizenduten dau
lagun hurkoaganako uxapena,
horra pekatu usaineko
joeretan errimeena.
Ederra izatea,
aginteduna edo ogasun oparokoa
inbiditsuak daukaz bere antenan.

Eliztorreko kanpaiak
ilunak dira batzuetan, pozgarriak jai bezperetan.
Ez da holakorik
ondamutsuaren zanetan.
Legar¹ lar darabil gaztaigintzakoan
ta ez dau gaztae gozorik lortuko.

Jende sunindu ta lapurra
gizarte nahastauan,
hobeak izateko asmorik
ez da inoren buruan.
Honetara ez dogu izango
tokirik zeruan.

92-I

¹ Legar: gatzagi.

GEROKO TOKIA

Takilea nun dago
harako txartela hartzeko?

ANAITASUNA, GURARI ALPER

Alkarrenganako lera bigunak
lotzen ei ditu zelanbait gizona
baina suminak jaten deuskuz
gibelak, euskal semeoi.
Buruetako argiak
ezbardinak direan ezkeru,
bihotzen oldarra ere
ez da bide bereko.

Sumina dogu gure barruko harra
laztanaren ordez deadarra,
esku-igurtzirik ez baina
ukabilaren indarra.

Zerk alkartzen ete ditu
euskal semeak orain?
Babel antzekoa dogu
gure barruan eta gure gain.

Arrotzak irrizuri egiten daki,
benetako etxekotasunik ez izaki;
nahizta gure erresuman bizi,
ez egoki, bai egoki.

Erresuma estu ta zabalegia
zeinek azaldu leike
beronen historia?

Ipuin ta ele zaharrak batzen
emon ditugu urteak;
horrelakoen axolik bage
bizi dira arrotzak
eta gure gazteak.
Susterrak eta mahats aihenak
urratu eta ebagi;
larra bihurtuko
ete dogu Euskal Herri?

TXORI MUTUAK

Atzo esan zeustana ukatu deustazu,
maitelagun.
Orri esmeraldak
orbel bihurtu gura ete dituzu?
Nundik nora doa
zure gogoaren haizea?
Lorrindurik dakust
atzo garbia zan errekea,
ta arrainik ez da agiri.
Leihoetan neguan gandua lez,
garden ziran zure begietan
amaraunak ilun antza dauka;
murgildu egin da
lehenagoko gure ames biribila.

Udabarriko txori bikotea
—amamaren esatea—
ez da gauza izango
habia abetaltzailea¹ egiteko.
Zotz, lasto, oroldi
hor dagokez emonkor
gure nahia birloratu baledi.

Baina auspeko txingarra
hautsa astinduteko ez da gai
gure tema zirtzilak
okerreko beroa gura daualako.

Begien dirdirak,
aho zuriko irri samurra
nora dira orain?

Aharrausika zakustaz,
ezpanak lehor,

¹ Abetaltzaila: abegitsu, txeratsu.

atzoko maitari hori.
Beste txoriren batek hegan
zure buruaren gain?

Hain saskela dan iguinak
zornez bete ditu
gure doebageko arimak.

Lore pinportatu ezina
ugerdo dagoaneko...

Zomorroak sartu dira, gosekil,
gure atzoko maitetasunera.
Agur, guzurrezko berba ta txera.

92-I

ITSASO HASARREAN ZANBULUKA

Utik, utik ...
besarkada samurraren ordez
erpeak zorrotz dakarrezan
gizonezko ta emeak.
Parkatu hitza basora eroan dabe,
ta kalean salakuntzeak ditu
bihorrak eta puntzetak;
begiruncari begiak atara deutsocz
ta itsu laga dabe, itsu.
Erre ta erre...
erreibindikazinoa da errege
arimea irendu dogunean.
Artazi zorrotzak darabilguz
eskuetan prest,
ahoko mihina ere artazi dogu
hartu-emonen ehuna brastadan ebagiteko.

Salakuntzea ta ukabila,
urun nahastauen morokila
janari zakar,
zamaurik bageko mahaiak,
aulki traketsak deslai.

Erpeak zauria egin nahi,
atzamar azpien biguna
zereginik barik geratu
eta gogortu egin da,
Zelan ez harritu?
Erpeak nagusi ...
Umeak ere
ez dira gurasoen zale:
aita kaskagogorra da,
ama sermolari,
eta goizetik gabera

hor doaz uneak
—ezjakin erreak—
etxetik ihesi.

Lilurea ta izatea
bardin ez dira;
gerogarrencan ausaz,
negar malkoak isuriko ditue
lotsaz hormara begira.

92-I

**OLGETAN ETA BENETAN
EGUN POZGARRI HONETAN**

Rufori ta Santari

I

Hamahiru iretargi bete ditu
bere kolkoan urteak,
ta luze-laburrak dira
egunak, gabak eta asteak.

Atzera begira ibiltea
ez ei da bape egoki,
hobe akulu sendoa hartu
ta "aida!" esan beti.

Baina baserrian behiak be
sindikatuan sartu dira,
eta hede ta buztarriak
ez jatorkez ondo bekokira.

Kortan nasai egon nahi dabe
ta zelaian ta motan pasia,
eta jan-truke eskeintzen dabe
euren errapeko esnia.

Gaztaina Gurringon txabolan
bazan hotz, gose ta demonino;
oraingo uneak eskuetan
palmera ta langostino.

Aspaldiko makilaua
angula bihurtu dabencan
petroliozko solomua
guk laster dogu ganean.

II

Etxea dan eder
umetan eta gero be!
Apartazale direan gazteak
noiz ikasiko ete dabe?

Senar-emazte jasekoak
jakituriaren jabe,
galtzaiak eta irabaziak
bakea hondatu bage.

Pozak eta penak
munduko pausu-harriak,
negu-ostean jaioten dira
urtero udabarriak.

Berrogeta hamar... berrogeta hamar...
bai dala errez esatea;
amore emoten ohitu ezker
ezin loteria hobea.

Seme-alabak eta lobak
inguruan direala
alkartasuna marea bizian
ta guztiok txalo ta tralarala.

Txaupanaren purrustilak
gaur lako egun berezien
urregorritzko tantak dira
zuen bion historian.

Ordu onean
Zorion!
etxeko bakean.

1992ko urtarrilaren 15ean

OSO, ALDE, ATAL

Arimearen atalak garandutea
ez da errez.

Horraio, gorputzak ere
bere alderdi ta atalak ditu,
bere egokitasunak.

Eder da arimearen izatea,
barrutiko haize
ta izpiritu arnasea.

Osasuna dogu, arean
gorputzaren eskea
ta guraria;
gure izatearen oinarria,
oraingo bizia.

Bideak ditu gorputzak:
haize, odol, egos;
eta ahalmen bereziak,
ikusi, entzun, usainartze,
ta ikutute.

Ta kanporako isuriak,
negar, izerdi,
bizi-hazi, odol zahar
ta ehotako emoiak.

Gose, egarri, logura,
min eta atsekabe;
lana, nekea ...
ta geldi egotea
kalte.

Gorputzak izpirituagaz
ikusiezina dan kate.

Horra gure izatea.

Baina oraingo lorraren ostean
edegiko jaku edegi
zorionaren atea.

POTIN ZAHARRA

Nire gorputza
potin zaharra baino ez da.

“Abran, kabrak;
Sagustanen, lentoiak ...:”

Potin honek ez dau behar
itsasaldirik ez katxoirik¹.
Nasa ondoan geldi-geldi.

Gileari lotuta
kili-kolo saiheitsak;
tirainak eragiten deutzaz
zurari kraskadak,
ez jakoz mesedegarri
beste potinen sakadak.

Potin zaharra baino ez da,
igar eta kolorga.

Gauren baten
ixil-ixilik hondora.

¹ Katxoi: katxopa, erlax.

GIZONEN ARTEAN GIZON

Job
adore haundiko
gizona,
gaur goizeon
natortzu
inbidiak jana.

Edonork
ez dau esan
zure antzean
gizonaren ezereza,
Jaunaren ahalmena.

Adorea
ihesi joan jat
azken urteotan,
astindu beharra dot;
astindu beharra, Job,
gozoan eta hazurretan.

Oraindino
etxekeok maite
nabe hemen,
zure behartsu eroa
ezagutu ez dodalako
lotsatu egiten naz
erostak joten.

Urteen lorratza,
osasun eskasa;
nekea
jagitean,
nekea
oheratzean,

egoera barri
ez da atsegingarri.

Hotz, bero ...
hor da arerio,
zelatean,
osasun apur hori
lorrinduteko prest.
ez ustean.

Etxe, ohe,
botika hartzen
egunero;
ni baino minduago
asko dala
badakit jakin,
baina gogoa
zirtzildua dago.

Burugin, modorro
auzokoaren nekeekin,
bihotza izurrez,
gogoa mizkin.

Job
adore
ta itxaropen jabe
izan zinean hori;
gaurko erosta hau
eskeintzen deusut
lotsatuten nazan arren.

Eta zure giroan
grazia

—distiratsu, gori—
izan dagidala
anaikiro eskatzen.

Arean
zure antzean
nik be noizbait
amaibako atzen.

POESIA EZAGUTU DOT

Berandu bada ere,
Poesia ezagutu dot.
Ez dau egunik, ez urterik;
ez gorputzik ez neurrik.

Bera bage,
lurgane hau negargarri.
Bera bage,
gizonak hutsunea dau
izpirituan.

Ordutsu izan ez naizen arren,
poz handia dot noizbait ere.

Poesia
inoiz ez da zahar,
gazte da betiro;
bilozik edo jantzita
hor dabil etxean
gizartean,
auzoan, kale gorrian
baina askoren inorantzian.

Sendoa dalako
ta halaber emea
ez da edonor haren zale;
pertsonea zirtzila, barriz,
arerio;
ta holakoari, onaren ordeztu
kutsua datorkio.

Harako Musak
Poesia baino
geroagoko dira;

halan uraz ta lehorraz
lehentarrago laino.

Poesia ...
unadetan matxino,
unadetan bare,
arimetako ekatxen garaile.
Gaur behazun,
bihar gozotasun,
biziminak hasarreari
agur eta agur.

Gizonaren osoa
ta zatia dala
olertiak bere uneak
euren jardueran
mota bereziko ditu:
barru-kanta soinuuzko erretena,
ta jazoaren azalpena
ta gizakume guztien
eztabada lerdena.

Ezagutu dot ezagutu
Poesia,
aspaldietan haren
bila ibili ondoren.
Eta lotsatuta nago,
ez dakit uneak
baino areago.

Ez da poesia
esate soila;
arimearen dardarea da,
putz eta haize ikusiezina;
batzuetan hizkeraz agertua,
baina ez beti neurtua.

Bizitzaldiko sua,
giroan dan oldar
eta izterbegia;
amore emote guragarria,
ta alkartasun ezitia:
gizadiaren errotarria.

Aufa!

Amaitzen ez dan arnasearen
kemena
ta agerpena,
menturaz ezagutu dodan
bizikaria,
Poesia.

LILUREA BETI DA LILI

Adimenaren leihoan
izan dodan lanbroa
urratu jatanean,
ilunabarrak barrero
dakarst ames-loa.

Ilunabar honetatik
gogoanago dot
goizero zure ahoan
edegiten dan
lorearen usain gozoa,
zure begiei darien
diztira naroa.

Ederra dozun
zeure bihotz horren
ertzeraino
eroan nozulako,
zure izpirituan
ezkutu egoana
zeure arimea biloizturik
erakutsi deustazunean.

Zeuretasun horren
girora nozulako
ta amesbide baketsuan
egin atsedan.

Gaurtik gorakoan
bedar joriz jantziko dan
zelai hezean
zazpi mila lora gorri
jaioko dira.

Barrero datorke
maitagarri
Euskal Herrira.

ARBILAGARA BIDEAN

(Erromantze erren)

Esfingetxua bada hor
Arbilagara bidean,
bost-sei bidar agertzen da
une laburrez urtean.
Une laburrez urtean
ta toki jakin batean,
egonezina sortzen da
auzoko lagun artean.

Esfingearen etxeak
amesen toki dirudi,
etxe hori non dagoan
ingurukoak badaki.
Leihoetako liliak
liluraz dagoz amesti,
liluragarria jake
Esfingetxu hori beti.

Esfingeak zazpi ate
bere arima garbian,
ateok edegitea
astiro doa zorian;
zoragarriagorik ez
gaueko iretargian,
zador barriren bat biloiz
hurrengo agerraldian?

Begi baltzak begi baltzak
ei dau hainbat misterio,
begi zidartsuari be
zador gurina dario,
askok mozkortu nahi leuke

gurin horixe merio,
alkar zoratuz lotzeko
akio eta akio¹.

Esfingetxu bakartiar,
zador ixilez inguru,
non ete dauka zinetan
zorionak iturburu?
herritarrak harantz-honantz
gaur inkes², bihar zizpuru,
leihoetako liliek
atseginaren aiduru.

Zoria helduten ei da
zaldi zurien ganean
ta afaria gertatu
iretargi izpipean;
izpirituen eztegu
haretx-mahai zabalean,
itxaropena bizi da
artean eta artean.

¹ Akio: ekin eta ekin.

² Inkesa: erosta, aiene.

OGIA URDINDU DA

Lanik eza,
irabazpiderik eza
gizasemeen bizkarrean,
ez da errez herria
bere jasean ibiltea.

Ogia urdindu egiten da
bere garaian jaten ez bada.

Lehenago, mendiak, ibaiak
eta itsasoa muga ta hesi,
orain asmoak eta ideiak
doaz erresumen gaintik.
Baita ezune¹
ta esturak ere.

Lanketa urdindua
ez da nahikoa.
Olagizonen oihua
kiribildu egin jat idunean
eta ito aginean
nago geldi;
ai, hain erregutua dogun
zorioneko teknologi.
Herriak beso gehiago dau
daukan lana baino;
gazteak lanerako sasoian
ganorarik bage,
ta urteak aurrera.
Diztira ordeztu laino.

¹ Ezune: ezaldi, mehetune.

Zaharrak ez daki
antze barririk ikasten;
bai, dakiana ahaztuten.

Gosea etor dadinean
guztiok hasiko
ete gara eskean?

Halan be, ez bedi
urdindu ogia.

GOIZAK ESATEN DEUST

Argi-zirrintak ixilik
goiz barria dakarst,
eta beste egun bat
dodala bizi izateko
goizak esaten deust.
Eta gogoeta egiteko.

Gauzen ertzak
marruztuten dira
 astiro,
gorputzak eta begiek
 badabe nagia,
ohea dogu sarri
gure lokarria.

Goiz guztiak
ez dira bardinak,
zetarako bezperako zotinak?

Goiz barriak
zuzpertuko dau
gure adorea
ta baztertuko
atzoko atsekabea.

Goizak esaten deust
egunerako ipuina,
gogoeta egitea
ta ingurua pozez betetea
gure zeregina.

OSTATUA

“Abarketak urratu, ta
zapatarik ez,
Bermeon geratu nintzan
oineko minez”

Egunez edegita
egoten dan kanposantuan
lur maminean
zuloa egiten dihardu
ehortzaileak,
palea ta atxura eskuan;
hobi estu luzea.

Zuloa egintzean dauala
beste gizon bat
ikusmiran albora.

Heldubarriak:

—Hauxe zure lana?

—Bai.

—Astegun buruzurian?

—Jaiegunetan be inoiz
neke bardina.

—Bai, ba; ostatu eske
datorrenari...

—... azken mesedea
ezin ukatu.

—Hoorixe!

Ixilunea.

—Zulogile, hemengoa al zara?

—Ez, ba; ez naz.

—Ni, barriz, bai.

—Ez zaitut inoiz begiztatu.

—Eee... kanpoetan ibili naz
urte ta urteetan aspaldian.
Ez dot ezer, ez seniderik urian.
Tabakoa bai, badaukat.
Erreten?...

—Baaai!

—Eutsi. Zigarrotxu bana edo
bina erreko dogu.

—Eskerrik asko. Biziro gustaten jat.

Zulogileak txiskerua zertu
eta gizon biek su ta ke
kanposantu ixilean.

Txakur urduria testigu mutu,
altzipresaren gerizpean,
kataia iduncan.

—Zulo eginbarri hau
norentzako dozu?

—Ez jakin. Esturaz itoka
ibili ez nadin, aurretiaz egin.
Zulo bi edo hiru astero
nahikoa izaten da. Ganerantzean
harrilobiak ugari hemen.

Gizonak, erre bitartean,
ixilik eta barriketan.

—Koroe eder ta lora asko kurtzioetan.

—Lorak eta lorak ekartea
ez da orain nekea.

—Ekarri, bai; eta gero?

—Zeregina gehitu:
lorak zimeldu ahalean, batu
aterpera eroan,
eta han, erre eta erre.

—Abadeak, arotzak,
lora-saltzaileak eta zulogilea
lan oporrik bage.

Zulogileak, irribarre.
Hiruna zigarrotxu erre ta sei hondakinak
zulo barruan sei puntu zuri.

—Agur, ba, zulogile. Hurrengo baten...

—Gura dozunean.

—Kaiser da nire izena.

—Agur... Kaiser.

.. ..

Egunsentian, albakoan kanpantorrean
ohiturazko bederatzi dangada.

Berehala

zazpi dangada banan-banan.

Gizonezkoa hil da gauean.

Zulogilearen hilbarri emon deutoenean
bekokia izurtu egin jako.

—Kaiser... zuloa... zeuretzako.

Iluntzean txakurrak arbolapean

intziri lastimosuak,

kanpai negartiak entzutean;

katabuta ikustean.

HEGALARI TXOLIN

Udako goiz dizdizari honetan
askatasunez panpina
mitxeleta arina
—hego biribil sorgina—
bira ta bira, horra ta hara
haizearen besoetan.

Haren soinekoek hainbat kolore,
hegalaria ete da, ala lore?

Ixilik haizea ta hegadea;
oin finak ortozik
loreari, zapaldutean
ez egin gura minik.

Harrituta jarri nau,
arnasea gelditzeraino
mitxeletea bapere zarata barik
dabilela susmatu dodanean;
Kosmos itzelaren ixiltasuna
hegoetan, oinetan.
Harrituta, sorgor.

Ixilaren oihartzun urrundua
sasién ganetik,
hodeien azpitik.

Oratu, ez oratu...
geldi esku hori,
soinekoa urratzea
odol zuria ixurtea da,
herio hobén izugarri.

Esku ankerrik ez;
utzi bizi izaten hego bigun
ames igurtzi dogun
zeruko hegalariari.

Zaratarik bako ume,
izpirituaren putz,
liluren geznari.

ROSALIA KONPOSTELAKO¹

Orain urteak Konpostelako parkean
ibili nintzanean
idatzi nebana aldendu egin jat,
Rosalia.

Herrikoseme bat
—kanpoan bizi ohi dana—
gureganatu eta
zure irudiaren aurrean
zeure bertsoak esan eta esan
jardun eban,
Rosalia.

Zure berbak haren ezpanetan
sua ta garra euken,
zukanako maitetasunaren
agerpen gordina,
Follas novas-en mamina,
herriaren eta zeure
atsekabe ta samina,
Rosalia.

Olertiaren senide haundi
unetarik kantalaria,
ederzale baizen zintzo
zure jardun osoa,
munduko egun ilunen
harri astuna orpoa
zure ume gizajoek,
Rosalia.

¹ Rosalía de Castro.

Ta zure burua
nekez ta lorrez beteriko
bizitzaldi estuan;
irakurri barri dot
norbaiten liburuan:
gaixo zitalak joa,
zeure hizkuntzea maite
eta Jaungoikoa,
Rosalia.

TIRAINIK TIRAIN

Egunero lotu,
egunero askatu
alkondarearen botoiak
unada motx edo luzeetan
lotu-askatu
mundukoan aberriak.

Gizataldeari bake urtetsuak
iguina emoten deutso,
eta hego-haizeak jota
bakearen ehun mehea
urratu egin nahi dau
lotsabaga jardunez;
agian, gauez eta egunez.

Horraitio, burrukea hasi
eta harik laster
gizonari narrua zimurtu
eta barriro, bakea nahi.

Artalde apala
artzain bila
ala artzainak
maltzurra ete dau
bere izen?

Alkondarearen botoiak
egunero higitzen.

Mamuek, ilunetan
sorgin-afari.
Tirain zaharren ondoren
tirain barri.

LEKEITION IKUSTEKOAK¹

(Collage)

Ni baino lehenagotik
Lumentxa barrenean
Uriarte bazterrean
dagozan etxe,
baratz, solo, kale...
Ederraren eskuak
hementxe jarri ditu
ni baino lehenagotik.

Bizkaiko jaun Tello
bazter honen zale zan.
Lekeitio zaharrena
alderdi honetan,
haren etxe ta jauregi
behekaldean,
hondartzatik hurrean.

Kanpillo baketsutik aparte
urduria dan itsasarte,
hor dot uriaren barrenerago.

Mendebaldeko tontorra
Otaio.

Zabalean itsasoa,
indartsu, bizi, egonezina,
nigana kresal ta oraldi usaina.

¹ Lekeitiori buruzko crakusketa bat egin zala-ta egindako olerkia.

Hemen harrizko torre sendoa,
honeri deutsola eleizea,
edertasunez betea;
inguruan magnolia galantak
eta marru-marruz olatuen kantak.

Izaroaren muturra ta Labagana,
bitzuoï urezko esku gaziak
igurtzi laztana.

Hantxe Kurlutxu harroa,
karatx trinkoa dau bere erroa.

Eta portua
nasa zahar eta barri
—ontziak ugari—
etxeen auzoko;
ta haruntzago Amandarri;
eta honegaz batean
plaza, lamera, parke ta Lumentxa
ikusteleku zoragarri.

Otaiopean
aspaldietako artadi,
oraintsuago mahasti;
ta azken aldean, barriz,
gau-argidun Antzoriz.

Itsasoak urdina,
hondartzak urre kolore,
mendietan berdamen.

Hurre-hurrean zaukadaz
Lumentxa lerden,
ene muino bakuna,
guztien artean kutuna.

GURARIEN LAINO ARTEAN

Aldiaren teilatu
zorrotz ganean ankarkulu
egon nago,
umetako bizipenak
dakarstaz gomuteak,
oraingo aldiko albistak
leiho dan telebistak.

Gorputza atsegin
barriren eske ez dago;
minik ez izatea,
arnasea zelan halan hartzea
gaurko lorkizunaren aro.

Umezaroa ta zahartzaroa
izpirituaren mahaikide,
ustekabe.

Mutiko nintzanean
mailuki gorrien bila
bedartxu berdeen orri artean,
ta madari heldu
ta mahatsik gozoena
aukeran nebazanean...

Haginak bardinduta gero
bizitzeak gurpil gogorra;
lorra, pena ta atsedena
bakartadean eta gizartean
murgil, halabeharrean.

Umetako barreak,
zahartzaroko ai enean!
Adorea, sarritan, erdi lo dago
eta itzarrik jarrierazotea
ez jat errez,
adorearen giltza

aldendu egiten jatalako.
Honeek bai ixileko kontuak!
norbere buruari edo hutsari
esateko modukoak.

Gomuteak dakarzan
jazoera mingotsen eta
gozoen oihartzunak
eta irudiak
hain urruneko,
hain ugariak!

Urte mordoaren tontorrean
akabuko egotaldi labur,
ta harik lasterrean
munduari, senideei,
gauzei ta aberriari...
agur.
Hauxe da amesetea
biloizik ipintea,
gure bidea ere
zaharragoen bide berbera
dalako;
gure irudimena ez da nahikoa
izatearen susterra,
koxkak
zeharo ezagutzeko.

Gizonaren zorakeria
haizea baino hutsagoa.

Horraitio, onez onean
irispidean
bada hor *spes unica*,
itxaropen trinko,
Aita geurea,
Jaungoiko.

MAMUAK ETA GIZONAK

Zein da gure lanketa?
Urruneko sakonean
noizean behin
gomutea astindu
eta egoera ta pertsonen
auzi-mauziak
ekarri dakarskuz,
begien aurrera.

Mutikoak gineanean
—uri hazitxu baten—
maisua eskolan zigor-ziria
palmeta makilatxua
erabilten eban,
lezinoa ez jakiteagaitik
edo olgetan ibilteagaitik
mutikoak eskua aidean
zabalik ipini behar
eta maisuak dzast!
goitik behera,
hasarrea musturrean,
palmeteagaz jo
mutilaren esku zuria.

Honeetarik batzuk
baeben esperientzia
eta aurretiaz
eskuak berakatzagaz igurtziak.

Eta eskolan gaztelcrea
ikasi genduan
euskaldun huts ginean
neska-mutikook.

Aldi haretan be,
behartsuak ugari zirean,
haundikiak gitxi.

Haundikien etxeetan
neskame bat edo bi,
eta giltzen jabea;
andra kozinari lodia,
eta mutil zaharren bat
morroe ta zaldizain.
Guztiok, gehien batean,
jan-truke.
Jan, lo, erdi jantzi:
diru apurra ihesi,
dendetan ikusten zan.
Umeok ez geunkan
dirurik eskuetan.

Guzurra dirudi
hirurogeta hamar urtean
egin dan aldakuntzea.

Teknologi alua edonun
baina gosea ta lanik eza
gizartean,
hein nabarmenean.
Aberatsak, multi-abarrak
igeri miloi ta biloien
olatu ganean.

GURASO ONGILEAK

Itsasoaren urdin zabalean
katxoi zuriak noizean behin dantzan,
eta olatu txikiak, uneen antzera,
jolas irribarretsuan hondartzan.

Liburu zaharretan idatzita dagoz
munduko gauza arruntak,
gure azalez kanpokoak.

Badira bihotzean
idatzi ez direan
sentimentuen azterrenak;
gure gurasoek jasan zituen
neke, lor eta penak,
ixilean gorde euskuezanak.

Joanak joan, bai.
Bizitzako une gordinak,
eguneroko preminak.
Eta gu beti ume,
beti ezjakinean
eta inorantzi zale,
gozotasunik bage.

Bai. Jasan izan ditue
senperrenak sarri,
unadarik latzenak
harrapatuak izan dira-ta;
gerrate aurretik, gerratean
eta ostean.

Penak, lorrak, minak,
eguneroko eginak
seme-alaben arrisku saminak...
baina eñrek beti ixilik.

Gu barriz, harrezkero
negarti huts goienbarren,
ogia ugaritxuago
izan dogun arren.

Beranduegi ikasi ete dogu
gurasoak maite izaten?
Gomutarik gozoenak
bihotzean
iraungo al dau
betikotasunean.

EZUSTEEN TURRUNTURRUNA

Gorputz-grafia goienengora heldu
eta odol-hodi direan
zain urdinak eskuganean;
horrelakorik ez geunkan
gazte ginanean.
Gazte... bizitzako ames bete!

Eguzkipean ezer barririk ez dala
esan ohi da;
horraitino, bakotxak berak
izaten dau aldaera
handi edo txiki, urteen joanean.

Lehen ikusten ez eban zerik asko
ikusten dau zaharrak
bere urteen tontoretik;
baina ez da gai, ez da inor
gauzen martxa bihurria
zuzendu ahal izateko.

Ezinaren jungudan
burdina hezigatxa landutea
ez da ahuntzaren gaberdiko eztula,
sua makal edo biziagi,
burdinean goriegi...
olagizonek eta errementariak
dakie horren barri.

Zain urdinei begira
egoten dira
bilobak konkortuta,
mahats-aihenak ditu aititak
eskuganeko koroe lez.

Eguzkipean
ez da gauza barririk. Ez.

HIZLAU HOTZA¹

(Flaubert)

Aita izan nahi, zertarako?
emazterik ez amoranterik ere
opa egiten ez jatzun eta, Flaubert?

Aketx egite orotan
haragiek dardara ta bero busti,
berba, xuxurla, mosu ta igurtzi.
Geroago, barrokoaren otsein,
zertarako maitetasunaz
hainbeste karta idatzi?

Haragiaren atseginez gain, Gustave,
beste bat zenduan:
Asmoa gurtu eta
sortzea biltzea;
lehenagoko idazle on batzuk
zure goitar eredu, azal eta barru.

Orpo bakanetan bakana,
Louise amorantea ere
idazlea zala
bion arteko maite-karta saila
osin aspergarrian ito.

Eriosuar, Ederraren bila
eta emoi belunak,
prosa sokila.

¹ Kartak hotzak dira maitasuna adierazteko. Ez da nahiko *Cartas íntimas* izatea.

Agian, ez da maitetasuna
kartetan esatekoa,
ez dau berotzen prosa hotzak
bihotzaren kolkoa.

ABAR ETA ABAR

Bizi naiz oraindino,
noiz arte ez jakin,
ustekabeak nauka
beti berarekin.
Gizaseme guztiok
ez gabiltza bardin,
noiz bedegarra dogu
bakotxak bidegin.

Egunen joanean
sendo edo meko,
gertu gagoz besteri
ziria sartzeko:
argiak gara danok
edozein besteko,
astindu ohi ditugu
goiko eta beheko.

Besteren ikusian
norbere gorputza
aintzakotzat daukagu
lerden edo motza,
argitasun kontuan
ez ezer arrotza,
normahik dau eretxia,
esku ta ahotsa.

Demos herria ei da,
krazia agintea,
guztiok ezin izan
nagusi hedea,
zoli samarra danak
egiten bidea,
ez da edonorentzat
garaitza lorea.

Bada gazte argirik
ta zahar tentelik
agintea eskuan
izan nahi dauanik,
gehiengoak sarritan
ez zio jakinik,
hauteskundez tximurtu
ta ez emon botorik.

Demokrazi burpila
gomak zulatuta
burdiak martxa ona
ez dauka lortuta,
artaburuen orde
ganeko maluta,
demokrazia zaharra
alperrik gomuta.

Jantzia ez da soilik
euskaldun agerpen,
txapela be oraintsu
azaldu da hemen,
basetxeak aspaldi
lurraren aldamen,
gure Herriak hitzagan
eratu bere izen.

Ezustea bizitzan
ezmez¹ leporaino,
demokrazi jokoak
argi eta laino,
buztarri keinua are
uzta ona baino,
ta horretan ni ere
bizi oraindino.

¹ Ezmez: ezbai, zalantza.

DOMUSANTURU

Galileo aurretik

Udazkenak
bere sein a egiteko modua
aurretiaz erakutsi dau;
sein hori, negua.
Edurrak hor dakar
bere mustur estua,
tontorretan lora faltsua,
eta orri azkenek
orbel izateko bildurra
kolkoan dabe,
dardar haragia.

Eguzkia gerria okertuta
zirrin zarran oinak astun
aldapan behera,
bere arpegia errekan
ikusi ahal izateko aukera
sarritan gogoratua
ihes egin hurren,
izerdi larria bekokian
hodei lodiakaz burruka bizian.

Txindorra nun da?
Esturaz hara ta horra,
etxetzat zulo bat nun idoroko.

Txorien herrian
amuru ta gorroto,
adorerik eza,
neguari hazur gogorra
erre gura leuskioe
lehenbailehen ezereztu dadin.

Negu agure hori
nork sortu daroa?
Udazkena, ez beti oparoa,

zintzil eta mirri
harrizko pendiz zorrotzean,
damuak ziki ta ziki.

Kopla zaharra leihotik kanpora
panparroikeriaz
basetxean
barre karkara zoroz:

“Domusanturu manturu,
txarri haundi bat hil dogu,
burua ez bestea jan dogu.”

Txintajotzaileen
arrena ta letania
haize epelaren igurtzia
eskatzen eskatzen;
osasun bedarrez hornidu gura
gerriko minez dan eguzkia.

OLENTZERO

Oles, oles, etxeakoak,
zabaldu gogo ta besoak,
hemen dator Olentzero
gure basoko Olerkaria,
begian txinparta,
ahoan irria.

Lehenaren oihartzuna,
arbasoen arnasa
eta gizonaren aurretiko,
ames haizearen auspo,
ta ez filosofo.

Sorgin-urunezko orea
sentimen janari,
zanetan ixuriko
soinu bakan zeurea.

Lilurak erneten dira
bedar artean,
ezkandak jaioten
zuhaitzean.

Olentzero...

Alai zatoz, alai
gazteen sorbaldan,
olde eta oldar
zeure izpirituan;
teilatuak baino gorago,
kanta eta barrea
herriaren barbaro.

Ordu onean, Olentzero,
neguko giltzaria,
baso zaharreko
Olerkaria.

ISUNTZA ERTZEAN¹

Amandarritik ez urrun Arropain,
hegoaldean mendi usain.
Bitartean, uriko etxeak
lagunez erdi beteak.

Arriskurako deia Amandarri,
begiak itsasoari;
Arropain, barriz, bazter zabala,
sasoian sasoiko leku epela.

Gaixoentzako etxe barria be
oraintsu egin dabe.
Ta Larrotegin eskolak gehitu,
baina umerik ugaritu?

“Terra marique potens” soinua
alborantz doian karramarrua?
gure uri hau
udarako uri lez hartzen bada,
lantegientzat kontu itzala.

Amandarri izan da iparra,
herriaren joera ta garra.
Baina oraingo aldi
gure gizonen kaltean
arrantzuan, ausartak dabiz
lotsa barik ekinean.

Arropain aldea, egote gozoko,
kai inguruagaz hainbestelako.

Amandarri itsas-jokoa
lekeitiarraren gogokoa,
kresala dau aspaldietakoa.

¹ Amandarri itsasoaren aurrez-aurre dagoan moila. Han dago kai-mustura.

HITZAK JOSTEN

Ustea zindo dauala
idazlea
—saihetsean kezkea—
une ta ezune
hitzak alkarri josteko
gertu;
ikasi, entzun, asmatu,
paper zurira
noraezean aldatu.

Jaio zan
ta bekokian daroa bere sena.
Liluraren bati atximurka
egin nahi, ta lilurea
mitxeletearen pare besterik ez,
hegotxuak mehearen mehez
suntsikor jakoz
hautsa ta kolorea galdu ahala.

Ardatza purrustilea danean
nun josi hitzak?
Purrustila huts horretan
ito egiten dira
mintzoaren mintzak.

Idazleak hor dihardu
egin eta berregin,
amaraunak bere sarea lez,
euliren bat edo beste
menperatu guran.

Idazlea
—goraipatua edo ezetsia—
jaio zan
eta ez deutso inori salduko
bere luma-zuzia.

AMAK BERE UMEA HIL¹

Horraino be heldu da
kosmos zabal handian
gizaseme modernoa:
amak bere barruan
daukan bizidunari
bizia kendu gura deutsala.

Arean bere,
piztiak eta abereak
egin nai ez dauana,
hazia hondatu,
ondorengoa ukatu.

Kuma epel kulunkariko
kanta samurak
isildu dira.
Ez umerik, ez kumarik
ez da behar.
Beioaz zabortegira.

Oraingo
ama ez-ama horreek
guraso maitatzaileak
izan ebezan.

Eta horregaitik dagoz
—ta atseginez egon be—
gizarteko munduan,
ez basamortuan.

Aita... ama...
esangura bagako hitz
bihurtuko ete ditu
gizaseme modernoak?

¹ Abortoaren kontrako neure protesta.

Eta bitartean
lorak eta lorak eroan
kanposantuetara.

Zetarako?

Izpiritua, lotsatuta,
izerdi larriz ta ikara,
trikuharriean
ezkutatu da.

BAI, NOSKI

Ez dau adinik bihotzak,
baina bai sentimenaren haria;
hari hori burura joanik
laster dator hitzaldia.

Ez dago inoiz zeharo lo,
andaparan dauka ur gertua,
errotarriek nagirik bage
lanaren dantza neurtua.

Biribila da bihotza,
berezia bere ardatza,
horixe ezagutu gurarik
gizonak jo ta ke dabiltza.

Bihotza gordeta dago,
begiak baino gordeago,
barrura sartu ahal izateko
urrezko zazpi giltz beharko.

Bihotza
bikotxa
ete dan galdetu?

Bihotz-laguna
atsegin jako
ageri edo sekretu.

ZORTZIKOEN ALDRARA¹

Mundura agertzetik
larogei urte
—arean, lau mila aste
eta gehiago—
joan dira,
joan jataz,
eta azterrenik ez dago.

Zer da urtea?
Zein, gizonaren ustea
ta ganorea?

Kilker baltza
udabarrian lez
—amaren seme barritsu—
kantari;
negu urrunari
goraintzi.

Beharko!
Negua, halabeharrez,
helduko dalako.

Larogei...
neurri-kordela
nahiko huts;
adinen arasan
pitxi zaharrek erluz².

Pitxi zaharra
guztia urre balitz
ez legoke malkorik.

¹ 80ko hamarkadan sartzea.

² Erluz: izpi, distira.

ZENBAT LO EGINDA?

Itaun hori
geuk be, egiten genduan,
urlia eguna noiz
helduko ete zan
jakin gura izaten genduanean.

Norbere eguna,
Erregenak,
norbaiten etorrera...
zenbat lo eginda?

Gure umeek
eta besteenak be,
galdera bardina.

Egutegia baino lehenago
gautegia dau umeak
kontagarri,
noiz zalantzazkoaren
erantzun argi.

Horrelako itaune garbiak
entzutean
ingurukoek barre-zantzoak
egiten zituen,
eta gu, aho zabalik;
umea beti ume.

Zantzo gozo hareek be,
nun dira?
Antxinako gomuteak
igurtzi bigunean garoaz
umetako zero txikira.

1993

AGUR, JAUNAK¹

Soinuz beteriko berbeta
erabili izan dau aspaldian
lekeitiar jatorrak,
eta ez jako hatxeko egiten
telebistako albistalari batzuen
mintza-tonu bakarra,
zerrearen zirrin-zarran antzekoa.

Badira bai, gure lurraldeetan
berbeta modu eder samurrak;
inori ezer kendu barik
hemengoen euskereak
bere izakeran dau
doinu ta durundi berezi,
kontari kantari.

Tokian tokiko, hor dira
hizkera atseginak,
baina inori ezer kendu barik
Arranegi inguruetako
berbeta honek
ez dau egiten palt,
ez dakar aharrausirik,
ez dau gogait eragiten.

Barriketa mamina da,
alkarrentzako soinu bizia,
gora ta behera

¹ Lekeitioko hizkerari egindakoa.

dzauan dzauan doan
esate modu arina,
musikaz egina;
hizkera gozo horrek dau
gure maitemina.

ZIPRIZTIN BUSTIAK

Egunero gara gose
ta gose izate hori
ez da bardina;
egunero egarri
baina, batez ere,
beti dogu zerbait barri
gure gogoaren eskari.

Zer gura dozu, Jauna?
zeren bila gabiltzan?
ura errekan beherantz doa
hor dau berezko jokia
baina ez da horrelakoa
gure gogoa;
itsasoaren ume gara, areago,
arbin eta urduri
goraldi ta beheraldi
etenbakoa gure istorio.

Lardaskaturiko
ohe tximurrean
bazkaritako mahai-azkenak.

Beste nunbaiten beharko
atsegin jakuzan
zorion zipriztinak.

EMAZTE ONA TA ETERNIDADEA¹

Munduko lor eta arazo
sasibideratzean
osterarik egiteko
inor ez gareanean
eternidade itsasertzean
igeri hasten gara,
indarririk ez, eta olaturik zehenak
birinbolan garabiltz.

Ene piano lehen soinutsua
tekla bakarreko bihurtu jat,
kantu iharra, amaiaren kantua
boligrafo musturrera.

Haizeen larrosa eder
zergaitik ez nire adiskide?
auzoko eta lagun
zerbitzari santu ditugu
gau eta egun.

Horrelakoxea emazte ona,
munduko zoriona
olerkari lekcitiar batek
esan eban lez.

Eternidadeko ateraino
helduko ete, nire
emazte onaren bitartez?

Ateak itxi itxiz doaz,
leiho txikerra nahikoa izango da
hegan egiteko, joateko.

“Ez inoren begik ikusi,
ez inoren belarririk entzun...”

Dana bakan, dana mirari.
Geroetan... beti betea
oraingo iretargi.

¹ Andreari egindako olerkia.

MAHATS MORDOA

Mahai ganean
mahats mordo ederra,
azal dizdizari,
jan-nagizuka.

Zeuk eta biok jango dogu,
maitea,
garaunik garaun.

Mahatsa,
ardaoaren ama.
Mordoa zapaldu ondoren
berez egosten da
amesetako giroan,
eta mama gozo bihurtzen.

Behiaren errapea,
basoko iturria
eta mahastia
ondasun estimagarriak.

“Ardao onak
giza bihotza poztuten”
latin-semeek
ahorandiz esaten eben.

Mahats mordo, maitea,
garaunik garaun
jango dogu
udazken epel honetan;
txindorrak, txarakan,
bere samina agertzen dau
bertso minberetan.

ATERKINIK EZ BADOZU

Bakotxa bere zoroak darabil,
esan eban auzokoak.
Aterkinik ez badozu
ez aldegin aterpetik.

Hamar hilabete dituan umeak
lau oinekoan dihardu;
zutundu nahi leuke, zutundu
eta ibili, bakarrik ibili.
Hamar hilabete
ta umearen adimenak kili-kili;
auzi-mauziak jasango ditu
aldean
urteen joanean.

Besapeak bizipenak bilduko;
maisutzakorik agertuko jako.

Norbere narruan ikasiko
egiaren guna,
on-gaitzen zeharretan
argia ta iluna.

Eukitsuak gero ere
jango dau mauta-mauta.
Behartsuaren sukaldean
azpiegiturarik ezaz
sua sarritan amata.

Aterkinik ez badozu
ez aldegin aterpetik;
zori onak errez
kuku egingo deutsu
zeure ameskerietarik.

KALEAK

Geldirik dagozan zerak
dira izan.

Egoteleku baino areago
pertsontzako bide.

Lehenago abereak ere
bazirean kaleetan,
zaldi eta asto.

Txakur lotu edo askatuak
eta beribil mordoak orain
bazter guztietan,
pertsanak ozta-oztan
espaloietan.

Kale bakotxak bere nortasuna dauka,
bardinak ez dira-ta;
estu, zabal, lau, aldapa,
hotz, ezo, ilun... eguzkitsu.
Gure urian be bada bai,
alborengo-kale deritxoena,
hotza dalako.
Gatxerdi laburra dana,
zeharkale estu hori.

Edozein kalek zerikusi handia dau
eguzkiagaz
eta gizasemeen garbitasunaz.

Kale nagusi eta goi mailako,
zabalenak dira gehienbat;
zeharkakoak, ahoalangoak, hainbat.

Kantoiak eta kantabarrenak
eta tokian tokiko
plaza handi edo txikar,
arboladun edo bageak.

Geldirik dagozan zerak
dira kaleak,
lurganearen eta gizasemeen umeak.

ABERRI GAZTE

Badira hainbeste
aberri gazte
oraingoan;
eta arean, gehiago izango,
gerokoan.
Aberri barri-barriak,
aberri barrirazuak
gizaseme-alabek atonduak,
batzuetan axola handiz,
besteetan albastroan.

Alkarpideen ahalmena,
albistarien kemena
nagusi dira
gizarteetan;
adinekook harrituta
geldo, sinistezinez
aldakuntzak ikustean
eta zoririk txarrena
gorrotoa, nekea,
odol-egarria
gizonen artean:
aldakuntzen emoi
negarrez betea.

Lanbarri jarri gura brastadan
sasi, ota, larra,
mozkor zuriz dagoan gizadiak.
Aldaer dagoan bidean ibilteak
burdia gainerazpiratzeko arriskua dau.
Maitagarri eta bildurgarri
aberri gazteak.

TRIKI-TRAKA

Tilburi¹ polit horretan
triki-traka datoz
ahizta bardinga bi;
tilburi polit horretan.

Bidertzeko lora ta bedarrak
usain eta kolore,
zaldi sendo nabar horrek
nekearen aurka, adore.

Ahizten izen bereziak
Atsegin eta Atsekabe,
tilburi berberean alkarregaz
ibili gura dabe.

Sagasti emonkorrean
helduriko sagar bi,
gaza eta garratz
bakotxak bere alderdi.

Tilburi horrek igaroko ditu
bide eta zubi,
urruneko erresuman
ames barriak ikusi.

Ibili ta ibili,
joan ta joan
ahiztatxu biak
tilburi horretan,
sasi-zerutik ez dabe sinisgarri
euren amesetan.

Triki-traka doaz
arrotzerriko lurretan.

¹ Tilburi, tribuli: zaldi-gurdia. Gurdia gurpil bigaz zaldiak eroanda.

ARIMAKO KILI-KILIA

Luzea edo laburra
gure jantzia,
horren jakitun
Ehule¹ Handia.

Ikutua,
ikusia,
jaioaren
gutizia.

Ezin ikusi dabe
gure begiok
ilunetan,
arimatxuan
noizik behinean
aldakuntzarik
ete dan.

Txandaka
lau aldeetarik
dabil haizea,
nor da haize-orratzaren
jabea?

Lapikotxoa laratzean,
barrukoa bolbolean,
egunean egunean
gose-egarria gorputzean.

Lurruna eta
usain gozoa
ihesle urduri,
eskuaren indarra
ez edozetan nagusi.
Guraina zelan nasaitu
kezkearen gerrikoa?
Bihotz esturaz jarten
etorten da ustebakoa.

“Andra Santa Ines
bart egin dot ames;
ona bada bion partez,
txarra bada, beioa artez.”

Luzea edo laburra
gure jantzia,
itzarrik dago beti
Ehule Handia.


¹ Ehule Handia: Jaungoikoa.

OLERTI-LAN LUZEAK



BEDOÑARAKO OSTO BIKOITZA

1959



I MAITEARI

Nun zeihar, Maitea, joan zara aguro
sagasti ta sarats-abarrak hautsirik?
Basobideetan zuhaitz galantenak
zaintzailerik gabe ta intziriz utzirik?
Belar horiek nola ez zaituzte atxi
hesi nahasi bat aurrean jarririk?

Erantzunik errez ez didate emaiten
Maitea iragaiten ikusi izakiek;
hor dagoz alperrik langok zuloetan.
Haizetan dardarez, zeruko txoriek
kantatzen dakite aukera danean.
Maitea galdetzen dute maitariek.

Goizeko lainoen bildurra haizatzen dit
are eguberdiak duan sapa bero;
arratseko haize ahulen hegadak
gantzu iduri dira musura ezkerro.
Maiteak eskaini gorena dit egin
belarri-ertzera mintzatuz maitero.

Nihaur nabilkio urratsak galdurik,
saihets-bideetan atzendua beti.
Niregan, hazia ernetzen daneko
larre ta zalgeak ohi dute ereti.
Iturri idortuan ihiek bezala
igar dut barrua; gogoa, abereki.

Zelai ta basoak txukuntzen dituan
Jabeak, nahi nik, beretzat har nezan.
Aileude agiri, mugarri zuriak,
ni ibil eremuko zidor-bazterretan.
Amarekin haurra gisa, bainengoke.
Haren magalean, laztan gozoetan.

Ez nuke geroztik lur gaineko ezeren
gutizirik, Haren minez erre ezkeru.
Hutsaren pareko diran grinena sua
itzaliko nuke, garretan unero
nengoke-ta, atsegin-giro xarmantean:
aho txurientzat zorion, zehero.

Orduan, berriro, sagastiek lore,
eztai-jantzi garden ta izurrik gabea.
Orduan, belarrek ta sarats xalok
itzalez beteko, basora bidea.
Maiteak ni ostu, eta nik Maitea,
huraxen bai ezta atsegin betea!

II OLERKARIARI

Gabezian zenduan, umezurtz, anima;
Maitearengandik txoil, arrotza bezala,
ta saindutasun batez beteriko zima¹
zenduan zeure baitan ta itxaro leiala.
Itzuri-gezi batek zauria behinola
ezarri zizun tinki: odolezko kima.

Bai lehio, bai atepak, etsai ta adiskide,
batean zenituan. Laket-garaietan
Maitearenganako auzo elkarbide.
Urrina isuriz geroz, gela zokoetan
bai maitaketa giro mamia, benetan!
Bakartade zale dan lerazko egite.

Urrentxindorrak antzo, jo zenduan kanta
zure udaberri motxak eskaini-epetan.
Mugara hel-beharra txit gordina zan ta
ez zuk gelditu nahi ostatu beltzean.
Jun-minak ohi duan hizkera apalean
zure igesmin-untziak urdurizko txanpa.

Izpi, lore ta kanta —Maitearen dohai—
ugari zenituan laztan-orduetan:
alai zaigu edonun izpiaren dirdai
ta doinuak emaiten; poza bihotzetan.
Loreen biltzar eder, gogoan, bet-betan
arkitu ondorean, hor zeunden zu deslai.

Atsekabe-oihuek dakarten anotsa²
hedatu ohi da inoiz, aidean barruna.
Atsegin bilakatzen bada min-aiotsa³,

¹ Zima:izakera.

² Anots, aranots: oihartzun.

³ Aiots: hasperen, crosta.

igurtzi gozo izanen zaigu oihartzuna.
Itzalean kukutzen danean eguna
arratsak haustuko du maitarien lotsa.

Odolik gabe jarri dan maite-zauria
gozatuko du izarren irripar emeak.
Bildu zenduan txeraz, bidazti-jantzia
ta oinetan gogortu abarka-hedeak.
Liluratzaillearen barneko haizeak
ernai jarri zinduan, sukarrez josia.

Hesi latzen aihena, urratu zenduan
ta aranbeltzeko itxola kúpida gabe utzi;
ez baitzenduan nahi, negar-eremuan
zure Maitearekin aldarteka bizi.
Eder-minez joana, ez zaitut ahantzi.
Euskaldunok poetak ditugu zeruan ...!

ZELAI BIZIA


Itsasoari

1964

ASMOA: Itsasoa kantatu, goratu;
itsasoari elesari egin.
Nola?
Batzuetan, neurtitz jatorretan,
lehengo erara.
Beste batzuetan, oraingo eduan,
bertso banatu, neurrigabe ta
askatuetan.

Atadian
Itsas ondoan
Itsas handian
Alkarrekin
Luze eta zabal
Neke-doinuak

Hartu-emanetan
Lilurazkoa
Maite-giro
Zortzikoa
Hurbil eta urrun



ATADIAN

HASIERA

Zure hasiera, Itsaso,
nai nuke jakin;
lehenengo ttantta
orain hondakin.

Itsaso borobil,
hasiera nunahi,
ta azken ertz
inun ere ez.

Izerdia
haragitik sortzen da;
urez baitugu gorputza.

Gure begion emaitza ere
ez da besterik
ura baizik.
Itsasoaren zati
tipiena halare.

Malko samina
—itsas uhina—
begion opari.

Lehenengo tantoa
ta hondakina
eguzkipean dirdari,
koloretan jantziak;
halatsu txirlarriak.

Itsasoaren muina
—ur, lurrina,
gure ametsen urina—
edonun nabari.

Hodeien ama,
ibaien inude,
iturrien bular.

Untzi guztiak ur-galde,
kanpoz ala barne.
Ur-tantoa hain da gure!

Euria,
Itsasoaren geznaria;
ta elurra,
ur-lurrinen
lilizko agurra.

Hoiien minez soro idor
ta lur gogor nabarra.

.. ..

Zure hasiera, Itsaso,
jakinik dut;
nire erkide ere
baitzaitut.

Hortik dut
itsas-mina.

Guregan izan eta halare
egarri beti,
ur-bila
noiz ta nunahi
gizon zirtzila.

Gizaseme ta alabengan
berdina
izerdi gazi ta
malko samina,
gezalezko uhina.

Hortik dut
itsasmina ...

HAMALAUKOA

Lurraren eremu zabalak eske,
egonera gogorrean iguinez;
legorrak, haizetan, bata ta beste
elkarri eskuak eman ezinez.

Haizea hutsa da, ta beti igeskorra;
dagoenik ere, ezin beti suna.
Horregatik alargun zan legorra,
Ez baitzuen noiznahi maite-urruma.

Haitz eta lurraren gogortasunak,
ta barnean sua, gainera!
Ahizpa gozo baten eske, lur-odol

izan zezakeana. Ta ur-tankera
sortu zuen Egilek bare-gogor:
Itsaso du izena, bai ederbera!

AGUR

Mugatua, mugarik izan gabe,
urdinezko zelai biguin,
begiotan dut zure kolorea,
zure azalaren ziguin¹.
Barruko lurretan nabilenetan
badut nik tristezia ilun.

Kaioak nahi nik ikusi,
hegoak zabal-zabalik ...

Aparrez apainduta jantziaren
hegal luze ta ibilkoiak,
arteaga-behar horrek daramazki
ene animaren lohiak;
egunsenti berriaren galdezka
atzoko barneko erraldoiak.

Kaioak nahi nik ikusi,
hegoak zabal-zabalik ...

Irakin-minezko zelai ordeka,
mila bideren eremu,
Eguzki-izpiak dituzu kolkoan
ta Ilargiaren maite-erregu;
urrezko ta zilar-argipean
maiteek laztanen eregu².

Kaioak nahi nik ikusi,
hegoak zabal-zabalik ...
hegoak zabal-zabalik ...

¹ Ziguin: malba, mamukio.

² Ereku: laztan.

ARRAINEN AMA

Bere gorputz trinkoaren zatiak
estaldu nahi dituenean Lurrak,
urdinez ta berdez mamitutako urez
nahi du jantzi, edota bilatu elurrak.

Mugakide samurra galdetzen du
ta horra hor nolako lagun eta auzo,
nagiak behinere menperatua
izan ez dan zoragarrizko itsaso.

Zabaldu bitza gizonak begiak:
neurriak alperrik diran zelaiak
ez gariz ta ez belarrez ta harriz,
eremu guztiak berdín garaiak.

Hegaztiak ez dute han zuhaitzik
baina badakite ur-azaleratzen,
hegaz orekan luzaro jardunik
emekiro ur-gainean etzintzen.

Sortu ohi ditu uneoro uhin alaiak;
aldizka, ordea, mendiak iduri,
beti erne ta geraka
—arrainen ama baita—
zelai bakan hortan
ura da nagusi.

Urezko eremu izarigabe
zuzaz da gizonen bildur, eta jita;
legorraren gogorak aspertzen,
ta orduan untziratzen dira,
dena utzita.

Haizeak laztanez harrotzen zaitu,
uhin garbi ta indartsuak astinduez;
eguzki ilargiak dira zure akuilu.
Harro zagoz, gizonak zoratuaz.

ITSAS ONDOAN

BARE

Urdinezko zelaien zorakortasuna!
ibai-urak maiteen itsaso urruna.

Han baitute igia ta biziaren danda,
uren biltzar nagusi Itsasoa baita.

Azalean dirdaiez eguzki-errainu,
ez dio gaur tirainak erakutsi zeinu.

Alokak¹ alai dabiltz dantzari ta ero,
itsas haundiak galtzen legorraren lerro.

Txirula entzungo da, agian haitzetan,
soinu eztiz betean, zipirri-zapetan.

Haizeak askatuko laminek ileak:
gerrizgoi emakume; arraineko beheak.

Atxiki-minez dagoz magurio², lapak;
haitzetako maizterrak, ez dira gerakak.

Islegietan irrits xirripak, itsasmin;
hondarra eta bitsa gezalak lagungin.

Maindire urdinen isil diran bitartean
itsas-doinua marruz inguru batean.

Goietan eder dira gauetan izarrak,
uhin bakoitzak baditu irrizko zilarrak.

Zantzak eta kaioak apaingarri bikain;
neguz, itsasoa latz; udaldean lirain.

¹ Aloka: alga, itsasbedar.

² Magurio: mangolino, kukurruku.

URDURIA

Itsasoa:
ahopeka eraso
behar dizut;
barnean zer duzu zuk
udako egunetan
—txorabio egoeretan—;
neguko gauetan
—gizaseme gazteen
mamarro uzu—
giro ta itxura latzetan;
udazkeneko eguberdietan,
—uhinak oporrez, urdina baretan—?

Egona ez da zure gihar,
ez zure mami, geldi nagia;
urduria duzu anima,
artega bihotza,
gerakak erraiak,
gerakak orobat
zure bular hanpatuko
bizidun xume ta larriak.

Ez da zuregan
lantzarraren idorrik
ez zelai larratz;
uhin besazabalak
zernahi dute laztantzen
ta hezoz igurzten.

Hegatsaz hornitu
arrain lirainak
igarian gailen,
uhinen azpi-gainak
haiek dituzte bezatzen.

Itsas kurruka,
etengabeko susmur,
ustelik ez duzu
inguruan mustur,
egonezina zure
animaren muina;
zurekin bat nazazu
artega ta geraka,
bizi-jariodun
itsastar uhina.

BESOAK ZABALIK

Egun joanen oiharzuna,
oroipen-berratzea,
haurzaroko marruen
durundua;
joanaren
eztiaren
gozo xehea.
Untziaren lagun zintzoa,
legorrena areagoa;
zer dute pozgarriagorik
mendi ahaltsuek
urrunetik ere
zu ikustea baizik?

Kolore aldakorrak izan arren
—berde, urdin, arre, nabar—
zenbait gei ta aberatsadar
dituzu gorderik zure barren.

Hodei txuri, beltz
dundu nahiz gorri,
eurien negarraldi
mingots ala aterri,
zure bular-bizkarretan
ez duzu aterraldi,
erraiak sendo dituzu
ta ernari.

Heriotza-zelai izan arren
bizidun lirainak
zuregan dute kabi;
kabi ta janari,
ta berein landarek
baratze jori,
betiereko bustimin.

Giza-nekeentzako ohe,
erromesak hor dute bide
bakan ta berezia,
zidor guztiak hastapen,
eri guztiak aldarria.

Arraun bi,
ohol bat,
oihal txuria zintzilik,
ez diguzu eskatzen besterik;
horra gure azta ta lorra,
ta zu,
begiak urdin elurkara,
besoak zabalik,
ezpainetan pozezko
ikara.

GALDERA

Maitearen altzoan
bezelatsu, zabal,
gertu zaude hartzeko, Itsaso bihozti;
legorretik erori
daiteken edozer,
landareki ta mehatz, abere, gizaki.

Gelditu ezineko
muga gogorretan
iges egin ondoren itzulian zatoz;
ipar ta hegoetan
izotzalde zera,
munduaren gerrian beroak ez zapotz.

Luza eta estutu
zindezke gogara,
legor zailak badizu inartzi kozkoilik,
zure hezur-mami horien
berexitasuna
ez du inork ezagutzen; ez zure sakonik.

Hasperen gozoetan
duzu zure beta,
gizonak entzun gura duten isil-soinu,
ametsetan itzarririk
begiok lilura;
inoiz jolas bihurritz, ziritzat apoinu.

Ezineko lur biguin
beti dardarati
ilobi zilo ordezeko, sabel ibilkoia;
ezin inola asmatu
gure une buztena,
mokilpean? uretan? gure hobi txoila.

Erraldoi izugarri
begi handiduna
gorriminik ez duzun odol urdineko;
dana indar, dana mantso,
herensuge bakan,
agian zu bai Ahaide nagusietako.

ITSAS HANDIAN

ABANT!

Lerrorik luzeena
itsasokoa,
erreten galdu orok
du norakoa.
Urrun berri nahi dut
—ni, Kantaurikoa—
anima katigu hau
askatzekoa.

Zibu eta zabun
joango gara
neurriak urratuz
biok batera;
haizea hegatzabal,
zabal gogoa.

Oihalak hedatu,
ta hasi arraun-joa.
Noraminez biluzi,
utzi zokoa.

Barnean dugu
ogi ta ardoa.
Untzikoak gutxi gera,
—ni ta goikoa—;
itsas frankoan ere
nolako biko!

Jo ta ke
joango gerade
untzi berde batean,
ametsezko oilaritean.

Itsaso-musa ederra
nahi nuke atzi besartean.

Handik eta hemendik
urдинen urdina ageri.
Zeruaren zati urtua
ote da itsaso borobildua?

Abant! urgainez
hegan eginez.

Eurien iturri,
lainoen kabi mehea
ote da zerua? ...
itsasoak ahalkez
izkutatu du burua.

Haizetako leze hutsak
ez dute mundik heldu.
Itsasoaren kolkoak
laztantzeko beti gertu.
Itsasoaren zelai luze, zabal, lodia
gure aurrean etzinik
untzien baratze, urdinez jantzia.

UNTZI BERRIETAN

Txaranbelik ez duzu behar
zure doinuak emateko;
oiharzuna isil duzu,
ta ozen, egun hasarretan,
areago gauetan.

Zurrunbiloaren kabi,
mundu borobilaren iturri,
legorraren ezobide,
dohakabeen adiskide.

Ez du inork agiri beharrik
zure aretoratzeko,
jantziak oztopo dira
zure laztanak hartzeko.

Zure gorputzean murgil eta
ez gehiago gogortasunik,
gizon bakoitza untzi gindezke
zure bularrean aratinik.

Atsegin handia duzu ematen
zurekin etzin ezkerero,
maite-igarian mozkor gindezke,
laztanez, garramuaz ero.

Untzi berrietan
joango gera berriro
zure arrain-andreen bila,
laminen landetan
atseginezko giro
ote danentz, ala ipui biribila.

ZORABIOZKO

Ipar-hegoetako ataletan
—halatsu ekalde guztietan—
egunsenti zoragarri,
begien liluragarri,
biziberritze ugaria.
Cogoen amets guraria
goizaren atadi bipilean,
asteak eta aroak
argidiri jorietan,
jaikitze sorginetan.

Poloetako gau luze
ortzargiz ta arkuz
zorabioz beteak,
sentimenaren eskuz
begi ta bihotzak ero
jartzen dituztenak.
Berein kolore dituzu
zeruetako ertzetan,
margo dirdirak zintzil
hurrinezko hodeietan,
ta are hodei-kutsurik
gabeko ortzietan.

Ekaitz-biltzaile diran
izpiritu bihurriak
urdinetan dituzte sartzen
beuren azkon alaiak.
Orduan, untziak
itsasoan bularrean
dardarez beteak
buru, sabel ta gerriak.

Zeru ederretan orduan
dundu beltza sortzen,
iratxo gaiztoak irriz
hodeietan arraun-jotzen,
ortots oineztuak
hutsetan barna dantzatzen.
Gizakiaren larru-azala
emekiro ximurtzen.

LAZTAN

Laztandu nahi zaitut,
besarkatu,
Itsaso suhar ta ailar,
baina hain zera handia!
Mamia zera oso,
eskeletu gabea,
heriotzaren gain duzu
lurra ernaltzeko bizia.

Mendiak gailurra bezela
sakona duzu zure zadorra,
mila ametsen gordetoki,
altxortegi aitorra.

Ezin dute gaindu begiak
zure neurriaren azkena,
zure bularren mamia,
zure garraren joera.

Arnasa gelditzen ez duzun
arrain-andreen amatzakoa
—laminen umeuntzia—
arrainen sehaska ta gaztelua,
amets gureen
ezoa ta hozkirria.

Goizez, eguberdiz,
arratsez ta gauzez
berdin ta berdinez
duzu zure jantzia:
zeruarekin duzu
senide lokarria,
zure bizkarrak badu aldapenik,
gaur bare, bihar bihurria.

Begi urdin,
inoiz berde,
nabar eta
baita arre ere.
Zilarrezkoak
gure kaian,
ilargiaren pare.

HAIZETAN

Haizeak inguruz uhina,
zadorrenean tiraina,
arrain igarilariak beuren
erresuma txit bikaina.

Aldi-alditan barea,
ta maiz, ordea, hasarrea;
legortar nagi askok ez daki
itsasoaren legea.

Sortu zinan hutsetatik,
eta urtu zinan bertatik;
giza gorputza besterik ote?
Ura alde guztietatik.

Ibai luzeen atsedean,
hodei danen ama lehen,
tximistak ere zuregan dute
paketsuetako azken.

Bost bider zera bustia,
bost mundu zati guztia,
itsasorik ez duen legorrak
maiz arpegia itsusia.

Dantza dantzari haizea,
igurtzi bizkar betea,
itsasoak bai lagunik asko:
zabalik baitu atea.

Hodei txuri ta hodei beltz,
ozkorrietan zuk amets.
Itsasoaren maitaria nor?
Nork entzungo dio baietz?

Ingurua haizetan, uhina;
zadorrenean tiraina;
arrain txairoen lur ta zerua
itsaso handi bikaina.

ICURTZIA

Bai dela gozo
zure ur gezalaren igurtzia
ene ontzipean.

Are ene haragian,
nire oinetan,
iztar ta bizkarrean,
bular ta gerrian.

Itsas-laminek
zorabiatu urdina;
zeruetako hodeien urina,
urdin-kolkoan biltzen dan
edari gazmina.

Bizkarreko aldetik dator
haizea emeki:
zabal itzazu, haize,
ehundazak belaki.

Bitsetan ditugu arkaitzak,
halatsu ibai ertzak.
Uhinak datoz
zeru jantzian,
begiak txuri
—apar garden, maite-eztai—
loreak belarrian.

Txirriak hegalaria
ikuspegiaren ukitu,
artistaren eskuak
ezarri ote ditu?

Egun beltzeko itsasbideak
galdu dira itsasandian;
atzo zikin sortzen ziran uberak
egun, horra garbimin,
bare ta deigarri;
atzeko untziak
badu hor pozgarri.

Zantzak eta antxetak
ortzi gardenean
orekan pakean,
inoizka uretan dituzte
bustialdiak
argizko eguberdian.
Hodei bakanak isil
ibilera nagiez
haizezko sapaian.

ARROTZAREN ESKUA

Musu luze,
begi, bero
ta nagi
egin diozu
legorrari.
Gau ta egun
musu berri
maitari lagun.

Ta amaigabeko
besarka
haitz sendo
bakartiari.
Jantzietan arin
eta astun,
dana urdinez,
txuriak hegalun.

Hegazti alaien
bazkari ozena
ta gizena:
kaioen batzarra
igeltsukara
—esneak gainez
goietara—
agiri da gorriaren gain,
arrain bildurtuen
biribilketa,
izurdeak azpitik
egin lanaren banaketa.

Itsasoak badu janaririk
arraintzat,
txorientzat.

Gizona, ordea,
arrain-lapurretan ari da,
amu ta sare;
mazia, atzipetzaile.

Itsaso musu-zaleak
nabari ohi du inoiz lapurra,
gizon zuhurra,
ezarian lan doilorretan.
Maiz uzten dio
paketan,
bihurrikerietan;
baina badu bere zigorra
hasarrealdi
ibi-ezinetan.

ALKARREKIN

BIDE OROKARRA

Untzi txiki ta handien
bide erosoan,
burni ala zurezko
dutenentz gilborra
ez duzu galdetzen;
jasankorra
zure ariurria
ta bizkarra.

Gurpilik gabeko gurdiak
zure erreten gabeko
bideetan zehar.
Hor dute bolatoki
zabal, ez medar.

Bidaburutzat
bide orokarra,
zidor ta bihurtirik
hortik ez da atera.

Hotz duzu betiere
erraietako garra,
inork ere ez daki
nun duzun zure indarra.

Ezpata bezela
zorrotza da
untzien bizkarrezurra,
baina zuk guztia
jasaiten gogara,
Itsaso amakoi,
bide orokarra.

NEURRIGABE

Neurria ezarteko
baimenak ukatu
dizkiguzu, Itsaso;
guk ezin eskatu.

Luzean luze zera
zabalean are,
gizabegiak motel
lausoak dirade.

Zure emasabelean
izari emea;
alperrik, ikusi nahi
zure sukaldea ...

Bekaitzak die jaten
gibela zenbaiti,
zure isilpekoetaz
hor dabiltz negarti.

Hodeiek ere ez dute
zuk duzun legerik:
goraka, beheraka
erne, tai gaberik.

Hasarre ta adiskide
zeran bitartean
gizonak onez dagoz
zure saihetsean.

Hasi eta murriztu
egiten zera zu,
egunez ala gauez,
uda eta negu.

Goizean gona luze,
arratsean labur,
aste batez horrela
hurrengoan itzul.

Beti duzu sabela
beterik, ordea;
edariz ta janariz
ez zaude gabea.

Larrazken ta udalenez
beti gorputz mardo,
neurri bakanetan zu
inor bezin harro.

Haizeari edonoiz
atea irikitzen,
batean zureganantz;
hurren, lur galdetzen.

Haizeari diozu
ematen baimena,
uhinak astindu ditzan
txit bere senere.

Neurriak ezarteko
baimenak ukatu
dizkiguzu, Itsaso;
guk ezin eskatu.

EZ DAKIT

Noizbaiteko portura beharrez
uraren gainez
—azaleko anpor,
kaioaren anaikide—,
ibili nabil ene gogara.

Urak narabil
handik honera beharbada.
Galdu ditut kartak,
atzen du izarrak.
Mugarri gabeko mugetan zehar,
uhinen kareletan eserita,
azken erasoaldiaz axolakabe
oinak tostartean nahasita.

Ez dakit
zergatik
esan dituzten
hainbeste
birao zuregatik.

Itsaso, oso ta hautsia,
ahalmeneko auzo,
ilobi beti irekia,
biderik zabalena,
askatasun abestia.

Lainoa duzu noizean behin
malko gozagarri bezela;
ene kaioak badoaz
haitz maratzaren gainera.

Atsedean beharra du
eguzkiaren zigorrez igesi,
zure urdinaren ederrak;
zure haizez jantzita
 zure putz-soinekoz
 gure bular
beti biluziak.

Gizonen begientzat
kutizia,
legortar jopuarentzat
zerbaiten guraria,
askatasun-ametsen
goiztar intziria.

EZO GOZOA

Lurraldetik lurralde,
gizarterik gizarte
daramazu
bero ta hozkirria,
bero bizigarri,
hozkirri atsegin
ta urduritasuna
danen gain.
Ipar-hegoetan arrainak
badute asperraldi ta iguina,
zelai izoztuak ere
itsas-ezpainen
bustiaren mina.
Orduan lehi zoldu hoi
uda-antsia,
berriro ikusi nahirik
zure urdinaren gazia.
Izotz-zelaiok agian
itsasoaren ezo gozoa dute
susterrean, erraietan,
lehi gogorraren azpian;
ez dute nahi arrainak
zure laztanak besterik,
ur-gunean dute atsegin,
igurtzi gozoez beterik.
Ene kaioak izutzen dituzunean
hor dijoaz bildur ikaraz,
kezka ta dardaraz,
ekaitz betozkoaren igesi;
baina bare usaina maiz dute amets,
sentipen isil bake-arnasez,
mundu-gerri udaminez.
Urdinaren begi alaiak
ikusi beharrez.

BEGI MUSKER

Begiak berde ditu gaur
itsaso biziak,
bihotz-barnera sartzen
dizkit maite-izpiak.
Menturazko ibileren
deiez nauka,
haragi-jai likinak
izanen ditugu.
Uhinak beti zanbulu
arrisku-leze gainean.

Eresi luze zunburrun
nagiak atereaz egun,
aparrezko irriak,
indar astinaldiak
ditu hezur ta gun.

Luzeen neurri estuak ditu,
zabalen esteri ausartak,
ez du inoiz sumatzen bildurrik
atzoko itsas bare,
gaurko ekaizdun ur uzuak.

Begiak zabal ta berde,
halatsu gorputz-jantzia;
hagin artean apar-lore,
urdin zorakor maitaria.

LUZE ETA ZABAL

JOPU ZORIONTSUAK

Egon geldia, egon ustelik
ez duzu ezagutzen,
itsaso urdingilea;
zure landarak,
zure goroldio, alokak eta
orobat itsasotak
urarekin dute dantzatzea.

Horma mehe ta hezur samur,
beti zaude zutik eta etzinik,
indar bereziak dituzu
zuregan bilduak,
goitik behera,
errotik gainera
trinko duzu gerria,
ez taket ez burnia,
lerdena ta azala,
halare sakontsu.
Isilik egoterik ez duzu,
alperreko amets huts;
karakola txairoak zure doinu hori
legorrean ere
ezin lezake utz.

Horma mamintsu hoietan
jopu zoriontsuak,
zure mendekoak,
zure magalekoak,
izaki arrai ta alaiak,
oinik gabeko ibiltaun sorginak.

Harrigarrizko asmoak
egosten dituzu
zure eltzean;
laminak sortzen dituzu
atseginen tori eta tati
ohi dutenak,
andre-arrain barruti,
ametsezko maitemin-kabi.

PAKEZKO AGUR

Azal gainean ditzira,
—eguzki-izpien laztana—
kixkurrik duzu ilea,
haize gozoek orraztua.
Izar beltzen azturua,
itsasoaren hasarretzaile
ontzitik kanpo igari
maite-doinuz sorgor
zazpi arrantzale.

Giza-bizitzen oparia
noizpehin zaizu atsegin;
opa-harria biguina da;
itsas-bizkarrak
ez orduan min.

Gizaseme zangarra
lepoaren bira duzu,
itsas-zorazarleen lokarri
itsas-lore duzu aparra
heriotzaren adiskide musua,
tantairik halare ez dizu jarri.

Nekeak badarakus bere arpegi,
gizonen bizi-eskari:
gizon arrantzale
ala untzi haundiko otsein.
Zelai urdinaren maite-festak
ankerrezko labeen erreak
sarrakio¹ afari;
arrainak orduan
trukegin ohi dute janari.

¹ Sarrakio: laborri, izu.

Hobi biguina eskintzen
isil, orogabe; emeki inoiz.
Hilarririk ez duzu
sabel gainean,
bainan hezurtegi eskerga
zure barnean.

Iluntze inguruan
eguzkia joatean,
alargunak eta zurtzak
min-uztarri batean
entzungo dituzte
—samin nekean nahaste—
zure marru luzeak,
Itsaso zahar gazte,
gorrotorik gabeak.

NEKE-DOINUA

ESKU-ERAKUTSIAK

Bale eder mamintsuak,
marrazo biribil,
marrazo enkil
bitzuok suharrak,
dituzu mende hezi,
anitz motetakoekin
nahas ta berezi.

Zingo handiko biztanle,
itsasalde bizardoetako jaun;
guztion ama milabegiko
urgazten dituzu gau ta egun.

Ezin bestean
hondar lokatzetan ere
badute arrain xumeak
beuren erresuma xehe.

Kuxkurrezko azala
zilarrez gaindua,
nakarezko orduan
muingarri duzu zerua.

Ozkorrietan zure gain kaioak
maite-mintzuraz dituzu;
orduan untziak oro
lasai, batere ez izu,
barneko larri ordez
poz-iturriak zabal, aizu.
Ta ekaitza,
hegalak bildua,
urrutiko zokoan
opildurik, koskortzu.

Izar-iduri diran piztiak
badira zure sabelean,
dirdiz dagite mila ezkatak
txirlarri eder antzean.
Usai berezirik gabe
lili ta landare
berde gorriak,
liluragarri, sorginbegiak,
oindun ala orridun;
odol-tanto, gezal bustian.

Zenbait ur-aldetan,
lurrin gozo jario,
anbar urre ta txuriak
aparrezko ohatzetan:
giza-pitxi, pipa taxak
aguren ezpainetan,
itsas-eskuerakutsi
ke jario kiribiletan.

ZILDAI URDINA

Gain eta barru
ure zilar-dirdiraz dituzu,
eguzkiak bialtzen dizkizu
errainu gozo beroak;
sakonean gorderik,
urezko hesietan bildurik
hondartza urretsuak,
eta gizonen altxor
neke-uzta izandakoak.

Mila izaroren zildai¹ urdina!
Haien oinak goizero, gauero,
gezal berrituez
dituzu ezotzen,
laztanez miazkatzen
etengabe ta maitero.

Anitz bero-erreinu eta
are izotzezko legorretan
atadiko morroe eta
jaun nagusi ere bazera,
biak batera.

Eguzki ta ilargi guztiak
laztandua, ederretsia,
leiarrezko hormetan dauzkazu
mila ta mila mendeko:
arrain handi, tipi
ta bien erdiko;
gizonei utziarazi
ondasun mordoak,
hezur, untzi-zati,

¹ Zildai: uztai, lepoko.

kutxa ta korapiloak,
mendez mende
berratuak
—ur gazian beratuak—
bainan beti
liluragarri
zure intziri
sorgin-irri.

Eta gizonen seme ta alabak
zure oilhaneko uretan
murgilduko dituzu
emeki-emeki
menden mendetan.

ZEMAI-ZIRIMOLA

Burnigabeko ezpataz
duzu gizona zauritzen.
Buru-begiak zororik
gogoak dituzu ostutzen.

Urrun-minaren sakona
—sakona zuk sabela—
untzirik ezin duenak
badu behinik behin batela.

Sare ta zalabardoak,
amuz betetako tretzak:
gizonen iskilu mordo
zorrotz, gogor eta artezak.

Zertarako du gerturik
iskilu tresna mordoa
gizon paketsu ta benak?
Gizona ez da zoroa.

Burrukazalea da inoiz
legorrearan ala uretan;
pakezalea, ordea,
hasarrezko ekaitzetan.

Urtza urdin uztargabe,
minen aringarri hauta,
arrainek noizbait oli dute
gizaragizko zauta¹!

¹ Zauta: oturuntza.

ZIGOR

Gosete heldu zan
zure sabelera,
indar gaiztoek
eman zizuten
edena edatera
ez zinan ausartzen,
baina ...
Orduan iriki zenduan
zure zauria,
zuri ostu-arrainen
ordezko saria.

Neurri zuzenena
—txirrien oreka iduri—
jarri zenduan
zintzilik biluzi
ezpata garbia ...
Taketen gainean
eraleendako
urkamendia.

Zigor!
Zigor!!
Zigor!!!

Hiru dei larri,
ta haien oiharzuna
barreatu zan
buru-belarri,
munduaren garri
ingurumari.
Mentura beltzeko
burduntzi.
Itsaso otzanak ere
bere mendekoentzat
begi, esku ta neurri.

Ta orduan iriki zenduan
sabeleko zauri zakarra.
Amorante lapurtuaren
hasarrezko suharra
mendekatzeko
baduzu beso azkarra.
Alperrik une latzean
untzi-lagunen negarra,
ai, Itsaso begiberdea,
giza-liluratzaila.

HASARREALDI

Haize jaunak ezin bildu ditu
bere kirioak,
egon-tokiaz aldatzeko
baditu ixtiloak.
Hotzetatik berotara,
berotatik hotzetara
zenbat joanetorri,
zenbat galera
eta inkimanka.

Eguzkiaren izpiak
—jotzaile berdingabea—
legorra ta itsasoa
beroz jotzen ez asper, ez neke,
Zurrunbilo lehendabizikoa
jostari dago atadian,
goiztar, bere anaien galdez,
oinetako berriak zertzen bezela,
ezinegon urdurian.

Beroaren hegaletan
Haize jauna harro;
gero ta beroago
alde batean,
eta bestean hotzago.

Jo du berehalaxe ortotsak
bere turuta latza,
ozen ta bildurgarri;
aidean diran iratxo guztiak
entzun bide dute hotsa,
ta hor daude kilikari.
Zurrunbilo berriak
lehenaren anaiak

biltzen ari dira atadian;
ikara-nahiean
zabaldi
nagusia;
goian ortziak
zapitzar goibela
erdibeharrez hautsi-hurren.
Eta Baretasuna, minez dago,
erbal ta okertua
bazter baten.

Haize jaunaren gudu-samalda
bipila
burruka-ingrestiz ari da;
kaieko untziak bildur-xamarrik,
ta itsasokoak, lauorrian.
Aldereren alde haizatu ditu
Haize jaunak oineztuak,
urrun aldetik bunburru-burrun
trumoi lehenak auspoak.

Labe gorria iriki dute
egutearen bero gori,
bildurgarrizko sargori hortaz
kaioak babes-eskari.
Ur-azalean uhinak bulartzen,
kixkurtzen beso bularrak,
tirainak ere lagun bezela
irauli ditu hondarrak.

Hodeiek dute preso iguzkia,
ostendu argizpi oro,
egun-orduak jokatu eta
gau beltzak ibazi dio.
Arrainak ere abaro dute
haitzen irrikietan;

opor gozoa egingo dute
Ekaitzak jo bitartean.

Bigarren aldiz ekina Haizeak;
hurbiltzenago trumoia;
oineztuak xirt!

tximista itzuli,
erreko da behe ta goia.
Irakinean ari da ura,
Itsaso-eltze betean,
arrainak parrez, untzi gaisoak
zanbuluka sumatzean.

Berriz ta berriz jo du turutak
—oihartzuna turutago—
tximista artean euri mamia,
inoizka kaxkabar gaizto.

Hasarre gorriz eroriko da
hodeien urin ezoa;
truxu, indriskak¹ jolas alaiian;
arre ta nabar itsasoa.

Itsas-gaineko larrain kixkurra
euri-igurtziez blei dago,
urrun zebilen Haize jaun latza
ekaitzez are jaunago.

Eraso gogor, ekin zitala
ortzi aldean heldua,
izugarriak dira itxurak
itsasgain den galdua.

¹ Indriska: zaparrada, euri-jasa.

Ene kaioak ostendu zuten
azkarki beuren burua,
gizasemeez dauden untziak...
zabalik itsas-ahoa.
Ileak lastu zaizkie laister
untzietako lagunei,
haize gogorrek uhinak dantzari;
gizona agian, opagei.

Iturri zabal dira hodeiak
euri ta txingor bialtzen;
untzi kolokak kaiaren galde.
Zaharrenak, errezatzen.
Astindu ditu bere nagiak
itsaso barezaleak,
luza ta zabal erauntsipean
biziki atergabeak.

Euri ta hodei eta itsas-ura
uriol dira bilakatu,
nahastua da larrain urdina,
dena бага ta olatu;
kai-herrietan negar ta axanpa²,
arren apalak goiratu ...
Andre Mariak gizon guztiak
egingo al ditu batu.

.. ..

Joan dijoaz harro ta goitar
oinaztarri ta tximistak;
durunduaren oiharrak ere
ematzen beuren lipiztak³.

² Axanpa: nahigabe, atsekabe.

³ Lipizta: ika-mika, ezbai.

Haize jaunari ibitu zaio
zuen hasarre gorria;
isiltzenago oihartzun hura,
baretzenago zelaia.
Nahastu ditu bere ur ederrak
itsasoak oraingoan.
Haize jaunari agindu dio
geldi dedila behingoan.

Arrotz zaizkion gauzetaz laister
ukitu zaigu itsasoa;
batzuk ondora, horiek ertzera,
banaketa txit zintzoa.

Irakinaldi ondoren geldi
urezkoa den larraina.
Isildu dira dunbotsak oro ...
berriz, pakea erregina.

HARTU-EMANETAN

AUZOKO

Hiru dituzu lagunak
lau gai-buruetakoak:
legor, gogor ta nagia,
haize sorgin ta zoroa
eta su garbitzailea,
hirukoteaz batean
zerorri laugarren
indartzailea.

Legorrak badu
zure beharra, premia,
zuk baitiozu egarria
ibitzen ta asetzen.

Nun jolastu,
nun atsegindu
uneoroko uhinetan
haizeak zuregan du;
hor dijoa traka-traka
zaldi gainean,
ugal sendoak
aparrezko dizdizetan.

Eta suak ere badu
zureganako gutarra,
hain da umezurtza
ta bakarra
zuregandik urrun.
Suak ezin du jasan
aldika, sarritan,
bere erraietako
goria eta egarri larria.

Nahi du betiere
bero-ondoko euria,
zigorraren jarraieko
intzaren bustia.
Guztiak dute, Itsaso,
—uraren ohatze ta guraso—
zure premia,
gurari bizia,
guztientzat baitzera
adiskide ta auzo
maitagarri.

GURARI

Ibaien azken,
atseden.
Eguzkiaren
diztirak
zuregan
bustitzerik
gozoen.
Birika
izugarri handiak
biltzen, hanpatzen;
bular-bizkarrak
noiznahi dardarazten.

Alperreko gurari;
gizonak ezin zuri
neurria ezarri.
Hurbil eta urrin
mugarriak galdumin.

Haragiak ezina du
ezpata laztantzea;
lurreko lezeek
ondamu dute
zure sakonaren
lezea.

Igiaren ederra
zure bihotz tauparian;
nire
amodioaren garra
astintzen duzu
ezarian.

Laztandu nahi
ta ezin laztandu
urteko
zenbait egumetan!
Urrunbeharrak
alargun nauka
zure musugabe,
legorretan.

ZURE ATALAK

Artizarrak jo du
lehendabiziko zeinua;
gauaren maindire iluna
aldiz aldi gure gain dijoa.
Ipar ta hegoetako atalak
bakoitza bere amets ta giroa.

Eremu hedatsuak
harroaren harroz hanpatuak,
gilbor gizen, putzez bete:
legor arteko ur handietan
beti zaude bigun ta eme;
zazpi mila seme
dituzu mundu barne,
itsasño tipi-politak,
kolko medar-sakonak,
ibaizabalen ahoak,
osin ta urmael,
ur egonak.

Zeruetako
hodeietan
dituzu
alabarik
ederrenak,
urdinezko,
esnezko
ta nakarezko
azalak,
begi.beltxeran,
musü txuri-gorriak.

Legorretik landa
zure urdinean
ala zero zabalean,
mundu nekatsutik
iges-grinez
urdin betean
murgildu nahiean,
zure alaben galde
nijoa, Itsaso,
untzi arin batean.

LILURAZKOA

LILURAZKOA

Azkar ta harro zijoan
nedukan potina
eta igaro nituen
lehenbiziko uhinak,
zorutzenago nerau
urrunera minak.

Haitzarteak utzi,
hondartzak atzendu,
mendi gailurrak iges,
nun dugu lurmendu?
Bildurrak ezin guri
ametsak aldentu.

Urdintzan galdu ginan
adu-laztanetan.
Buru gainetik, nare,
kaioak taldetan.
Aintzinean ura ta
ura gibelean,
bustizko jarioa
gure saihetsean.

Nire barne-zauria
urdin bilakatu,
azala urratu eta
dana minberatu.
Urdina du odola,
hezurrak halatsu,
itsasoak ordea,
hezurrik ba al du?

Odol, hezur ta mami
urdin-iturria,
gogo-ametsak nahi du
emazte joria.
Lilura-zidorretan
dardarez mamia,
lainozko aparretan
hasperen ezitia.

Nortzuk ote dabilta
uhinen hegaletan,
mozorro bihurriak
jolas zirinetan,
ala bizidun zerak
maite jokoetan?
Goroldiozko oheak
erditze-minetan.

Irudi zoragarri
biluz-biluziak,
ederrez sorturiko
munduko graziak.

Lausoa ala lilura,
amets-haizea,
Lamina-orubean?

Ez, bihotz, ez atertu
zure taupa xehea,
doinua gozo dabil
ezti ta emea,
uhin eskerga batetik

ingresti ta zeinu,
emakume bipilak
grinatsu den keinu.

Uretan sartuak;
urpetik jeikiak;
ur gainean jarriak
urdin-berde begiak,
bular harro jori,
eta adats ederpean
jainkosa haragia,
dardarez, bizia.

Lausoa ote zan?
grina-garramura¹?
Larrainik urdinenean
andredun lilura.

Bismin,
Izne
ta Urtxa,
hiru maitagarri.
Apar artean izan
zuten sortzekari.
Doniane goiz batez
loreak ernari,
itsas-liliak ere
bazuten emari.

Urdin, urdintza gizen
munduaren gerri,
ezoak betiere

atseden eskeini,
hozkirrizko mamia
gai orok ageri.
Txalupatik hurbil nik
hiru maitagarri.

Bismin, haragiz bete,
ama aitorra noski;
Izne-k ez dio uzten
izaten nagusi;
Urtxa begi txairoak
maite-ura egosi;
diruz ezin ditezke
andreok erosi.

Gerritik gorakoan
andre-tajupean,
arrain-gorputza dute
zilez barrenean;
atzi nahi izan nituen,
banan, ondorean.
Aingira nagia da
beraien aldean.

Bismin, Izne eta Urtxa
hiruko berria,
itsas-baratzean nik
noizbait ikusia.
Ene burmuina geroz
oso nahasia,
txertatu baitzidaten
maitemin-bizia.

¹ Garramura: bekaizkeria, gutizia.

MAITE-GIRO

EGARRI

Legor idorrak nahi du halako
oiharzun etengabea,
itsasoaren musika sailak
ematen dio berea.
Inoiz amairik ez duen doinu
isil ta marruz betea.

Belarriak txit zabal dituzte
hondartza, hegi eta haitzak;
soinu goiztarra, gau-soinua isila
atergabeko neurtitzak.
Ene bihotzak harantz honantza
dituen gudu bortitzak.

Ez dakit doinu luzakor hortan
bizia duten ipuinak
nola ta noiztik sortuak diran
—hala omen amets-minak—
baina betiro erakgarri
andere iduriko laminak.

Maitezko kate, kantu gautarra,
burrukagiro nahieza,
itsasoaren urak jun ta jin,
zorapenezko ametsa ...
Atseginezko *tori* ondoren
inoizka *tati* traketsa.

Legor idorren zirrikituak
uraren egarri dira;
itsasgabeko lurralde epelak
alargunen irudira.
Inork ez daki misterioa,
itsaso bildurgarria.

BERTSORIK ATSEGINENETAN

Lo gozoa, lo zorroa
irailaren hastapenetan.
Zure urak orduan opor
maitezko ezti-ilargietan.

Izarrak ondamuz
—ezpaita kizkurrik
orduan zure uretan—
eguzki urretsua
auzoago zaizkitzu ta,
zurekin ari da
ordu luzezko jai
atseginetan.

Harrotsu daude
zure aparrak
ur muturretan;
ta ernamin
ekaitz urduria
irail leheneko
egun esnecten.

Oliozko zabaldia da
untzien urdina,
zure bularra
ta zure bizkarra.
Elurrez beteak begi ta musua,
haize maitaria noratsu duzua?
Pakez, eme dagoz
uhin urduriak;
paketsu, mendiko
pagoa bezala,
unetik unerako
joan-etorria

biguina da, ta apala,
ta alai jolastia.

Baretasun osteko
arpegi errea,
ezpain makur diteke,
beltza eta arrea.

Zure kaltez ez dut nahi
ari bertsoetan,
bai urrena, bertsorik
atseginenetan.

ERROMANTZEA

Itsasoaren atalak
guztiak dute grazia,
bakoitzak dauka berezko
dohaien irri argia.
Itsasalde egonezinak,
urdinez gainez bularrak,
apar txuriak bai eder!
Halatsu hondar zabalak.
Harri borobilez inoiz
muga-lerroak koloka;
gaur ez dakust inguruan
ez arrain ta ez aloka.
Zeruko hodeiak banaka
haize-putzetan dardarez.
Nun dira sirena haiek?
Bat arkitzerik ez errez.
Uhin makal horiek dantzari
haitzarteko itsas-kolkoan,
Mediterraneo honek
mila ipui zahar gogoan.
Gatza du, gatza; ur-anaia,
urdina txuri jartzeko;
aparra du urdin-zelaiak
pitxi berdinek gabeko.
Untziek jolas ta grina
itsas bular-sabeletan;
maitaleak antzo dabiltz
maitcaren besoetan.
Nork dio eman urdina
zeruenaz areago?
Goitik jatsi ote zaio
ortzi-zapi iduritzeko?
Gizona munduko neurri
guztien neurtzaile azkar;
itsasoa heziko du
harriz, zurez, burniz ta abar.
Gizonaren eskuetan

tajututako untziak
igarian ari dira;
haizetan hala, txoriak.
Hasperen isila ari du
aldikako susmurretan,
itsas-atal eme honek
ez dihardu marruetan.
Inguruetako haitzak
beltzeran, txuri, horiak;
haitzak zail, gogorak dira,
ta hondar orde, harriak.
Urdin betezko hegian
itsasoa dugun eme!
Zerk damaio urdin hori,
eguzkik ala hodeiek?
Susmur horrek badu noski
marru iluna gau luzean.
Itsasoaren ipuina
gaitza, luze-laburrean.
Zerk damaio argi-xinta
itsaso nahastuari?
Egunez zilar txuria;
gauetz beltzeran, ilundi.
Txorakor zera, txorakor,
nerau naizen hainbatean;
uhinen inguruka urduri
nabil argizko goizean.
Inungo lurraldeak ez du
itsasoak duen amets;
kate ta lokarrietaz
aske uhin arinen gainez.
Itsaso, itsas maitea,
gizakien soinu-kanta,
barnean txertatzen duzu
ezinëgonen axanpa.
Axanpa hotz; su-axanpa ...
giroaren ariora;
gure hezurrok ondamuez
orain danetik gerora.

ZILAR ZILARTXO

Zure erakarpenaren
azku¹ eta indarra,
egunez zera sorgin,
gauean itzala;
zeruan ez da beti
izarren inorra,
zure galdez sarritan
negarrez legorra.

Gau ilunbeuetan
han hor argi-xirri,
itsas-frankuak gudu-
zelaia dirudi;
noiznahieko burrukan
betiro dira ari;
itsaso ta gizona
auzo ta gerlari.

Egun-senti bakoitzez
zedorri ikustean,
Itsaso maitagarri,
poza dut barnean;
urertzean jaiok
begien gainean
urdinaren gosea,
hurbil ta urrunean.

Eguzkiak damaizu
zilarraren giro;
ilargiak, ordea,
zilar urdinago;

gauez zure kolore
ezin dut idoro;
maitea ilunpetan da
besargarriago.

Badakigu milaka
dituzula atalak,
ugarte zoragarri
hotz, bero, epelak;
urak ez dira berdin,
ez berdin haizeak;
argitasun, hotz, bero
bakoitzak bereak.

Zenbat aldakuntza du
zure bular-gainak!
Hemen berde-itxuraz, ta
urruti, urdinak;
aparren gardenean
gatzaren kortinak,
hegaluneko girgil
xume, txanbelinak.

Eder zatzakit, irail
erdiko goiz hontan
—emaztegei prestua
aldare oinetan—;
gizonaren grina ta
jorana benetan;
legor ederrenak nahi
itsasoa bertan.

¹ Azku: indar, adore.

Untzi arin batean
zure magalera
heldua naiz ametsez
laztan ematera;
gizonaren aiskide
aspaldian zera,
mundubirako bide
zuregan aukera.

Janaria diguzu
oparo ematen,
osasun iturria
zaitugu hainbaten;
begiontzat pitxia,
pozkarri ta atsedeen,
euskaldunon bihotzak
dituzu zorutzen.

ARIN ARIN

Urdinaren gainean
txuria,
ene maiteñoaren
untzia;
txuria du soina, ta
hegala;
legorra ez inoiz hain
zabala.
Ninfa mamitsuak han
uretan,
haragia irriets bete
uhinetan;
itsasoak ez du
nortasun,
gizona ez bada
ontzidun.
Aparra duzu bitxi
ta lore,
poz eta nekeen
bil-ore;
muino ta gailurrak
mutuak,
zure susmurrak, orde,
neurtuak.

Maite zaitut nik,
itsaso,
gizon kementsuen
guraso;
cuskaldunak zu gabe
basoko,
mundubidea zera
gutzako.
Itsas-hegiak du
oraingoz
gizonen kutunketa
lehi gozoz;
haitzarte, hondartzetan
etxeak,
eta ugaltzenago
jendeak.
Ur-egarrizkoa den
suharra,
biziok itsasorantz
oldarra.
Eder zinan, ta zera,
Itsaso,
zoragarri-jokoen
eraso.

ZURE JAUNA

Zure uhinetan,
zure uhin ukigabeetan
nahi dut lokartu:
gorputzeko ugerrak,
animako pekatuen garrak
gozatuko dituzu.
Hemen
orain
larri
ta izu
daukagu ibilpidea,
itsas-urak
laster
leza
eten
pekatuen hedea.

Zergatik dira
gizonen burrukak,
zure eguneroko laztanak
ulertzeko
geldiunerik
ez badute aukeratzen
gizonen
gogo txaldanak?
Ibildaun sortu zinan,
ibildaun;
gizonak
belaunik belaun
ez dakite
oná aukeratzen,
ez egiarik ezagutzen.

Baina zuk, itsaso,
baduzu zure Nagusia,
zure guraso
eta Jaun ezin utzia,
Hark bai, ta ez gizonak,
jarri ohi dizu neurria.

Gizonak ez daki maiz
zure uhinak menderatzen.
Ai, ekaitz erreak
zilar-turuta
duenean jotzen,
katai-hotsak ere
bildurrak ditu hartzen.

BETIKOTZ

Ispilurik zabal eta ederreña,
zeru-zati hedatsuen azkena
ohi duzu betartean;
inguruetako argidunak
izar morroskoak eta izar kumak
dirdiz zure zilarrean.

Untzien
botaloi
lerdenak
antsiaz
zure kolkoan
beuren kuntza ikusteko;
jolas-txalupa
zuriak
panpoxa
dijoaz
zure gain,
zure laztanen besarteko.

Zilar-bitsa duzu
belarri-ertzean,
lore txairoaren
antzora,
izakiak oro zorarazteko;
atsegin-ohe
hortan
murgildu
dituzun
anitzek
betikotz
dizute eman
bihotz, beso ta lepo.

Dunduru zolirik ez iraungarri
zuhaitz ibiltarien oihan urduri
horren eremu luzean;
marru ozeuak urrumean oihar;
hurbil, uhinen txipli-txapla litxar
behin ta berriz jolasean ...

UR JAUREGI

Eguzki ala ilargi
kristalezko jauregi,
arrain-andreen ohatze,
lamina xarmanten kabi.
Jaioko dira, jaioko
zure uren ildoetan
hamaika ipuin zoragarri,
itsastarren kantuetan.

Ez du alogurik¹ zuregan
armiarma maratzak,
ez baitu adar gogorik
bere hari mehe haientzat.

Eremurik zabalena
arraunlarien zelai lerdena,
kozkaz jantzia,
non du azkena?
Erretenak mila,
egin-ahala joan ta bila!
Untzi guztiek ubera,
bapatez ezerezera.
Hezurrik gabeko hormetan
—harresirik ez saihetsetan—
ortzigoitiko suak
ala ilargiaren musuak
lilurak sortzen,
nunahi dituzte
leihoak arkitzen;
bazterretan mamuak,
arrain, belar?

¹ Alogu: ostatu, egokiera.

Ez daki maiz gizon izuak.
Barruko arrain kolore,
goietako hegazti,
izar, azalean dotore
ispilu ditzira jabe.

Jauregi kristalezkoan
izpiak laket sarrera;
halare ez dira bustitzen;
zadorra, ordea ilunetan,
izpirik gabe altxorra,
ur-jauregiaren ziega.

Kristalezko jauregian
ederren, goieneko gelak.
Arrain andreak atzeman
ta haiekin murgildu beharrea
jaso ditzagun untzira:
untzietan baititugu
maindire biguin, ohe epelak.

ZORTZIKOA

ZORTZIKOA

Mila bideren erro, mahairik zabalena,
erretenak hasteko untziek kirtena,
sudur zorrotzak dute astintzen aurrena.
Uhinak gainezkatzean utz dezagun pena.

Arrainen etxe bizi hormarik gabea,
sartu-irtenetarako zabalik atea;
begion edergarri zure egun barea;
bihotzen izutzaile, zure hasarrea.

Hainbeste gizalditan zure bular-gaina
milaka gizasemek maite legorra aina;
lilura betetzeko duzu zer bikaina,
halaere zuk kutunen seme den Arraina.

Mila ispilu dituzu zure bizkarrean,
dirdizari dauzkazu eguzki denean;
zeruko izar guztiak urrun samarrean,
txori beltz ta txuriak zure eskumenean.

Txola beterik duzu guri eskeintzeko,
lur berri batzun bila gera joateko;
masta goran mutila oihu egiteko.
Legorrean zail gara; zure mende, meko.

Bitsak jario samur uginen ahotik
—hala gure malkoak begi ertzetatik—;
poza izan ohi dugu itsaso ikustetik;
betozkoa maizegi, itsaso gaberik.

Hondamenditzat inoiz zure kolko mana,
errespetorik gabe dijoaz zugana,
lapurretako asmoz mazia emana;
hasarretzen bazera, orduan guk lana!

Zure sakonak beti dauka misterio,
gizasemeak galtzen dituan zoraio¹.
Ikusterrean nahi guk zantza eta kaio;
txirriak agertzean, udari ario!

¹ Zoraio: zoro, ero.

HURBIL ETA URRUN

TXALUPA HONTAN

Neurtitz berri sorta hontan,
Itsaso, zaitut kantagei,
amets-oharik gorena,
zugandik dut txera ta adei.
Sukarrez nabil landetan
—urin haundiko uztardun—;
urdin-minak geisotzen nau,
uhinik ez dakust nik inun.
Mendi ta zelaien egon
beti berdintsu-samarra,
gainez zerbait aldaketa;
berdin, nagi, barru-garra.

Axanpa nahi dut, axanpa,
Itsaso, zuk daukazuna.
Barea dan aspergarri!
Barea, bake aizuna.
Txirularik ez dut entzun
aspaldi luze-luzean;
laminak hortxe dabilta
uhin urdin horien gainean.
Marrua, ordea, noiznahi
dantzut, urrutian ere;
karakola txairo batek
ematen dit ozen bete.

Eresi atergabe
txirrien doinu pozgarri,
amets urdinaren minez
uztarria dut atzerri.
Zure kostan naiz jaioa
—sehaska zilarrezkoan—,

apar txuriak goiburu,
berde-urdina inguruan.
Zure koloreaz zurtzik
bideak bide egin ditut,
zeruko izarraren galde
zurbilik arkitu zaitut.

Kolore, doinu, gorputza,
mami, argi ta eresi...
Inungo maiteenetan
zu zaitut beti berexi.
Bizi-emaile naroa,
lilura handien iturri,
txalupa koiskor hontan nik
laztanduko zure gerri.

KANTU NAGUSIA

Osin nagusia, iturrien ama,
zaldiak bezala bizkarrean zama;
maitemin zaharrak zuganantz narama.

Hain zera barnakor, erakartzailea;
unero baituzu musu aldatzea,
uhinak zahar-berri, zadorrez betea.

Deiez ari zera, deiez gizonari,
betarte urdinen hitz atzipegarri;
uhinen marruak bai oihu ameslari.

Koxka baten bizkar dijoaz mezuak,
amodio-garren mosu laztantsuak;
itsasoaganantz gizonak itsuak.

Zanbulu-ohean etzinik gorputzak
grinazko minetan amodio hutsak,
lerazko besoak hego-haize putzak.

Gailurrerantz bultza gaituzu, itsaso;
burruka berriak oldarrez eraso,
zureak gaituzu, zeu gure guraso.

Osin nagusia, iturrien ama,
begiok ez inoiz nazka zuregana;
nekatuak zaitu pakezko harana.

Inoizka zuk ere malko samin latzez
bustitzen dituzu begiak: arnasez
makal, eta animan zauriak oinazez.

Orduan lainoa duzu bazkaltiar,
miesa biguinez txukatzekeo nigar;
ez duzu nahi zuk ez eguzki, ez izar.

Olagarroak hor dabiltza hasarrean
begiak alperrik dituzte aukeran;
ilunbezu dute nagusi, urpean.

Orduan, ikusgaitz harako katxoiak
—maindire urdinetan edermin-koroiak—
ez du dizdirarik ez beheak ez goiak.

Ai, katxoi txuriak itsas-azalean
alai ta zoroko dantza txukunean;
artalde gaztea iduri larrean.

Zugatzik batere ez zure barrutian,
untzi-tantaiak zuk ikus-gutizian,
kaioen kokagei zelai biluzian.

Laztan berri eske zaude alarguna;
ezpainetan duzu menturen urruna;
zuregan, Itsaso, hurbil dut urruna.

Iturrien ama, osin nagusia,
zure ertzean nuen behinola kabia;
hantxe nahi nuke hautsi urteen kataia.

USAIN

Zure kolorea
eta zilarra
ditut kantatu maiz,
zure usainaren
grazi jatorrez
ahazturik ez naiz.
Begiok sarritan
ikusi ezarren
zure irudi taxa¹;
ez belarriok
entzun, hurbil
zure susmur-hitza,

zure usaina
hain dut gozoa
eta sarkorra, gezal,
kostertzean
jaiotako haurra
beti baita
zure hurrinaren behar.

Kaiera orduko
sentierazten
diguzu usain hori;
hegaz datorkigu,
lumatxoak zabal;
uneoro halaxe
kaio ta kalatxori.

Halaere badituzu
bazter batzuek
usainez beteagoak;
zuk soilik, Kantauri
eskintzen guri
lurrin atseginagoak.

Usain zorakor,
gezal-lurrin bena,
gure haurzaroan
gure genduen.

Berriro ere, begiak ertsi
ta zure atxonaren zorabioz
nahi nuke ene lo luzearen
beso samurretan etzin.

¹ Taxa: eder.

AGUREA TA POTINA

Arrats hortan hautsi duzu, Itsaso,
atze zenduen pakezko barea;
uhinik suminenak baitute jaso
beuren hasarrezko burni-katea.

Bildurraren erpeak utzi dute
potintxoan dagoen agurea.
Hodeiak dituzu noiznahi eskupe,
mirabetzeko zure hasarrea.

Ipar gordina betor burrukari
hodei ta mendebalak uxatzera,
arrantzale zaharra gal ez dadin;

elkarrentzat lehen bezin maitari
izan zaitezten, itzuli kaiera
potina; barruan, agure ta arrain.

BEREZI

Hara!
Hortik da joana
euskaldun bakana.

Hortik zehar da joana
ta etorria
—harro zagoz, Getaria!—
gure Elkano
inor baino lehenago
munduaren bira
besarkatuta,
oihalak zintzilik,
arraunak zabalik
gizonez ta ametsez beterik
untziak.

Halaxe
Gernikako Haritzak
zabal
bere besoak
—adar eta orriak—
Jainkoak nahi dueno.
“Eman eta zabal ..
Ez bedi munduan
jarei-hazia gal!


Gure hurraren ahizpa,
Euskal Herriaren auzo,
Itsaso,
zure magalera begira
bizi dira
gure gogo, begi ta joran.
Oldarrak ez du atsedetik,
odolak beti du lan.

Abenda zaharrak atadi zaitu
ibili beharreko grinan,
mila zidorretako zelai urdin,
beti zaitugu animan,
Euskal itsaso,
Elkano gurearen
sehaska gozo.

Arrantzaleen giro lehena,
emaiguzu bai, zure kemena,
itsaso maitagarria;
Lurra auzoan, goian zerua
gure jatorri ta helburuak
zuregan dute irudia.

SAIHETS-HEZURRETAN

1965



Ilunaren kolkoan,
minaren altzoan
nekezko kataiak jaso ezinik,
lerroak eta oboak¹ burrukan:
ondasun-joerak
giza-buruetan.

Oboak eta lerroak
paper urdin eta txurietan.

Ez jaberik
ez neuririk
ez dute beltzek;
beltzen animak
betiere
ondasun-gurdiak betetzen
ari da argi ta ilumbetan.

Oihanetako geriza ospeletan,
zuhaitz enborretan
gerririk gizenenetan
dirdai gabeko azkonak
dzast! sartuerazi dituzte
gizon gazte berriak,
muturrak ausart,
ausartago esku,
mingain ta begiak:
gizarte gaztearen
egunsenti gorriak.

Ez diote inori
baimenik eskatuko;
uiol berreginak,
biharko zirimol
ekaitzezko grinak
indarrez joriak
ez dute behar izango
inoren baimenik;
izango baitute aski ahalmenik
beuren kemenean,
gizarte gaztearen
egun-argitzean.

Beltz eta gorri
zut izanen dira,
ke artean suaren distira.

Urdin eta txuriak,
lehengo margo guriak
agian tupustez labe gorira.

Ez diote inori
baimenik eskatuko;
indar hezeak urratuko
aintzineko zentzun,
erdi-bildur,
behekoen makaltasun.

¹ Obo: biribil.

Ez diote inori baimenik eskatuko;
zentzuak orduan dira urratuko;
zaharrak kordegabe
aulki zabaletan ereriko,
zuhurrak zoratu eta
epelak harro ta irten
uztarriak dituzte
hurrera eratsiko.
Ez dakigu betiko.

Kataiak leher
beuren estuntzak.
Hesiak eten
jopukuntza.

Izango ote gara
adoredun lekuko?
Haize indartsuak
egote otzanari
harrimenezko uko.

—“Lilitu zan haranean,
lilitu uda hastean;
fruitu guririk eskeini zigun:
hezur mingotsa barnean ...”
Halaxen du kantatuko
jauregiko alaba ederrak.

—“Nun dira gure maizterrak,
langile landerrak,
otsein uztarbera eta
mirabe apalak,
morroe otsein ergelak? ...”

Ez dute inoren baimenik
galdetuko.

Agian nerau izanen naiz
gertapen horien
lekuko.

Ibaiak eta itsasoak
ez dute, noski,
turutik jotzen
aldez aurretik ozen.

Ausaz, hor dabiltz azkor
averno berriak,
iratxo bihurriak
hautsaz zilipurdika,
su ta ke ta gar,
sorgin madarikatu
ta basajaun larriak.

Nire animako atea
lanbropean;
lehioak, irentsiak ditu
ilunak, isilean.

Animarik doilorrenak
izanen dute pagua.
Behetik datorke zigorra;
goitik urratu larrua.

Ilunaren kolkoan,
minaren altzoan
burrukan, guduan
lerroak eta oboak.
Herriak ez dira zoroak.

Ene saihetsetako mina!

Hamaikak izango dute
gerruntzean iltze,

bularrean sastakai,
eztarrarian labaina,
buruan balaren beruna ...
Atorragabekoan
mendeku-eguna!

Oi, lehenetako
iluntze hozkorri
liluraz betea!
Egunsenti gorri,
odolurdinen
beheratzea.

Orduan amaituko
gezurkien lurrina,
bitarteko maltzurren
ahoko txistu likina.

Aintzirako lizunak
izan ditu egunak
usteltzeko.
Ur egonduak
badute gaineko
kaparra.
Ta urpean, mila pekatu:
diruak, bildurrak
gutiziak zituen pilatu.

Behazunaren mingotsa,
beranduegiko ai! hotsa.

Dirdaia galdu dute azkonak,
odolak ditu zikindu
iskilu, atadi ta sakonak.

Itzaletako zuhaitzetan,
ilargirik gabeko gauetan

aurretiez zituzten gertu
haundi-maundien izenak,
diruz ta mamiz gizenak,
jatorri eta leinuak,
jauntxoekin keinuak,
horien egitada bihur
eta kalteak,
harro ta doilorren
uzta zuzengabeak.

Itzaletako zuhaitzetan
idatzirik dituzte
izen banakoetan
tiranoen izen
ta deiturak,
gezurkien koipeak,
koldarren egiturak.

Ai, haizearen hasperena
sasi-pakezko txoriak
isila urratzean:
nolakoak ote egun berriak?

Hegan joanen dira
egute berrien bila
txori kantariak
itsas hegaletara.
Zeruan, isilik,
hegalen dardara.

Sastakai zorrotzak
oihan beltzeko zuhaitzetan
enbor lodienetan
daude sartuak;
halatsu haginak
zakur amorratuak
haragi-hezur gozoan.

Nagusi ankerra duenak auzoan
ez daki zer gertatzen den
infernuan ez zeruan.

Basatiak biziko dira
baina ez guztiak,
egunsenti berrietan
geroetan ere
kantari txoriak.

Emazte lizunak
ta agintari aizunak,
hala izan dira
joandako egunak,
urre zikinaren
zale ta lagunak.

Aspaldi iragarri eguna
helduko ote da, heldu?
Tantai guztiak zelai
berdina eredu;
atzo ez egin nahi,
ta geroago belu.

Ez diote baimenik
inori eskatuko.
Norbait izanen da
lorrinen lekuko.

Harpeko zilo beltzetara
helduak gaituzu,
herensugea nun ote dugun
nahi genduke galdetu.

Zazpiburuko herensugea:
gizonak gizona lotu.
Behartsuari irakinean
odola zaio berotu.

Heldu-hurren da amets-berdintza,
gizonek amorruz hitza,
begietan so gogorra,
ahoa birao ta bitsa.

Katez josirik
—inoiz urrezkoak—
dijoaz gizonak
gorrotoak joak.
Diru grinatsuaren
bildumen jarraian:
gizon erpiziak² badu
altxorra garaian.

Zidor medarretan
barrena txiroa;
jauregi zabaletan
eukitsu saloa.

Oboak eta lerroak burrukan
—diagramak eta %-ak
haundien onuran—.
Herrikoen bizkar
minberatueta
uztarri zaharrak
mendeen mendetan ...

² Erpizi: zuhur, ernai.

Askatasun eresia,
soinu biguin, amestia.

Gizon anitzen kantu
irrintzi zolia,
zikoitzen erraien
arrezko hilobia.

Ezpatak nun dira?
Nork ditu iskiluak?
Bular-eztarriak zauriz
odolez zikinduak...

Ez diote inori
baimenik galdetuko.

Ero-zantzo ta ikurrinak,
suak eta odolak
agian garbituko
lehengoan gaizki eginak.

Dardarez jauregi-zolak
herri xumearen mende,
baina langile artean
alper, zatar ta eskale.

Belarriak adi,
begiak erne
bular agiri
nintzan jarri
oihaneko itzalean,
isil ta urduri;
oinpean nuen lurra ikara,
hasiera, argi zegoan;
amaiera, ordea, ez hala.

Herensugea basazilotik
atera nahirik orruz,
gertakaria gertatuko ote?
bainan, eta noren erruz?

Inortxori ez diote
baimenik eskatuko.

—Tiranu bihotz gogorra,
ezin behinere samurra.
alperrik dorre goretan
gordeko saihets-hezurra...

Gizon ausartak tronu ederra
beretzat dauka ongarrri;
herri apalak inoiz edo behin
uztarria du mingarri.

Zaldunak,
ahaldunak
mila urtetan
zikoitz ta lizunak;
snobismoak
galeraziko
zorionezko egunak.
Ernamin bortitzez
nekazaleen garunak.

Giroa giro
udalehenean;
udazkenean, izotza;
negu-negura
heldu omen da
aberatsaren jaiotza.

Hesia eta kataia,
nekea eta izerdia ...

Ezin inolaz
galerazi inork
etorri datorrena,
mende hontantxe
eroriko da
dorrerik gorena.

Kale estu-zikin horietan gora
urduri dator herria,
agian laister zertuko dute
mundu-iduri berria.

Mendi bizkar hezeetan
egunsentia ozkorri,
jauregiko jaun beltz hura
horra zerraldo erori.

Ibaietako ur odolduak
beherantz doaz urduri,
zuhaitz artean haize berria
gogo bihurritz kantari ...


HARITZ JEIKIAN¹

1969

Hitzak haizea nahi
Haritz jeikian
Ontzia utzita
Eroak
Haizetara berriro
Ingurumariak
Oilarbuzten
Jantzia urratzean

Ehiztariak dabilta
Joko berria
Egia, gure ogia
Emaidazu eskua
Ximist
Bertsolariarena
Agertuko da
Zortzikoa

¹ Gipuzkoa Saria euskerazko poesiaren atalean, lehenengo saria irabazi
chan.



“Eztiteke zauria senda,
elorría barrenean deino”

Axular

HITZAK HAIZEA NAHI

Anima mindu hontan
pakea sortzeko
luna zaharra daukat
zerbait azaltzeko;
gizonak, mintzatzea
txit baitu etxeko,
neurtitz berriez ditut
orriok beteko.

HARITZ JEIKIAN

Haritz jeikian, ezkurra;
zaharren gaitza, beldurra;
koxka guztiak moztu nituen
banuen lagun zuhurra.

Abar mehean udare,
andre bat neronen pare;
geroztik nola gizondu nintzen
erranen nuke, gaur ere.

Sekreturik bipilena
barnean gordetzen dena;
hastapena nik erranen nuke,
bainan neretzat azkena.

Hezurak inguru mami,
ogiak behar legami;
saihetsaldean arkitu nuen
gutizia nuen lami.

Kantari negu-ondoan
txoriak oro basoan;
iriki nion maitetsoari
bihotz nerean osoan.

Haren bihotza nerean,
amets lainoet betean;
gure ametsa bete orduko
sortu zuten gerratea.

Guduak badik irakin,
ta orduan ez nik jakin;
nere maitea galdu nuen ta
nere poza berarekin.

Sekreturik bipilena
mihipean dagoena;
hastapena nik erranik daukat,
baina neretzat azkena.

Ezkurra, haritz jeikian;
lilura, begi-ninian;
maite nuena galdu ondoan
anima, zauri gorrian.

ONTZIA UTZITA

Bertze orduz jeiki nintzen
hodeiei galdezka,
aldean, isila isilik
izu eta kezka;
gezurra ere sortu zen
trinkoki, gainezka.

Gazte batek ninduen ni
begi eraginez
sutu, haizatu ta itsutu
bapatean, zinez:
haren irripar ezitia
gozoz aina minez.

Ba ote zuen gorputzik
gazte haren lerak?
Garra zeraman hitzetan
betiro hark berak,
adimenak argitzeko
bazituen zerak.

Tankera berriko haurra!
dena zuen zabal,
bularra dena ageri
—hala enbor-azal—;
orduan laga nuen nik
ene ontzi zahar.

Ta haren jarrai aldegin
etxea lagata;
ontziak haitzetan behar
zukean nun koka;
jarraitzaileak ugoldez
ginen elkar joka.

EROAK

Muino eta mendixkak
gaindu genituen,
gizonak elkartzen
egikizun guren.

Anaiaren odola
isurraraztea
pekatuak beltzena,
dudarik gabea.

Amaren sabela guk
ezin erruz bete,
gurea dugu jita
ta laidoa ere.

Guk dogu behazuna,
geronek ozpina,
sugeak ere ez duen
okerreri fina.

Odolaren mozkorra
mozkorrik txarrena,
taju berriko haurrak
har ez dezakena.

Jar zagun kupelean
maitetasun arno,
ta elkarri atxiki
biziak dirauno.

Nik ere laga nuen
ontzino nerea,
arraunak, lokarriak,
amu ta sarea.

Lehenbizi bide urdin,
gerorantz nabarra,
legorrak ez zedukan
nire itsas-aparra.

Gu gizonaren alde
ginen hainbatean,
borrerruak zetozten
gure ondorean.

Gizon dena biluzi
jaiota, zergatik
batzuek oparo ta
besteak ortozik?

Eroak ginela ta
ginduzten atxiki,
ta gero giltzapean
ezarri poliki.

Zartakatu gintuzten
—makila herabe—;
isilik egotea
genduela hobe.

Halaxen egon nintzen
behartsuen pare,
ta bigarrenez lotu
maitaririk gabe.

HAIZETARA BERRIRO

Hara, mendixka eder!
hara, zelai garbi!
hara, umezarotik
maite nuen herri.

Anima mindu hontan
pakea sor dadin,
zuregana natzaizu
herriminez txolin.

Ikusiak ditut nik
mila giro mota,
kabi zaharrear dut
eskatu nun koka.

Ez du inola barrenak
ezpiderik gura,
bai noski, semeentzat
gurasoen lurra.

Mendian den pakea
amets dut hirian,
pakea arratsez, goizez
ta eguberdian.

Galdu nuen nik, galdu,
maiterik lehena,
eta adu beltzak ostu
amets bigarrena.

Osasun haize bila
ez nadin azkena,
sorlekuari opa
semeak kemena.

INGURUMARIAK

Suaren inguru zen
aitonen pizgua,
halaere gaurkoan
galdu dugu sua.

Sua itzali baitigu
kultura berriak,
eta haizea neurtzeko
lehioak, hertsiaik.

Su-inguru bizitzea
gurari alperra!
Hain kutun zitzaigunaz
urrunduak gera.

Kalerdian dabilta
musuka gazteak,
ez du lanik ematen
biluzik jazteak.

Sorginik ez da orain
—Eibarko iskiluak—
indize produktiboz
ditugu istiluak.

Lapurak ari dira
isilean gizen,
hamaikatxo mataza,
izengabeko izen.

Donibanez su-biran
ginen gu jolasten;
txistua isildu da,
danbor motzak azken.

Ibai ta itsas-ertzetan
urak zikinduak,
gure biriendako
haize kirastuak.

Ixtorioak buzten
azkenik gabea,
hurrenik hurren, noski,
gizonek nekea.

Gizonek nekea ta
umeek negarra,
gazteek bihotzetan
iraunkor den garra.

OILARBUZTEN

Isildu zera,
aiskide,
lehen berritsu
senide,
matrikuluak¹
ugolde;
orain poliki
zuk gorde.

Azpian zeuden
orduan,
menderatuen
lekuan,
guztiok dugun
zuluan:
baina gaina hartu
zenduan.

Premiaduna
haserre,
auzokoekin
txit erre,
soroa hobe,
ez larre;
goikozalea
zu ere.

Isildu zera
aspaldi,
zimurtu zera
nabari,
akertu zera
doilorki;
bertsu berbera
egoki.

Egiak beti
berdinak,
bainan zureztat
saminak;
gizonak zure
mingainak
kakaren pare
eginak.

Saldu duzu, bai,
anima,
gure laguna
aintzina;
ergel, gogoa
ta zima,
hobe infernuan
bazina.

¹ Matrikula: istilu, nahaste.

JANTZIA URRATZEAN

Ardorik gabe
garraztu nintzen
albiste hura
jasotzean,
bizkitartean
sentigabea
sentitu nuen
orduxean.

Eguzkipeko lore
xoragarriena
zimelik zegoela,
lorrindua dena.

Lur gizenean
sortu zitzaigun
landare bakan
politena,
ekaitz indarrak
erauntsipean
orriak ahuldu
ta txortena.

Eguzkipeko lore
xoragarriena
zimelik zegoela,
lorrindua dena.

Deitu nituen
hurbilekoak,
auzo, senide,
etxeakoak,
nola saihestu
galerazpena,
kemenarazi
errotxoak.

Eguzkipeko lore
xoragarriena
gero ta zimelago,
lorrindua dena.

Berantegi zen
ahalegina
lore gaisoa
jasotzeko,
zabarkeriak
galdumendia
dizu senide
odoleko.

Eguzkipeko lore
inoiz xoragarri,
gure laido zikinak
hura salatari.

EHIZTARIAK DABILTZA

Ixi, ixi!
urzo hegalnabar;
ehiztariak dabilta,
beharriak erne,
begiak zabal.

Zuhaitzak badute
nun gorde, nun egon;
badukegu, noizpait,
atseden goxorik,
bazter-zorion.

Gizonak zure luma
igurtzi nahi dizu.
Ni nauzu hurbilago ta,
zergatik hain izu?

Negutean elkar
dugu berotuko;
hotza, atarian
bego, ostatuko;
mihise txuriak
geronen lekuko.

Ta belarrak gora,
eta pipiak leher
ta elur zuria
erruz urtutzean,
biok dugu eginen
elkarrekin hegan,
binaka, kitzika,
zeru ederrean,
zelaiok, mozkorrik,
liliz betetzean.

Ixi, ixi!
urzo hegalnabar;
ehiztariak ditu
hor, sareak zabal;
beharriak erne,
begiak arretaz,
gaur ez gaitean gal.

JOKO BERRIA

Ezetzera jokatu,
ezetzera;
bakoitzak berak daki
jokaera.

Haragia uzteko
ostirala,
argiak ematen du
beti itzala.

Kai zaharrearan nago
ahantzia,
isilik dut mingaina,
beltz, jantzia.

Kosmopolita oso
kalekoak,
ez ditut ezagutu
auzokoak.

Sargorea, sartu du
galarrena;
zerupean haizetan
etsipena.

Ifarra nahi nuke nik
Kontxaldean,
ta arrantzaleen farra
kaiganean.

Xipiroiak ohi baitu
tinta beltza,
jabetasun gabea
gizon mentsa.

Ederra da txanpana
kristalpean,
begira gal ez dadin
edatean.

EGIA, GURE OGIA

Zure galde,
zure eske,
zure begien dirdari,
egia,
 denon ogia,
urrunik dugu aspaldi.

Zure galde,
zure bila
ibili dira gizonak,
egia,
 denon ogia,
salduko zaitu egonak.

Zure galde,
zure jarrai,
gazteek duten gosea,
egia,
 denon ogia,
nola diteke aseá?

Zure galde,
zuri deika
enda askotako semeak.
egia,
 denon ogia,
lotu zaitue legeak.

Zure galde,
zure minez
egin ditugun bideak,
egia,
 denon ogia,
nun dituzu senideak?

Zure galde,
zure alde
edonor ari da, ahoz;
egia,
 gure ogia,
hor, bahituretxean zagoz.

EMAIDAZU ESKUA

Auresku berri honek
duen ariora
emaidazu eskua
ez zaitea zora.

Lehioak mila ditu
etxetxo nereak,
batzuk zaharrak dira,
berriak besteak;
atzo, ume xoil ziran
oraingo gazteak
auresku berrietan
bihur nahasteak.

Auresku berri honek
duen ariora
emaidazu eskua,
ez zaitea zora.

Gure bila dabilta
auzo ta atzeak,
eskini dietenaz
ametsez beteak,
hormaren bestaldetik
aditu eleak,
plazatik urrutian
ere, saltzaileak.

Auresku berri honek
duen ariora
emaidazu eskua,
ez zaitea zora.

Ario oraingoaren
azkena bilatzen
aiton xudur luzea
daukat galdetzen,
nekeak eskatzen du
noizen behin atsen;
argienak ez gera,
ez, ordea, motzen.

Auresku berri honek
duen ariora
emaidazu eskua,
ez zaitea zora.

Atzeskua du galde
auresku izanak,
osagarri zaizkigu
inoizka edenak;
atzo gotorra zena
mendetu du penak,
denik zailena ere
joko du Azkenak.

Gure bila dabilta
behera ta gora;
emaidazu eskua,
ez zaitea zora.

XIMIST (flash)

Ilargira
heldua da
gizona, oraingoan;
jakitunek,
amets hura
mamitu delakoan;
ta zaharrak
harriturik
gertakari ondoan;
gazteengan
arrimena
xoilik, atalondoan.

Hutsarteko
borobilak
hurbil ta hurbilago,
munduaren
hedadura
haundi zen lehenago;
indarraren
neurria ta
marka, jakina dago;
gizarteko
elkar-nahia
gero ta ezinago.

Metalkiak,
indarmotak
menderatuxe dira,
urrutia
hurbileko,
gizon batzuen deira:
zailena ta
erazena

zenbait ardatzen bira,
horrelaxe
guretarra
heldurik ilargira.

Ilargira
lehenbizi
eta Martera hurrena,
hemen dugun
eremuak
eskatzten zabalpena;
gizaldeak
mugagabe
zertzeko ahalmena,
ez dezagun
itzulaztu
beharreko kemena.

Il-argia
utzi eta
hementxe bizi-argi,
maizenik ez
gizakiak
ken, uxatu uztarri;
lanabesak
menderatu,
gizonak zutik jarri,
ilargian
pixu gabe,
lurrean jopuberri.

Ederki dut
ilargia
begipean atxiki,

areago
hango gauzak
burmuinera iritsi,
zuritasun
hits hartantxe
ez ote gu nahasi?
Laterriak
oparotsu,
gizon anitz biluzi.

Lurgainean
halaber dut
gizona hegalari,
zenbait hegan
aisa dabiltz;
areago, narraztari;
dirua ta
ahalmena
jauntxoen maila neurri,
ilargia
gehientzat
protxu gabeko herri.

Mendekoak
izatea,
gizonak hor du zima¹;
haren onak
maizko xamar
mindu besteen anima;
giz-indarrak

koltzatzeko²
sakona behar ima³,
gizonak du
auzokoaz
doilorrena den grina.

Joan zaigu
ilargira
gizon tipi ta handia,
urrunetan
ametsetan
betirotsu aria;
hemen duzu
hurbilean
behartsua den sendia,
begietan
lausoa ta
odolean eria.

Oraikoan
gizontoak
ilargia oinpetu,
han atzeman
harri haiek
jakin nahiaz xehetu;
ilargia
toki hutsa
ta bakartade leku,
behe hontan
gizakiek
hobe, alkar maitetu.

¹ Zima: izakera.

² Koltza: burdiari inguruan ipinten jakon ola, barrukoa ez jausteko.

³ Ima: soloetan urarentzat egiten diran erretanak.

Ilargia
guztientzat
nahi dute izatea,
ta aspaldiko
lur arruntak
mailaz maila xedea;
duenak du
duena ta
nagusi da jabea,
batzuentzat
gari eder,
besteentzat zalgea.

Ilargitxo,
ene ilargi,
aintzinako poesi,
maitarien
elkar-deiak
zuga leku berezi;
giza-oinak
aztarrena
harrigain dizu utzi,
lapur kontu
betikoaz
gizonak ezin etsi.

BERTSOLARIARENA

Azkar eman didazu
ur bedeinkatua,
hain azkar ez barkatzen
zure pekatua,
baldin badezu lehengo
lepotik burua
okerra zuzentzera
zagoz behartua.

Auzokoa badezu
maltzurki jorratu
gezurretan berriro
ezin izorratu,
zuzenaren neurriak
zaitu ikaratu,
horra hitz laburretan
egiak paratu.

Lehengoan ere
baziren gizonak
elkarrengana lotsaz
bizitzen zirenak,
hiruzaku eginez
aberats direnak
gero izanen dituzte
asto beltzarenak.

Herriak ez du beti
poeta ulertzen,
bertsolarien kantak
errez menderatzen;
horregatik ari naiz
laburkiro jartzen,
iluna argiago
eman gogoz nintzen.

Gaurko ongi egina
txukun bihar ere,
zuzenak ez du inoiz
ontasuna erre;
batzuek larru zabal,
gehientsuek hede,
bakoitzak merezia
eginaren pare.

Seigarren bertsua dut
zortziko txikian
gogoeta sakonak
labur agerian;
haritzetik ezkurra
erori aldian
bildotsak han, ta akerrak
beste alderdian.

AGERTUKO DA

Dinbilin danba, dinbilin;
ote artean poxpolin;
ama gureak entzun ez dezan
isil dezadan zinkurina.

Xalantik ez nere gelan,
hala Iztuetak kartzelan;
gurea dugun amodioa
burniar-tean aukeran.

Ateka ertsia dago,
nik barnean dut nahiago;
zelatariak, salataria
sortuko ote duen nago.

Nik erran gogo nizuna
ez da gordin ez lizuna;
maite-ohean errana oro
egia da, ez aizuna.


Gizena ez da giharra,
gizonak maite zilarra;
azpizapoak galdu omen du
auzokoaren senarra.

Dinbilin danba, dinbilin,
zintzo artean kaxkarin;
gure auzoko salataria
abar luzean dingilin.

Xalanta daukat kartzelan,
oraingo ezin bertzelan;
urzo zuria agertuko zait
ekaitz ondorean hegan,
aspaldiko maite-gelan.

ZORTZIKOA

Kaletik irten ginan
gazte ginanean,
ibilia bukatu
dugu adinean;
zorion izartxoan
kirika denean
gaitean bihotz zabal
gizonen artean.



GIZONA, HITZ ONA

1970

Ezerezetik

Jaioberritan, zinkurin

Plazako poza

Gizonak, mintzoa du

Beti penetan

Gezur, hezur

Nekea

Goiko ta beheko

Bakartadetik ihesi

Aitaren eta amaren

Jator

Ttun ttun



EZEREZETIK

Ezerezetik nintzen
honera etorri;
zorionez, amak, ez
ninduen ilorri¹:
bizitzaren jabe naiz,
premigaiez horni,
ezerezetik nintzen
mundura erori.

Misteriopean dut
bizitza katea,
ta oinarria bera
ez nuen nereaz;
isilpean ari da
odola, oldea;
hezur ta mami isilez
dugu gure etxea.

Bestek esanaz dakit
nor nuen nik ama;
aitaren aztarnaz, soil,
entzunik dudana;
halaere haietxek
dei egin aurrena,
Egileak emanak
tankera ta sena.

Abere ez txoriek ez
dituztenak, neuzkan:
aiton-amonak bina,
lau lagun errezkan;

egiaren lektuko
egoki zitezana,
ene aiton-amonak
bai jator, benetan!

Besteengandik jarrai
datorren katea,
gizonak bere eskuan
duen onbidea;
inoizka, baditeke
bizi-emailea,
ta bizi-etengarri
aukeraz betea.

Ezerezetik heldu
nintzen hau, banabil;
mugak nik gorputzean,
gogoaz ezin bil;
zazpi oin lur nahikoa
gaitezanean hil;
bitartean oldarra
ta ametsa, borobil.

Lehen-minez zein dudana
eder, nik sehaska!
urteen ugotzeaz
galdutako kezka;
gurea galdu arren
hurrengoek eska,
bilobena ere ikus
oi, ahal baneza!

¹ Ilorri: hilaur.

Ezerezetik Jaunak
ninduen idoki²,
gurasoek laztanez
ninduen ni jaurri³;
bideak aski ditut
ezker ta eskubi,
ezerezetik nintzen
mundura etorri.

² Idoki: atera.

³ Jaurri: babestu, jagon.

JAIOBERRITAN, ZINKURIN

Etorki haundi baten diztira,
hautxo berria sehaskan dago;
etorkizunak emango digu
gizabetea geroxeago.

Odolean du izeki, dirdar,
biziak gertu dakarren garra;
jaioberriak bizia maite,
horrexegatik espa, negarra.

Ezertxo ere ez egin eta
sortu, mamitu eta jaioa;
ezertarako berez ez da inor:
logale, egarri, hotz ta bero da.

Argirik ez du batere behar
jaioberriak aste zenbaitez;
amak emango dio beroa,
odol berria bular-ugatzez.

Isila kutun baldin bazaio
doinua ere adiskide du,
zanbulu xamur kantuz betean
aingeru loaz, haien eredu.

Tipia hatsarrez, gerora hazia,
guti lehenik, guztia gero
Gizakiaren zador sakona!
Grina kabia: bat, ala zero.

Bakar ta soila dirudi baina
soinaren pare dauka gogoa,
bitasun hortan hasiko baita
haur hura laster gizon osoa.

PLAZAKO POZA

Plazara joanen gera,
gure plaza ederrera;
hantxe arki dezakegu
jolas guztien aukera.

Ibili, erori, jeiki,
deciadar gozoak zabal;
haur eta ume —gizon promes—
lurrin gozoz amets-hegal.

Hara ta horra, goi, behe,
zuhaitzen abar goretan,
plazako alaitasuna
haurren buru-begietan.

Arriskurik ez gizonak
umezaro egunetan,
lehendabiziko bideak
mendirako zidorretan.

Ibilteko, bitarteko,
bideak eta zidorrak,
lurgainean jarduteko
hitz onak eta elkorrak.

Plazako jende alaiak
herriko umeen biltzar,
orduan inortxok ez du
etorkizunaren bizar.

Gizona, hitz ona dugu;
guztiok gizon bagina;
plazako poza galduta
elkarrengana samina.

GIZONAK, MINTZOA DU

Biloizik
atera nintzen ni
amaren sabeletik,
ez dakit
nola ta noiz ere;
lorra badut geroztik.

Haurtzaro
atsegin askoan
iragana nauzu ta,
orduko
doinu gozoetan
amak gorgoinatua.

Jolasen
irudi zorakor
oihu eta parreak,
mingabe
txori alai gisa,
zabalik poz-ateak.

Bolon bat
bai eta bolon bi,
bolon putzura erori ...
loreak
pirtxildurik eta
umetxoak lauorri.

Begien
ta parre gozoen
ondorengo ondasuna,
asaben
emankizum eder,
hizkuntza euskalduna.

Maite dut
hizkuntza nerea
beste guztietaz gain;
gizonak,
odolaz batean,
amaren mintzo bikain.

BETI PENETAN

Beti penetan bizi naiz,
beti penetan;
gizona naizenez gero
poz-negarretan.

Egunak aldi oroz du
argi berria,
gure gizarte zuhurra
txit nahasia.

Ilunbea uxatzekotan
jarduna naiz ni,
ene saioaren kontra
pertonak ari.

Ikusi nuen ikusi
aukera soila,
baratza behar nuena
eremu ohila¹.

Jaurtiki ezazu zailu
lehen azkona,
gizonaren etsailburu
beti gizona.

Beti penetan ari naiz,
aterrik gabe,
atsekabeak mendean
nauka herabe.

Enzindu² nintzen oso
ni zure hitzetan;
beti penetan bizi naiz,
beti penetan.

¹ Ohil: basati.

² Enzindu: fidatu.

GEZUR, HEZUR

Hazia lurperatzen
dugu usteltzekotan,
baina landare ona
ernarazi dezan.

Plazan ibilia naiz
txiki nintzenean,
idekoak inguru,
ta ama, hurbilean.

Azaletik baino ez
genekien ezer,
errubageen poza
bai dugula eder!

Epe hura bukatu
opa baino lehen,
lagun ingurukoak
etsaigoan hurren.

Gezurra ote zenentz
gure umezaroa
galdegin nahi nuke,
galdera eroa.

Gizona bat izanik
bitan da mamitu,
ona eta okerra
berberagan baitu.

Umezaro argian
egia zen gezur,
gizartera heltzean
mami orok hezur.

Tipildu nahi nuke
arima nereaa,
gizona izan dedin
nire epailea.

NEKEA

Egotzi naute goitik behera,
hodeiek kaskabarra bezela.
Ez dut inoiz jakin
nundik eta nola;
urte luzeetan
ez naute kotsola.

Ingurua dut ikusgarria,
galdetugabe dudan tokia.
Haranak, ibaia
erdian, ezpata;
ertzek elkarri irrits
zauriak musuka.

Ibaiak badu elur-hondakin;
goroldioak ezoa du min.
Zuhaitz-erroetan
biziaren zorna,
lur gizena kutun,
ez gaztelu-horma.

Hegan dijoan txori alaiak
hegalak zabal, erne begiak.
Haizearen finak
emango dizkio
bizitzeko poza,
oldar, zorabio.

Hurbildu nintzen goizabarrean,
zeruan argi, ta ilun hurrean.
Zerbaiten galdezka
gizon oro antzo,
grinak bizi-bizi,
ikusmena lauso.

Atzo iritxirik dut nik zerbaixka:
aberei laztan, gizonei uka.
Iritxi nuena
ez neretzat soilik,
lagun hurkoa dut
premiatsuenik.

Gaztelu zahar, arrano kabi,
umilak nola zugandik sari?
Zuk emandakoa
hartuko ez dut nik;
ezin, ez baituzu
inoiz ematerik.

Haran osoan lurrak bai eder!
zeru urdinean, hutsa halaber.
Odoldunak, orde,
minez ari dira;
jaunak daramatza
zigor uztarrira.

Zainen joanak badu etenik;
atsekabeak ere, halarik.
Zure neke hori
nerca ere bai,
gizon-auzolanez
gaitean gu anai.

Eihera aldean bilduko gara,
axut-turuten doinu ikara!
Ingurua eder
duzun hainbatean,
herria amorratzén
duzu nekepean.

Gaztelu gogor, gaztelu beltza,
leihoak estu, gertu ezetza.
Gizonentzat mailak
ezarri dituzu:
goikoan, zureak;
behean, herri izu.

GOIKO TA BEHEKO

Gainean hitz politak,
gogor antzez zola,
besterentzat gertu du
gizonak kaiola;
barnekoa inork ere ez
dezake kontsola;
kanpokoa libre da,
ta badaki nola.

Libre ginalakoan
gentozten mundura,
gizonek eskubide
duten eremura;
atzapar gogorrenak
darama onura,
ta indarrez ezin badu
amarruz barrura.

Guk ere bagenduen
guztion tokia,
goikoz eta behekoz
egin lokarria;
halare, ahaltzuak
aske du bizia,
behartsuarentzako
neke ta uztarria.

Zenbait gogoetaz dut
beterik burua,
gizonak noiz izanen
okerren damua?
Arrantzaleak, maltzur,
eskintzen amua;
elkar harrapatzeke
gizonen modua!

BAKARDETIK IHESI

Berriz plazara nintzanean ni
bizarra nuen musuan;
umetxo lagun haietaz sorgor,
emazte-bila orduan.

Urteen kate ezin etenak
mailak maila zeramatzan,
irriek ihes, jolasak urrun,
maitemina nuen aitzin.

Maiteminaren eskolak badu
beste eskola bat pareko;
munduko liskar ta nahas-mahas,
gizonek elkar joteko.

Umezaroko liskar tipiek
—itsas-uhinek bezela—
eme-emeki buka ditezan
badute itsas-mazela.

Geroagoan ikusi nuen,
ikasi nuen mundua,
argi dagoen gauza orotan
beharra dela gandua.

Argi dagoen gauza belztutzen
mutila baita gizona,
loretan geunden umezaroan
dena zen eder ta ona.

Bikorra dena bakarra balitz
gizonaren izakera,
soinu berdinez, biko bakarrez
litzake gure aukera.

Ezina ez dut amestu nahi,
gizona dut maitagarri,
ta are andrea, etsai xamurra,
gizonaren ezpatari.

Bakartadean laguna behar
—gizasemeen premia!—
burrukarako ta pakerako
auzoa nahiz herria.

Atzo esana, oraingoan jan;
lehen hitza gaur ezetza;
eskola-mutil adiskideak
bi moldetako bizitza.

Plazara berriz nintzenekoan
ez nintzen ni lehengoa,
ume xamurrak ikusi arren
urrun nedukan gogoa.

Emaztegeia bilatzekoan
orduan ere gudua,
zenbait mutilek behin eta berriz
niretzat eragaiztua¹.

Geroztik badut jazarbideen
erakusburu mingotsa,
bide zelairik ez dut arkitzen,
ez arkitzen anai-hotsa.

Elkarrengana haginak zorrotz,
ateek burni gogorra;
leherkaiak elkar hilteko gertu,
eta auzoa nola izarra.

¹ Eragaizto: traba, eragozpen, oztopo.

Plazara berriz zertan agertu?
Etxea dut maiteago.
Bakartadean hitz eta doinuz
egunak zaizkit soilago.

Egunak zaizkit paketsuago,
okerrak ditut uxatu ...
Gizonengandik urrun bizi-
egiten ote pekatu?

Halare, egia! Soilaren soilak
negarrarazten nau sarri ...
Kalera nator, gizonen gudu
eta laztanen egarri.

AITAREN ETA AMAREN

Gizon baten hazia,
andre baten odolaz
isilean mamitua
izan zinan zu ere,
emazte bedeinkatua.

Gizona esatean
andrea ere diot,
gizandreen auzolana;
hur-gainean ditugun
gauza garaien izena.

Nekepean gabiltza
eta ibiliko ere,
laketa nola iritsiko;
elkarren behar, baina
elkar-muturka biziko.

Iduri batekoak,
—koloreak ez aintzat—
sorrera berdinekoak;
ez dakizkigu sortzen
egiazko anaigoak.

Bide ixkutuz sortuak
eta azken berdinerantz:
agertu, ta gero deusez;
bidelagun gindezke,
baina zer gara? Oies.

Gizon baten hazia,
andre baten odolaz
isilean gatzatua.
Gizonak oro anai?
Ametsak nauka zoratua.

JATOR

Giltzaren zilotik dakusat gizona,
duen haunditasun ta biloiztasuna,
odolzale inoizka, bestetan otzana.

Kemen, neurriz ez du inork berdinduko,
abereak ditu gizonak lekuko.
Arriskuari ez dio egin uko.

Urreak darama urrunetaraino,
urratuak ditu itsaso ta laino;
gutizia sartzen zaio barneraino.

Arranditsu bezin apal den umea,
errege dina ta eskale xumea;
negarrez hasteko, edonoiz umea.

Bi besoak ditu prest burrukarako,
hurrengoan zabal anai-laztantzeko;
atzo arrotz zena, geroztik etxeko.

Egingo duena aurretiaz daki:
asmoen sormenak irakin diraki,
oroimenean du lehenaren berri.

Gizona, hitz ona, beti gerta dedin
hitz izengabea zintzotzat jo ezin;
euskaldunak hitza, erregeren berdin.

Hitza ematea, gizonaren maila;
nahiz ta maizenik betebehar zaila.
Argi esan beza: laguna? etsaia?

Ta musu bikoak gertatzen denean,
gizona ez gizon, gure gizartean.
Gaiztoak orbana duke kopetean.

Giltzaren zilotik dakusat gizona:
seme, senar, aita, badu nun egona.
Jatorra denean... gizona, hitz ona.

TTUN TTUN

Berriro ager
ditezenean
ezotuko zait begia,
berriro ager
ditezenean
urdina ta udaberria.

Neguak badu
grina luzea,
ile nahasi ta beltza,
ororen gaindi
olerkariak
mami bezaigu ametsa.

Nik ukan nuen
gurdi bakana,
astun ta kirrinkaria,
nere aitonak
emandakoa,
lege zaharren gurdia.

Bakoitzak badu
bere basetxe,
artzainak goitian borda;
marduldu nahi
nuke hil aurretik
bertso ezilkorren sorta.

Erle ernaiak
badu kemena,
keak goranahi bizi;
gizona naiz ta
gizonen goran
kantuz nahi nuke hasi.

Zure urdinean
egunez hutsa,
gau zohardian izarrak,
mundu zabalak
duen onenaz
nik ahapaldi azkarrak.

Aita ta amaren
biltzetik gatoz
gizaseme eta alaba,
maitetasunak
duen unea
gorrotoaz gainezko da.

Aiton aitonen
jatorri bera
hurrencz hurren dijoa,
gerra ondoren
pake-bideak
bai baitu onerizkoa.

Halatsu nator,
arnak behera,
besoak zabal gihartsu,
gibelkariak
isil ditezen
ta gizarteaz uztartu.

Abar goretan
intxaur gogorra
iraila noiz helduko ote,
halaxe mila
gizon urduri
anai bai, anai ez, daude.

Baldin gizona
hitz ona bada,
behar luke bai, zuhurtu;
bala-burdinak
urtu ondoren
golde ditzagun bihurtu.

Etxe gureko
teilatupean
enarak ditut maitari,
ezerezetik
antolatuta
kokatua dute kabi.

Ezerezetik
ezerezera
heriobide-zirritu,
une bakana,
une gorena
gizonak behar garaitu.

Noski, izanen du
mundu honexek
oneratzeko bidea,
ta anai-elkarte
bilakatuko
gaur motz dugun gizartea.

Berriro ager
ditezenean
alaituko zait bihotza,
berriro ager
ditezenean
euskal pakea ta poza.



ISILAK JAN DITU

1973

Bertso neurtuetan,
orobat askatuetan



Ibarrean dagoen
ola zaharrean
jarduna itoa da
aspaldi batean.
Axola ta lan-hotsa
ahuldu denean
isiliak negua du
esku ezkerrean.

Num dira olaldeko
langile-multzoak,
gogo ta beso gazte
suhar ta beroak
eta neskatxa eder
txori ta usoak?

.. ..

Begiok
itzarrik
zabalik
agiri denez
ohar ezinik,
ikusi zitekeena
ikusgaitz
delarik.

.. ..

Ibaiminez polpol
(amaren bila)
lats hozkila
negarti;
ibarreko
bideetan
belar
eta

sasi
agiri zen oro
guzia
nahasi.

Gizonak dira
munduan,
munduan gizonak,
inoiz baita
anai ere;
hurrena, ordea,
abere,
hortz, erpe.

Gizonak dira ...
diruagaitik alda,
diruagaitik bira.

Nori ez zaio eder
urrearen ditzira?

Bizia,
eguzkia,
ustez
orokar;
bizitzea,
bidea,
estu eta
malkar.

Olaldean lana
etengabeko
oporretan:
gizonik ez da lekuko
gauezko egunetan;
olan ez baita besterik
atezaina baizik.
Zizpaduna,

Ibarrondo hartan
bazen sagastia,
kutsuak joa ta
mihurak atzia.

Amak umontzian
haurttoa iduri,
ilun, isil, barne,
zenbaiten gurari.

Olaldetik hurbil den
herriska latzean
denda-lehioetan
haur begi zoliak
gose-jolasetan;
sudurrak atxikiak
kristalen gainean,
txistu ta dindirriak
ezpain artean.

Ez da solasik
ez da joranik
olaldeko zidorretan.

Uri gizenetan
bideetan
kaleetan
auto ñabarrak dituzte
ezin hartu-ahala,
ibilmin galgala,
fubol-akelarreak
garaitza zabala;
adimen irenduaz
gizaxo apala ...
Eguzkia nora,
zapiak hara.

Beti baitu
berdina
istorioak
muina:
aldegaina
goxo,
minkatsa
girbina.

Zertarako da
ola zaharra,
zaharra denik
zertarako ...?

Obsoletoa
ez da oso,
dezagun berria jaso.

Hor da orube hobe.
Lur arrotzean, ordea.
Ta
makineri
berria,
komputadorez
joria.
Hala sobera dateke
herri-jenderik erdia.

Ogia	Hitza
eta	eta
Hitza	Ogia
aspaldiko	
guraria	
hurrenez hurren	
eskaria	
bakan	
eta	
bikoitza.	

Dituenak eman bitza.

Dendako lehioan
kristala, hautsia.
Haurrek odoletan
zoli karraxia.

Ibarreko sagastian
ez dabil orain txoririk.
Abarrean kokatua
Isila dago, isilik.

Eramanen eta joanen
premiarik ukan?
Jendea ahantzi zen,
isilak ditu jan.

Ez baituzu egin,
enetxo laztana,
ez baituzu egin
aitaren esana:

uka ezazu
zeure burua
ta
u
r
k
a
t
u
a

ez zara izanen.
Per omnia sekula
sekulorum, amen.

Ahantzi duzulako
ene semea,

usagarri direla
uztari ta hedea.

Ta amaren haurmina
berdintsu den arren
etxe ta mahaiak
ez dira izaten.

Dakienak daki
bizibide fina,
irrizuriduna
doilor atsegina.

.. ..

Ametsaren
amets,
ametsa

itzarrik:

zazpi izpiritu
haizetan bildurik ...
Ez zuten gorputzik,
ez zuten hegorik,
txirlarriz ta urrez
eder ta galantik,
hodei txurietan
urdin bihurturik.

.. ..

Ola zaharrak
ordea berri.
Lur aldatuan
dute ezarri,
hormak txukunak,
haizea garbi,
elektronika
buru gidari,
buru horren gain
gizagintari.

Olaldetik urrun
jauregi borobil,
olajaunak badu
nun bizi ta nun hil.

Isilpeko zirenak
nunbaiten arkitu?
Zerualdean hegan
zazpi izpiritu.



GARAIZ

1983

Jasan beharreko

Barneko sakon ilunenean
Eta sua ere
Kalerik zabalenean
Aintzinetan
Rosalia de Castro
Suak harturik jarri nintzen
Zuhaitzak jarri ditu
Bihotz urratuz doa

Ziri edo irri

Zirrin zarran
Joan behar dut, joan
Tiriki tauki
Jainkoa hil dela diote
Gure atea jo dute
Txortxor ari da hor
Halaxen egin ala ez egin
Hor dago alferrarria
Ziria sartu nion
Auzoko etxebizitzan

Haragi loturaz

Eraztuna ezarri nahi izan zidan
Ezetz esan zenidan
Behinola basora eramán ninduzun
Iluna lozorroan dagoela
Beti kalakan jardun
Ixilpekotan, ahopekotan
Itsasoa bare bare zegoen
Trikitrixa

Mahai-azken

Mahats mordoak



JASAN BEHARREKO

BARNEKO SAKON ILUNENEAN

Barneko sakon ilunenean
zerbait dut nik, gizon honek,
 duzu, zuk, gizon horrek
 inoiz geldi dagoena,
baina arrunt samarrean
higibeharra,
mugimendua
 nahi eta behar
 duena.

Ez baitzara lur
 harri
 ur
 hosto
ez haize.

Hala ere
 lurretik hurrerakoa duzu
 zure bidaia,
 harri koskor gogorrez josia
 zure bidea,
 uraren premian eta egarriz
 ibilaldi osoa,
maiz biluzik ibili nahi izan arren,
maiz behar duzu
 lotsaren lagun den hostoa,
eta haizea,
 ai, haizea!
 itoteko arriskuan
sekulakoan bizi baitzan,
—uretan barruan itoteko ere—

sugarren arteko keetan itoteko,
haizerik iragaiten ez den
eztarrian zehar datorren
arriskupean.

Itoteko arriskua sekula santa
zeure egun guztiak
emango dituzulako,
lur
harri
ur
hosto
eta haize
zure aldameneko
zure auzo izango dituzulako.

ETA SUA ERE

Eta sua ere
adiskiderik kutunena
izan du gizonak
aintzinetatik,
ez jakin noiztik.

Egur hezearen ondorengo
den egur igerra,
suharriaren zirt txiker
garraren gurasoa
eta lastoa
haiek bilatu behar izaten zituzten
gizon bizartsu haiek,
andre biloiz haiek
harpe ingurura eramateko,
koba hotzen
intziri izoztua epeltzeko
gizadiaren hurrengorik hurrengoan
iraunarazi,
sortu, jaio, hazi,

piztiak uxatu
eta gorputzak berotzeko.

Larrugorrien gizarte haretan
asmatu zuten modu berezia,

txinparta,
su zabal,
su garra
eta geroago, zuzia.

Iluntasun maindire beltzak erre
eta gauari
bere beso luzeak moztuteko.

Sua

azterkeran gero ta gutxiago
ikusten dugun elementu indartsua,
bero-iturri berriek zaituzte
ordezkotu.

Sua, lehen premia gorria ...
orain, agur sukalde, agur tximinia.
Hala ere, beharrezko zinen hori,
gau hotzen ume,
hor zagoz, hor zabiltz
mendietan, basoetan, etxeetan,
hoteletan, zineetan,
beti hain bildurgarri,

oi, sua, haizearen lagun larri,
uraren etsai, urarekin batean,
denaren garbitzaile berri.

KALERIK ZABALENEAN

Kalerik zabalenean
jendearen aurrean
aitak esku gogorreko
bost atzapar traketsak
seme txikiaren
ipurdi estuaren
mazel bietan
plast plast!
abereki astindu ...

Txikiaren oinazea
bildurra
eta izu-ikara
kolko betea!

Joaneran, ibilian izan zen
zigorketa hori
umeak orduan ihesi aitari
eta eskuaren eskaria
egin zion amari.

Aitak aurrerantz jarraitu zuen,
seme txikiago bat eskutxotik,
aita aurrera zihoan
aurpegia
ilargia bezin kurloa¹,
hutsari begira.

Zigorrez asperturik
ez ote da gure gizadia
etxekoen baratzean ere
mamu gaiztoek
lanean jarteko?

—Aitak jo nau, ama.
—Ikusi dut, seme.
—Eta, zergatik, ama?
—Ez dakit, seme.
—Beti honela, ama?
—...!

Ez nuen entzuna
amaren
ezineko,
zio gabeko
erantzuna.

¹ Kurlo: kurrilo, lertxun.

AINTZINETAN

Aintzinetan
aspaldietan
bikaina ta sendoa zen
euskaldunaren hitza.
Horixe ikasi genuen.

Alferreko zen, dioskue,
eskribauaren papera,
eguneroko lanbidetan,
lotura eta tratuetan.
Hitzekoa. Hura jokaera!

Baina lorrindu egin dugu
hitzak zuen muina, zera,
gazte-munduan gabiltz
atzeko aurrera,
hautsi, apurtu,
laga, ukatu,
eta jo ezerezera.

Horrela jarraituz gero
helduko zaigu zero;
eta ondorean
negarra eta hagin-karraska,
azken etxagerratekoek
izan zuten gosea,
eta premia gorri,
eta janariagatik,
abereen antzera,
amorruzko gatazka.
Ez da txantxeta buruzuri
—“Bihar” — erantzunez eman:
eta biharamonean
huts eman.

Eta hurrengoan,
eta berriro,
eta geroago,
"Bihar" ...
eta egun hori, une hori
betiro heltzear.

Euskaldunaren hitza! ...
Euskaldun ez direnak
orain areago, agian,
gurea zen ibar eta mendian?
Ala hitzak usteldu ote,
gizon deritzotenen
ezpainen artean,
ezpainen azpian?

"...-ren hitza!"
Hilobi zulora da
oihartzun hitsa.

ROSALÍA DE CASTRO

Ehun urte laster
hil zinela,
Rosalia.

Eta nik ezin zu
bizirik ezagutu,
alegia.

Horraitio
ikusi izan zaitut
elederraren lerroetan,
zure animaren negarra
olerkietan
zure barneko indarra,
herrimaite
ta eder-zale.

Obradoiroitik
sartalderantz
Kompostelako
zuhaitz ederren
artean
hor zaituzte
lorerik maiteen.

Hortxe ikusi dut
gizon zahar bat
zure hitzak erabat
bihotzean josita,
harrizko irudiaren
ondoko horma sendoan
dauden lerroak
irakurri eta
geroago

esan eta esan
gero eta gehiago
zure bertso bigunak
zure bertso beroak
harek ahaztu ezinak;
atzerrian bizi den
gizon mardul hura
urtero dakar horra
bere herriminak,
jator den morrinak;
hortxe du saudade
Galeziraturik ere,
zure aurean
esan eta esan
bertso samur,
barren iraultzaile
atzen ezinean.

Oparo erein zenuen
aberriminaren hazia,
ta zoritxarrez ezagutu
mergatz¹ den atzerria.

Hor laga zenigun
inoiz ahitzen ez den
Olertia,
Agur, zuri; txalo, zuri; omen, zuri
Rosalia.

¹ Mergatz: garratz, zakar.

SUAK HARTURIK JARRI NINTZEN

Suak harturik jarri nintzen
esan zidatena
entzun ondorean,
erlabioaren eztena
neukan barruan,
pozoi ta edena
minzor,
ziztakari,
mihia eta eztarria lehor
haizebidea larria.

Ez ezpata eta ez bala zelarik ere
zauriak kabia egin zidan hala ere
neronen haragia,
minezko gai itzulia,
ene itsaso nahasia
ezin eskuratu, ezin bare
jarri inola.

Ustelduko ote zitzaidan
muinaren zola?
Min eta ala eta pena
eltzean egosten,
urdailean bola
gogorra nuen nabari,
estularriaren ondorio soila.

Lobelarra eman zidaten,
lobelar hori nire
onerako omen.

Amen.

ZUHAITZAK JARRI DITU

Zuhaitzak jarri ditu
alkate jaunak,
herriaren nahia
jaso duenak.

Urte luze luzeetan
kaleak zuhaitzik gabe,
lehen zeudenak kenduak
eta berririk jarsteke.

Alkaterik gehienak
kanpoan bizi izaten ziren,
haien birikak garbirik,
hirian soilik sartu irten.

Zuhaitzak jarri ditu
alkate jaunak,
herriaren nahia
jaso duenak.

Hirian hautsa ugari,
orri hezeak txit murriz,
harria eta asfaltoa
zikinezko uholde bits.

Kutsadura eta droga
zahar eta gazteen kalte,
haizebide ta begiak
estulka malkoz daude.

Zuhaitzak jarri ditu
alkate jaunak,
herriaren nahia
jaso duenak.

BIHOTZ URRATUZ DOA

Bihotz urratuz doa
 hurrengo mordoa:
Aspaldietako
 uholde
 hondagarriak
 Bilbo zaharreko
 kaleetako
 denda zahar
 guztiak
 lorrindu
ditu,
ur indartsu
 zirimol sendoen
 bultzadak
 urez bete
 eta gauzez hustu.

Neketan zutik
zegoen zenbait
 etxe zaharkil
 jo eta eratsi
 uraren adarrak
 bai errape aberats
 abuztuko hodeiek!
Hainbat lagun
ito.

 Ibaiak ura goitik behera,
itsasoa uragora betean ...
indarrok elkar hartzean,
lorrinaren lorrina
 ibai ertzean.
Hor dagoz
 denda ilunak, hutsik,

zulo eta harpe iduri,
heze usain sargarria,
lokatza,
ur zikin lirdinga.

Biluzik,
ilun,
hilda, motz
denda guztiak.
Ikusgarri beltz,
ikusgarri arrotz.

ZIRI EDO IRRI

ZIRRIN-ZARRAN

Zirrin-zarran
Zirrin-zarran
zapata zahar beltz bi
kale azaleko
 zolaren ganean
urrats oso ezinik
urrats-erdi.

Oin biren puntan
senide bilakatu diren zapata bi,
adiskide dute ibiltari
makila mehe luzea,
zapata bion
 eta makilaren jabea
 larogei urteko agurea.

Jabe honek galdu zuen
 bere itxura jatorra aspaldi,
hor doa, hor dabil edo hor dago
 erdi egon, erdi ibili;

hezurrez eraikitako
 gaztelu zaharra,
 mihise estalgarri
nagirik ez duen azala.

Zirrin-zarran
zirrin-zarran
 harlauza lauan,
 joan doa? egon dago?

Zapata beltzak
alkarri mosuka ari dira
atergabe,
fereka goxoka,
igurtzi biguinez
zirrin-zarranak
iraun dirauno.

Horraitio,
hari koskorrak
ahalmen indartsua
bere zainetan,
eta zirrin-zarranak
harri koskorren uhin geldia
garaitu ezin
eta horra!
agure gaixoa hankaz gora.

JOAN BEHAR DUT, JOAN

—Joan behar dut,

joan

—Nora?

—Urrunera.

Adiskideak aipatu lehenbizi
eta gero nik galdera.

—Joan, zertarako?

—Joateko, han biziteko.

Nork eman dizu
bizi izateko ahalmena,
han loria ote duzu
eta hemen pena?

Han ere berdin-berdin
agertuko zaizu
ixilik
mustur zikin beltz,
oin puntetan
azkena.

... —“Eta nirekin
txoria eramango dut”—
izan da, geroago,
adiskidearen esana,

—Zein txori

—galdetu diot—.

—Nerea.

—Zedorrena, ala kaiolakoa?

—Karnabaren txorrotxioa
premiatzko dut.
Horrela, urrunean ere
herrialdeko soinu berbera
auzokide.

Eta hor joan da
kaiola borobila eskuetan,
bultzi kankailura.

Haizearen hegoetan
han urruneko lurretan
bere herriko kantua
entzun ustean ...
Auzoko alargunaren
txori karnabak
doinu berdina entzunaraziko
kantu berberean.

TIRIKI TAUKI

Tiriki tauki
tiriki tauki
astegun ordez
jaia eduki.

Izerdiaren etsai
berriketa goxo,
aitak lan egin beza,
ta ni neu, eroso.

Tiriki tauki
tiriki tauki
astegun ordez
jaia eduki.

Ama gelditu gabe
lanean lanean;
alaba, hanka zabal,
erdi lo ohean.

Tiriki tauki
tiriki tauki
astegun ordez
jaia eduki.

Oiloak erroingo du
arraultze borobil,
etxeko mutikoa
gosez ez dadin hil.

Tiriki tauki
tiriki tauki
astegun ordez
jaia eduki.

Garia didate eman
baina irinik ez,
errotara bidea
neronentzat nekez.

Tiriki tauki
tiriki tauki
astegun ordez
jaia eduki.

JAINKOA HIL DELA DIOTE

Jainkoa hil dela
diote, diote;
maitasuna ere
orain hilik ote?

Maite kantuetan
haragia franku,
zakila aipatzen da
mementuz mementu.

Har-eme gosea
besterik ez bada,
gizonaren hutsa
eta atzerakada.

Umeak horrela
ez du maitasunik;
guraso zaharrak
hor daude berdinek.

Jainkoa hil dela
diote, diote,
maitasuna ere
orain hilik ote?

Gizonak ugari
bere ahalmena;
hazia neurripe,
mugadun kemena.

Alferrik gizonak
mugak hautsi nahi,
harroenak ere
urte-soka murri.

Haundikeri hutsal,
gaur harro, bihar txil;
urte guti barru
denok ixil-ixil.

Jainkoa hil dela
diote, diote,
maitasuna ere
betiko hilik ote?

GURE ATEA JO DUTE

Gure atea jo dute.

 Ixilunea etxean.

Berriro ere ate joka,

 berriro ere ekinean.

Norbaitek estura dauka;
guk gizabidea ezin uka.

Bare barea
iriki diot
gure atea.

—Nor zaitut?

—Bildurra.

—Nongoa?

—Edonongoa.

—Zer nahi?

—Aterbea.

—Sar zaitea.

Eta Bildurra bera
bildurtuta
apal-apal dator
bildurtuen artera.

(Uuummm !

Non kokatuko gara

Bildurra bera ere

—musua miserere—

bildurtuengana

begiak izu eta

ikaraz ezpaina

eskale jantzita

datorkigunean,
lorrina usmatuz
azken orenean?

Agian, uholde berri edo
virusen kimika
eta misilen guda
baten ondorean
urlia izaroko
arbola artean?

Hala biz,
noizbaiteko
egunsenti argiz.)

Eta Bildurra bera
bildurtuta
gure haur txikiaren
sehaskan kokoriko
epeltasun goxoan
loak hartu du.

Uxela betiko!

TXORTXOR ARI DA HOR

Txortxor ari da hor
zozo gizona.
Birigarroak xixtu,
ez du azkena.

Txori eder horien
kontzertua
entzun gura ezik
dabil mundua.

Eskopeta iluna
zulo bikoia,
heriotza egarriz
bota tiroa!

Lurgaineko eta
orobat azpiko
misterio guztiak
laster ikasteko
eskolara bidean
jarri gintuzten;
berhala hasi ginan
lanbroak urratzen,
guraso ez jakinen
belzturak argitzen.

Horraitio

haizeak derabilen
orbela bezala
batean hara eta
bestean honera,
ume hazi berri
ibilten ginela

joan zitzaizkigun joan
urte biguinenak.

Ez dakit neronek
orduko nekerik,
letrak ikasten,
erderaz egiten;
ez genuen, noski
maisua euskaldunik.

Hamaika estularri,
hamaika esanezin
lau horma artean;
beharrik, kalean
eta are etxean
amaren hizkuntzaz
arnasa betean.

Eta besten aipuz
inozoak ginen,
tentel atzeratu,
hizketan ez zekiten
ume berbartu
ginen gu;
hizkera bigarrena
guk ikasi ondorean
maisua mihin bakar
genuen bihurtu
harek ez zuen ezer
hitzez aurreratu;
hizkera biren jabe
egin ginenean ere
tentel atzeratuak
ote ginen gu,
hizkuntza bakarreko
makiladun maisu?

Baiman hizkera bakar
ginen aldi txarrean
oporra hurbiltzean
maisua nahi agurtu:

“Usted lo pase bien”:
omen zen formula
gero jakin genuen
baina ez orduan sekula;
eta horregaitik
mutikook geuron saio:

—“Ustela pase bien”
esango ote diogu?
Ez. Itzela kontua
Maisua ustela ..?

—Eztula pase bien?
ote da agurra?

—Baina maisuak orain
ez lehengo eztula.

Eta Kredoan erderaz
kantuz esatean:
“ ... y nació”
(aurreko laguna
behatzez aipatzean
—Inazio, zeu!!)
begiak, keinuka,
ezpainak irrika ...
eta mordoilo kordoilo
Kredoan aurrera:
“Y nació
delá polá poré,
Pontsio Pilato ...
fue ...”

Maisua haserre,
guk elkarri barre.

Zinea ikusten hasi ginen,
sagardotegira joaten,
neskatikoei zirri egiten,
txanponik gabe, jokoak sortzen.

Hegazkada horietan
hasi bezin laster
munduko mila zador
eskui eta ezker;
batzuk ezagutu,
besteetan alfer,
urtean joan doaz
ta ez dakigu ezer.

Xixtuka ari dira mila birigarro,
gizona... astaputza, ero eta harro.

HALAXEN EGIN ALA EZ EGIN

Halaxen egin
ala ez egin,
nekea.
Gizasemeak
edonun
eta edonoiz
mugapea.
Zergatik ez dugu egiten
mihi azkar eroak
aldarrikatzen duena?
Borondateen txapela ere
zuloz betea,
txapel txepela,
eragin epela,
azkena egin baino lehen
heltzen zaigu azkena.

HOR DAGO ALFERRARRIA

Hor dago alferraria
soroaren ertzean,
herdoiaren haginak
kiris-karrask ardatzean.
Lagungarri den tresna hori ere
inork erabilia
ez dela-ta,
inguruan bilduko zaizkio
asun, sasi eta ota,
senide zoliak
alferraren etsai
goiztar bitxiak.

ZIRIA SARTU NION

Ziria sartu nion
lagunaren asmo onari,
haserrekuntza dit
sekulakotz ekarri.

Ez, arren, gezurrik inori:
munduko basamortuan
sartuko baitzara
eta iritsiko
erdeinu ta izurri.

Gezurriari
ebaki sarri
mihia, barrabil
eta belarri,
geroari adi.

AUZOKO ETXEBIZITZAN

Auzoko etxebizitzan
ez dut entzuten orain
haurren negarrik;
bai ordea, maizki,
zakurren zaunkarik.

... Haurrak sortu-ahalean
eta jaio baino lehen
hil egin behar ditugula;
inork ez omen ditu gura.

... Neron berri bilakatuko
ote gara
baina goiztarrago?
Ganibeta,
kaltzetorratz zorrotza
heriotze tresna?

Orain, kimika emaitzak
eskurakoiago;
hala ere batzuetan
odolezko jario,
bizitza-iturria
bilakatu herio.

Gizonaren barruak
zer dio?
Ama izan nahi ez duenak
erraietako umea
etsai, arerio?

Piztiak
egiten
ez duena.

Orain
horrek du
gurean
onespena.

Ondorengorik
ez baldin badugu,
zahartu baino lehen
geure burua ere
hil behar dugu.

Laguntzailerik
ez da izango
eta gizadia
hondamendira
joango.

Agur gure
gizateri zuria.
Hor datorke
berria,
azal ilun
azal horia.

HARAGI LOTURAZ

ERAZTUNA EZARRI NAHI IZAN ZIDAN

Eraztuna ezarri nahi izan zidan
erian,
atzaparrean sartu.

Biribila du ahoa eraztunak,
eguzkiak duen adina,
suzko izpiak jaurtikiteko.

Zilak ere irudi berdina,
eta gizaseme
eta gizalaba
zuloz beterik daude.

Batzuek irteera
eta sarrera ere
badute.

Zuloa,
utziezinezkoa,
premiazko jokoak,
aspaldietakoa.
Seme eta alaba
hortik dator/doa
gizadi osoa.

Zaharrena den
jokoa,
hotza urruntzen duen
beroa,
gorputzeko su eroa
zeharo beharrezkoa.

Inork ez daki jakin
—hor dute papiro zaharrek
aintzinetako hondakin—
lehenetako azalpen luzeak.

Han izan zuten sugeak
zeregin izugarria.

Sugea eta emakumea
gizonaren saihets eta haragia,
lehenbiziko odol-labe

jarraipenaren zutabe,
erro eta iturria;

ilunetako zirrikitu
hainbat egiteren
urrats grinatsuen
ziri eta akuilu
mendeen mende buru.

Bizidun gizon zaharren
eta berrien
etor-zidor bakarra,
harraren zoramena,
emearen eskeintza osoena.

EZETZ ESAN ZENIDAN

Ezetz esan zenidan,
ezetz;
eta orain
hitzaren hegoa
lumatu eta ebaki
nahi duzu berez.

Ilunabarrak,
etxetik ihesi dabilen alaba
erdi zoro, erdi ameslariak
itsutu zizkizun
aldiaren balkoipe haretan
zure begi biak.

Ezetz jaurtiki zenidan
burutik behera,
ezetzaren gorputz
astun trakets,
txatxubera.

Baina nik atzera
bihurtu nizun
hutsaren seme borta den
ezetz zimela.

Zure hitz harroa
ustela zelako
zure ezpainetatik
jaio zan astokiloa,
hutsaren tokorra¹,
neoplasia doilorra.

¹ Tokor: konkor, tontor.

Begietako iturburuei zuk dei egin
uholde amaigabea hasi zedin,
eta niretzat azkena,
itoaren zigorpena
eta auhen, eta andremina.

Baina

astiz eta patxadaz
landu nuen potina
eta batel zapala
—ai, Joxe Miell—
uholdearen ur orori
batelpean eman niezaion pasada,
izterpetik doan pelota galdu bezala.

Ezetz?

Guzurrak hortxe dauka
unero ametsa
andreak ezetza
aho biko ezpata,
txakur nagia zaunka.

BEHINOLA BASORA ERAMAN NINDUZUN

Behinola
basora
eraman ninduzun,
oi, mutil hankaluze
begi arranpalo,
eztia ezpainenetan,
eta irrinoa
xaloetan xalo.

Hango iturritxoan
ardautxo txuria,
kantuz aspertzen ez zen
urrezko txoria,
gazteak dardar daukan
suzko guraria.

Gu ere, bi txori
ginela zuk esan,
alkarregana grinez
geundela segidan,
begi borobilekin
ni zorabiatzen,
sugeak txoritxoan
galtzen du holaxen.

Berehala oinetan
bihurritu zintzakidan,
aihen belarra bezala,
eta iztarretan
eta gorago ere,
erdirago ere;
zure bi besoak
nire garri biran,
estutzen, estutzen

orrika antzean,
eta titi nereak
jarri haizetan,
sabelpea biluzi
izkepot¹ egin nuen
hantxen lehenbizi.

Oi, mutil hankaluze
begi arranpalo,
zuk basora ninduzun
loreak biltzera
nerea hantxe urratu
ta itzuli etxera;
irrinotetan xalo,
eginetan zapailo,
maltzurki zuk bilatu
munduko aukera
eta geroago, zikin horrek,
ihesi urrumera.

¹ Izkepot: koito, alukeria.

ILUNA LOZORROAN DAGOELA

Iluna lozorroan dagoela
izan dugu oilarite;
izarrek bidezorroa gertu
eta ihes egin dute.

Txurigorri ekialdean
zeruaren ezpainak,
hodeiak ziegan preso,
argiegarri arrainak.

Ohe epelean senar-emazte
gaueko atseginean;
jeiki beharra den nahaste!
eguna zabaltzean.

Dinbi danba jotzaile,
dorreko kanpaia,
astegun buruzuri,
behar nuke jaia.

Zeregin hoberik ez
al du inork zertu?
Tresnak hartzeko nagi,
mahairako gertu.

Ohe epelean senar-emazte,
goizeko atseginean;
jeiki beharra den nahaste!
goiza mardotzean.

Urregorri ekialdean
zeruaren sabaia,
arrainek dantzaketa,
beroaren nahia.

Oilarite urrun dago,
urrunago iluna;
lan emankorrerako hor du
gizonak eguna.

BETI KALAKAN JARDUN

Beti kakalan jardun
behar al duzue?

Senarrak baietz.

Emazteak ezetz ...

Munduaren ertz
guztiak ezin elkarrengana.

Zetaren hegal zitalak
hegazkada errazean darama
emaztearen grinaren
beso okerra.

Geroago gatazka,
burruka gorri,
borondatea alfer da
suaren garrak bazterrak
gorri jarriko.

Ene aspaldiko maamin
auzo eta aldameneko
egunezko duzuen gerla
gauean
ohean
ez ote baketuko?

Hala balitz

ene agur gozo,
barneko diosala
zuentzat, eskuak zabalik,
eguneroko gerlari
senar-emazte
elkarri muxin egitea
alferrekö duzuela.

IXILPEKOTAN, AHOPEKOTAN

Ixilpekotan,
ahopekotan
zu eta ni eskilarapean,
besterengandik
hurbil eta urrun
ilunabarrean
egunaren argiez zurrun.

Etorkizunerako
aterkina landuz,
ezpainak laztanduz
begiak erdi lo,
eskuak urduri
elkarren garri
ingurua neurtuz.

Maiteek zeruan
sartu hurren direnean
saguzarra hegaz ixil
kale estu beltzean.

Zure atadia
hiriko ederren
niretzat behinik behin;
hortxe baititugu gauero
hizketa alai, ero,
bi txori txotindu
baikinen.

Orduan, agur, minen
oroipen oro,
zorionez mozkor,
grinak erne, bero.

Horraitio

erloju kaskagogorrek
ez du nekerik,
ez du nagirik,
bai ordea
akuilu zorrotzik.

—Maitea... maite ete nauzu?

—Xoroko, xoroko,
zure haragia
ernerik al duzu?
orain ez da ordu,
ezkontzerakoan
biok bateratsu,
zuk hartu, nik eman,
nik eman, zuk hartu.

Eta gero goxoki, gogara,
batasuna lortu.

ITSASOA BARE BARE ZEGOEN

Itsasoa
bare bare zegoen
zilarrezko goiz hartan,
ikusi zintuzten
uhinen gaínean,
bikini zinta fina
titierdipean,
bikini zapi zorrotza
estu estu izartean;
zure beste guztia
ageri, aidean,
ikusterrean,
nornahiren
atsegínean,
itsasoa
bare bare
zegoenean,
Afrodita
berratuaren
antzean,
uhinaren gainak
—probalari jator—

gora eta gora
jaso zinduzanean,
giza gazteen
haragi berberak
dardarazten
zenituanean
eguzki jaunaren
labe-izpípean
ikusi zintuzten
eta zuk horixe
nahi izan zenuen,
norbait zure sarera
—amodio ta lera—
eramatearren.

Itsas musturra
irri eta barre
bero eta bare
izter zabal
zebilenean,
miazketa leunez
hondartza ertzean.

TRIKITRIXA

Goierrin neskatxa bat
ikusi nik dantzan
halakorik besterik
ez zegoen plazan.

Begi urdinak zeuzkan
garría liraina,
azkarrago ez noski
uretan arraina.

Loretan hark ahoa
irriñoa beti,
haren moxu beroa
ai, zeinek merezi?

Auzoko mutikoek
burrukan, burrukan
guztiak nahi zuten
neskatxa eraman.

Amatxoren alabak
amets handietan,
maiteak omen ditu,
maiteak parrastan.

Goierriko neskatxa
ilunabarrean
ezkondu batek dauka
besoen artean.

Besoen artean ta
jantziz arinegi,
ehiztari maltzurak
horra hor bi erbi.

MAHAI-AZKEN

MAHATS MORDOAK

Mahats mordoak
ekarri dizkirate,
Nafarroakoak dira.
Beltz beltz, borobil
baina ale luzangak,
azalak diztira.

Udazkenak dakar
gure begira
lurraren emaitz bipil,
aho-sabaiaren
gurari ta premien
asegailu pinpirin.

Mahats ederra.
Hiruzpalau orri iger
tabaku kolore,
apaingarri uzter,
mordoen artean
ñabardura ore.

Saski
txairoan
zapi
mordo,
batzuk handi,
besteak txiki,
alez
bete-beteak
oro.

Txorten heze,
kiribil,
txorten iger,
hauen aleak
gozoen
txikortu
baino lehen.

Larrazken
honetako
bodegoi,
begion
zorionerako.

Saski orlegian
txorten igerrak.


Mahats ederra.
Ederra, mahatsa!

TXORTEA
(Hamar aginduak)

1985

Lehenengoa
Bigarrena
Hirugarrena
Laugarrena
Bosgarrena

Seigarrena
Zazpigarrena
Zortzigarrena
Bederatzigarrena
Hamargarrena



LEHENENGOA

JAUNA maite izan egizu
bihotz bihotzez.

Ez da beste Urtzirik.
Ortzea berea dau,
izarrak eta munduak
hutsarteak
lehorrak eta itsasoak
lotzen ditu
berbearen doinu hutsez
betikotasunean.

Maite izan egizu
eta goratu
eta autortu
zure erraietako adorez.

Hasierarik ez dau,
ezta amairik be.
Gure ezjakintasuna
Harek leigu bete.
Harek,
beste inork ez.

Bera da berez DANA,
bestek ezer emon bakoa.
Besteok Hagandik
lortu dogu izate osoa,
behin behineko gorputzez.
Horraitio, betirakoa
gure gogoa
Harek emonikoa.
Menpekoa
zarenez gero,
maite izan behar
Jaungoikoa.

Biziaren jabea,
emoilea.

Lotsabagea
gizonaren biraoa:
nor da Jainkoa?
nun dago?
Hori idatzi dauan
burumuina ta eskua
laster lurreko harrak
ezereztuko.
Harraren sabelak irribarre.
Jaungoikoa bare bare,
Biraotia hauts, hare.

Ez da Jainkorik!
Hil zan!
Gure bizkarrera gaua.

JAUNA beti da eguna,
izanaren guna,
Aldia Harentzat
ez da urruna,
hortxe dauka
ezker eskuma
betearen betea;

Hutsaren lurruna
ostera, gure amesa,
une bateko
gure jorana.

Agingdua da hau ber,
hauxe dozu agindua:

Maite izan egizu
Jaungoiko santua.

Horixe domua
betirako eratua.

Ikusi ezinak ditugun
urteen azpian
okertu egiten
gure bizkarra,
—hazurraren gogorra!—
gure burua;
gure bularra estutzean
haizebidea murritzua.

Ta nun ete zagozan
edota inun ete zagozan
itomenean gure garunak
erreta,
itaune zoroetan
gure barruko errota
zahar eta nagia.

“Nun da zure Jainkoa?...”
antzinarik idatzia.

Harroa!
zure haragiaren jale
laster bai laster
mamorroa.

Ortozik gabiltz;
lurreko, bideko
harri kozkorrak
min egiten deuskue
oinpean.
Kolkoan larriaren larria,
geroaren bildurra,
kezka iturria.

Itsasoko eta ibaiko uretan
ito gaitkez,
haizea eiho ezinez
tontor gailur gorenetan.

Esnerik esne gabiltz
abereok, eta landarak.
Jaunaren begiak ez dau ertzik,
Haren eskuak darabil
munduen ibilera,
gauza guztiek dabe legea,
edozerk dau bidea,
izarren zidorrak,
itsaso ta lehorretako
ekatxak;
lurrekoak hazi,
geldi hatxak.

Haizea dan haizea,
haize ez dan haizea,
eta ezkutuan
lurraren barruan
ito ezina dan sua,

Izarren dirdiza,
eguzkiaren pausua.

horra hor
JABEAREN eskua.

Non da gizon biraotia?
non bere aurretikoak?

Hazur eske dagoz beti
zuloak.

Gizona dan zirtzila,
nora zoaz jakituriaren bila?
zure irakaslea
gizon zuhur baina oskila—
aspaldian hila.
Harainegun seiná,
atzo, agure;
gaur hutsa aina.

Aspaldietako dan IZAKIA,
amaituko ez dana,
Betirauna
JAUNA.

Maite izan egizu
Izatea bera,
Jabea,
Egilea,
Bat da eta Bakarra.
Beste edonor
soilik geidea¹.

¹ Geide: lagun hurko.

BIGARRENA

Gizonak birao
—txakurrak halantxe zaunka—
Horraitio Jaunak
 gizon kaxkarrari
 askatasuna emon,
 eskeini.

Gizona ez doa
 heriotzatik asago.
 Hor dago
 estura barik, egonarriz
 JABE.

Haren barri
—alperrik guzurrik esan—
 guztiek dabe.
Haren izana maitagarri
adiskide dogunean.
Haren izena bildugarri
okerrean laprast
 egiten dugunean.

Zerua garbi dagoenean,
sari askotan
 gizonaren adimenean
 hodei, laino, lanbro

Hemengo barri dauala uste,
 baina ez hango.

Lurraren mugan zerua,
txikerra gizonaren burua.

Baina sudurpean dauka ahoa
—ahoa mihina—
ta mihinean biraoa.

Gizona, zorritz ta zorrez betea,
biloizik jaioa,
daukana hemen aurkitu dau.
Bat besterik ez da
—bere ustez lau—
eta laster, ezer be ez.

Bitartean, mihin zikina,
edena ta pipermina.
Birao bitartez dakarz
ondasun bako kalteak,
ez dau laborerik eihoten
biraotiaren erroteak.
Harri artean harria,
ez artoa ta ez garia.

Ura joan doa / ta onurarik ez
solo madarikatuan / bizar hutsa
halakoaren galburua.

Baina Jaunaren izena / Santua.
Biraoa / ez da ahoan erabiltekoa.
Itsumenaren larria / horrek dakar
hondamendia.

Hutsaren hurrengoa
hilobikoen bazkari ta afari;
azterrena be galdu da, itzali.

Kittu.

Geroetan be eguzkiak
bazterrak berotuko ditu.

HIRUGARRENA

Jaiegunak, jai.

Maite dozunaren gomutaz
biziko zara,
uneak ta orduak
hari eskeiniko,
goizeko guraria,
eguerdiko intziria
gaueko amesa,
guzti hori
zeure ideko besterik
ez danari.

Halan be
maiteen izan behar dozuna
guztiakandik berezia da,
guztiak batera be
haren neurriak
ez dabenean;
orduan, zure maitasunean
alde handiak sortzen dira.

Munduko jentea
bira eta bira,
gaur argitara
bihar ilunera,
lehenari begira,
eta eutsi ezin,
oraina gelditu gura
eta alperrik,
etorkizunaz jabetu nahi
eta ez izan biharko
egunaren segurantzarik.

Bitartean, iretargiak
astiro, mailakiro,
ilbehera
eta ilgora.

Nora zoaz, gizona, nora?
Egutegia ugartu al jatzu?

Ai, Jaunaren eguna
jai egingo dozu,
aste osoko nekea
bego bazterrean,
larazpean su barria sortuko,
eta arimeak ames,
gorputzak atsedean
egin bitartean.

Jaunaren eguna
altara ingurura
heltzeko izango dozu,
otoi eta errezu,
neke ta oparia,
orduan asebeten
arimearen egarria.

Jaunari otoia
la lurruna,
ta barruko kezka
eta eskerrona
eskeintzen
hatxurdinezko¹
altara ganean,
kanpai artean
lilurea irudimenean,
lorak alboetan.

¹ Hatxurdin: marmol.

Gizonak bere gorputza
eta adimena
atseden aldakorrez
igurtzi behar dau.

Jaungoikoa onestea,
goratzea
egin behar gozatsua,
kandela isiotua
garbitasunaren zuzia,
lan arazoetaz opor txikia,
beioa intsentsua
zeruruntz zeruruntz,
bide erakusle
apal, zuhur, ezaria.

Jaiegunak
beste usain bat dauka, beste
giro. Gizagirotu huts baledi,
gizartearen porrotaldi.

Jai, jaio,
igon, igonde.
Berebila
Jaunaren arerio?

Biderik bide doa gizona,
joan eta joan.
Jauna edonon dauka
gura ezkeron.

Izpiritu nekatua narrugorri,
ihes egin gura ete deusazu
zeure Jaun dan Jaun horri?

Aldaratxu bat hortxe,
bihotzean,
betirako erreditua
etorkizunean.

LAUGARRENA

Mundu latz honetan
zeintzuk dozuz hurkoenak?
Aita eta ama
berez ohi dana.

Zu jaio baino lehen
maite izan zaitue,
horrelan ez danean
okerra dogu hemen;
ez da gizalege,
jardun modu zazkar,
jardun modu abere.

Amak aitari esan deutsanean:
—Seina daukat sabelean ...

Aita urrunera begira
horra hor kantari,
aita dala jakin dau,
pozgarri dan barri.

Agertuko danarentzat
soineko txikerrak egiten
hasiko da ama,
troxak, alkondaratxu,
oinetako bigun,
artulezko jantzi
eta kapa zuri.
Amama
horretan lagun.

Ixilean dagoana
hilabeteak joan-ahala
zelanbait argitara.

Ama hazurbarri dagoanean
auzoko andreak susmatuko,
seinak bere lekua
handiagotuko,
berbera hazten dan ginoan.

Senideen aho-minetan
bala-bala doa albistea.
Aitita izango danak
amamari ziri:
—Amama izango zara...
—Agurearen ganorea—
amamaren berbetea,
edozeinek ezin lei
beste hainbeste esan.

—Amama harroa.
—Agure zoroa!

Hori ondo! Ez da
alperrik galdu hazia;
zabaldu bedi askazia,
eta lureko bazterretera
betor ostera be, bizia.

Jaio baino lehen,
jaioeran
eta harrezkero
seina
ume eta gizon edo andrea
egin bitartean,
izerdiz eta lanez,
arduraz ete nekez
gurasoak ume dau haziko.

Neskato, mutiko
etxeko lora
ta nini begiko.

Horren ondorio
umeak bere gurasoa
—aita, ama—
beti ederretsiko.

Lotsa ta begiramen
urteen
urtetan.

Aita,
ama...
bakarrak dira,
Jainkoa aina.

Munduko laguna
aldakor daiteke.

Aita eta ama
maite izan egizuz,
maite,
maite.

Horren sari biribila
ezarian
urte luzeetan
zure bihotzera daite.

BOSGARRENA

Ez dozu inor hilgo.
Ez dozu inor hilgo.

Bizi izateko eskubidea
zeuk be, izan dagizun.

Ez dozu inor hilgo.

Ni bizirik
zu bizirik,
zu bizirik
ni bizirik,

gaixoak edo ezbeharrak
zu
lo
ra
eroan gagizan arte.

Ez da beste legerik:
gorde dagigun geure arnasea,
gorde, auzokoarena,
indarkeriaz inor hil bagarik.

Sortu ez danaren
barri ez dakigu;
sortu dan edozein
lagun hurko bekigu.

Ni bizirik
baita zu be,
hasarreak gorabehera
bakotxak berak
lo-ohe.

Hobirik ez inori
lurpera baino lehen
eskeini.

Bizi nahi dozu, bizi;
auzokoari, beraz,
baketan itxi.
Batez be bizi-haria
inori
ez esku gogorrez
eta ezta izkilu gogorrez
edo edenez
eten.

Hor dihardu
osagileak,
hor dihardu
gaixo jagoleak
askoren bizia gordeten.

Emon ez deutzazunik
ezin zineio
inori kendu.

Ez inori moztu,
ez inori ebagi
bizi izateko guraria:
Amaren erraietan
dagoan sein
sortubarria
gogortu gura?

Zeuri beste hainbeste
egin izan baleutsue
ez izango ardura?

“Gura izan bako seme
edo alaba...”
zeu maite izan zaituela
egia al da?

“Niri baimenik eskatzeke
ekarri ninduen mundura”
orduan, zegaitik
nahi duzu munduan bizi?

Aita izatea,
ama izatea
gura ez badozu....

zeu bazaranez
zegaitik ez nahi
besterik izatea?

Doilorra dozu
barruko setea,
kriminala
zure asmoa
ta arnasea.

Munduko poz berezia
seme-alabak jaiotean.
Ezin lorarik erne
lur zazkar idorrean.

Zein amak ukatuko
erraietako seinari
bularretako emoia,
bai jantzi, bai janari
ta etxeko sehaska epel guri?

Ez dozu inor hilgo.
Haziak behar dau
bere giro,
bere aro,
bere ildo.

Eta gero,
bere lora ta frutua.

Seme-alabea dozu
fruturik ederrena.
Hau honelan ez balitz,
gizadiaren azkena.

Jauna zeruan;
gizona lurrean
kideen artean,
Jainkoa goratzen
ta alkarri laguntzen.

SEIGARRENA

OSASUNAZ arduratutea
gizonaren birtutea.

Gorputzeko
zer guztiak
oso eta jardunkor
izatea,
osasunaren asmoa
ta gogo betea.

Gau ta egun
uneoroko jarduna
dogu arnasea,
odolaren bide egokia,
janarien eihote,
garnuaren ixuria;
barruan kaltegarri
ditugun unetik gora
kanpora
hondakin ustelak egotzi.

Unada sarri samarretan,
lan bitarteetan
janaria ta edaria
ahora,
izateak adierazoten
deuskun premineari
gagozan beti adi,
soina indartzeari
dagokionez.

Jan,
lan,
ibili,

egon,
hartu,
emon;
indarketen ostean
atseden,
gauero
lo betea.
Ixilak
eta ilunak
abaro gozo eskeintzen,
ohe bigun,
egote guri,
amesaren lurrun.

Iraupena aina
jarraipena ere,
legepean dira
landara ta abere;
zelako legeak,
zelako bideak ...
hor dogu genetika:
Jaunak batean egina
gizonak ikasi
zatika.

Gizasemeagandik
gizalabeagandik
abere nagusion
jarraipena:
aitagai
amagai
diranek dabe
hazia,
hazi berezia
nunbaiten gorderik.

Ez begi inork alferrik
galdu hazi eder hori.
Antzua dan itzel,
heriotzearen irudi.

Paradisuko ames
lilurazkoa,
sagastia izan bedi,
betirakoa,
gizakiak ez begio uko egin
sortzaile izateari.

Sortu daiken bakarra
seina dalako,
beste gauza guztiak
munduan bilatuko.

Seme-alabak sortzea
Jaunaren ahalmena
gizonagan zabaltzea
izanik,
gizonak,
emakumeak
egikizun
bikain horri
uko ...
zelanik?

Ez edonon,
ez edonoiz,
ez edozein
alkarregaz batu,
eta ondorengoaren
izate izankorra
bertan behera hon-
datu.

Bikote jakina
haragiz batzea,
agindu estutzat
dau etsi
gizarteak
lotsabagarik.

—Kaxio ...
ta berrero bere,
fornicatio.

Labeak beroa
beroa dau,
ez zaitetz lar erre,
egun eta gau.
Haragi laba horretan
narru jokia
noiz azkenetan?

ZAZPICARRENA

Ez inori ostu.
Ez zaitez lapurra izan.

Burua sorbalda ganean,
eskua eskuturrean,
begiak bekokipean.

Txoriak egiten dauana
egiteko gertu,
inorena dana bere
norberetzat hartu;
eskuak bost atzamar
estutzeko ditu,
barruratu ondoren
bestez ez errukitu.

Eskua dan tresna
 azkarra!
burua dau
 agintari bakarra.
Gurari bizia
sortzen jakunean,
grinearen ilintia
gori gori;
daukanak ez daukanari?
Bai zera!

Ez daukanak daukanari
lakirioa jarri,
ta auzokoarena
etxera ekarri.

Seigarrenean orain
aukera ugari,

zazpigarrenan bere
lapur eskola barri.
Gerra ostean zeinek ez dau
liburu nabarrean ikasi?

“Inortxu ez bedi jabea,
jaberik ez da behar ...
Oihartzun zaratatsuko
edozeinen deadar”.

Ugazaba guztiak
infernuko sutara,
gauzen jabetasuna
edozeinen gogara,
biloizik jaioko gara,
zu ni baino gehiago
zetan, zetarik
eta zegaitik zara?
Betor iraultza gorria
ta Paradisu barria,
odol urdinak zulora,
zure jauregia
 neure solora.
Burgesia doilor
eta zikin,
barru barrutik guk iguin.
Atsegin jaku, horraitio.
garatz oneko zatikin.

Lurrak, olak, ontziak
urre zuri ta gorriak
eginda dagozan guztiak;
abelgorri eta ardiak,
iraultzarako hautetsiak.

Narrugorri lagako neuke
auzoko gizon eukitsua,
jakin dagian zelakoa dan
famili txiro behartsua.

Lan eginez irabazia?
Lapurreta garbia,
langilearen izerdia
batzuentzat diru-iturria.

Gaztetako intziriak,
zaharzaroruntz
itzuliak.

Nire sendia, nire etxea,
nire libretea,
ta beribila,
zapatu gauetako
afari biribila,
domeketako
ibilera zibila.

Eskubidea nagusi,
Jaungoikoaren igesi
komeni danean.

Eskubidea bai,
lapurretea ez.
Zazpigarrenak dinoan lez.

Eskua eta
aginpidea,
arrisku handiko arrisku betea,
eskuak lohituteko
aukera errimeca,
kontu zikinetan
errezto sartzea.
Lapurrraren erpea
infernurako atea.

ZORTZIGARRENA

LEKUKOTASUN ustela, ai.
testigantza irotua,
guzurrak dauka geihenik
erdi galdurik mundua.

Iraute luzea izan ohi dau
guzurrak estalirik
halantxe bitxitxuek
esteetan sarturik.

Ibili dabilenean
gutziz bizkorra da
(guzurra);
egia astiro doa
astunagoa dau hegoa,
guzurrak eperdi laburra,
nagiagoa txakurra.

Guzurraren putz arina
entzun eta kolkoan gordeko,
egia esturabaga datorrenean
lekurik ez aurkituko.

Ahotik belarrira
ebilen lehenago,
orain paperetan,
irratietan,
diskoetan
laster jatortzu etxeraino,
nahiz ozkarbi, nahiz laino.

Guzurtia indartsua da
goma-2 aina,
bildurra sortuko dau,

horretarako dau maina,
ez dan zerez beteko ditu
kale, etxe ta larraina.

—Guzurra
zegan salduko deustazu?

—Egia baino merkeago;
ez dauka pixurik,
ez dauka taiurik,
hegan doa hegan,
munduaren biran.

Norbaitek uko egingo,
besteak irunsi,
amesezko soinekoz
errezkiro jantzi.
Zorrotza dan burduntzi,
burduntzi zorrotza,
horrelan lorrindu eben
gure neskamotza,
ez zala zotza,
bazala zotza,
labako atea edegi eta
barrura malmutza.

Arlote gutzizkoa da,
begiak txikerrak,
ardi zurien artean
hor datoz akerrak.

Akerraren usaina
sundea da, hatsa:
larrean jarri eben
iperdia nabarmen,
agerian izanik

adar okerrak eta
buztan eta isatsa.

Guzurrari dario
antzeko sundea,
behin errez sartua
bigarreanean meke meko
laster baztertua.

Hamaika hamaika ta erdiko
testigantza ustelez.
Bestek galduko zaitu,
zeuk inor galdu dozun lez.

Dinbili danbala doa
guzurraren guzurrez
gizonen mundua.

Noizbait galduko dau
kilikoloko zimendua.

Gizartean sarri
txerpolaria¹ nagusi,
horraitio,
hari ganetik jausieran
bizkarrazurra hausi.

Alaubre ganeko
orekaria
—gizarteko guzurtia—
osineko urak
iruntsi.

Esanak esan
guzurrak badau
oraindio ere
garrantzi.

Basamortuko haizeak oihu:
Guzurrik ez dozu
esan behar.

Adanen semeak,
Ebaren alabeak
alperreko berba
eta negar.

Guzurra nahi
eta behar.

¹ Txerpolari: itzulipurdikari, akrobata.

BEDERATZIGARRENA

KONTUZ adiskide,
gizakide laztan,
seigarrena baino
estuago ez ete dan
agindu zehatz hau;
aldapea ez da lau.

Zaindu zure gorputza,
gorde zure adarra
gizona ta bizarra;
jagon zure lorea,
emakumea,
ez lar berotu labea,
senar bedi senarra,
ta emaztea, emaztea.

Ez da inorentzat be ona
haragi lar asea,
ez da gizakientzat onurakor
eten bako haragi gosea.

Gizona baino bekatsuago dau
abereak narruaren sena,
gizonak hor ditu irudimena,
irudia, marrazkia, begia,
ikutua ta irakurpena,
grinea, labea ta oroimena.

Arriskua dauka kalean,
etxean, lanean,
bidean,
arriskua eleiz-ostean,
arriskua ohean,
hondartza urretsuan,

saloi ederrean,
pinadi ilunean,
eguzki aldian
eta iretargipean.
Norberago dau-ta
eukitekoa,
batak nahi besteak
zertzekoa,
auzokoa beti
guragarriagoa.

Hiztegi zaharreko
haragiaren garramura,
guraso zaharrekandik
dogun lotura
baztertugatxa.
Legea jagotean
egokitasuna,
zintzotasuna
hortxe datza.

Bakotxak berea zaindu,
emoniko berba sakona;
narrutruke jokoa
ez da bidezko ez ona.

Nahastauriko
estalkideetan
gatxaren eriona
kutsu lizunetan.

Bakotxak bere kidea,
horixe dozu legea.

Kutsu barria hasi da,
heriobide dan SIDA:
Sodoma eta Lesboskoen
istorioa ahantzia;
bata bat, bestea biga.
beranduegi danean
alperrekoa kupida,
lorerik ederrena
errezto daiteke higa.

Bakotxak berak zaindu beharra
serrailea eta mina,
kutsu ostean
arnasea eten,
kanpantorrean txilina.

Norantza doa arima?
gure arima arina.
Horixe jakin ezina.

Senideentzat samina,
gorputzarentzat lorrina.
Har gosekilek, kezka artean,
ez dabe bazkari fina.

“Horrelakorik ez zan pasauko
geldirik egon bazina ...”

HAMARGARRENA

ZEURE ondasunak
zeure badira,
laga besteenak
besteren;
euki-gurearen garra
lagaten dauanak
ez dau inoiz izango
hasarrerik hemen.

Nahi izan neban, nahi,
emazte ederra,
urrez ta haragiz betea;
gitxien uste nebanean
adiskidearen etxean
aurkitu neban
emaztearen atorrea.
Nor izan zan eroan ebena?
Haizea.

Nahi izan neban, nahi,
senar aberatsa,
entzute handikoa
ta fina (berakatz);
lortu nebala-ta nengoanean
jakin neban barri latza,
auzo herrian eukala
nirea ez zan lakatza.

Zure ondasunak
zeure badira,
laga besteenak
besteren;
presentzia ugariak
han eta hor
gauetz mamuak
ditue sortzen.

Lur gizen hareek,
jauregi hori,
katanarru betea,
emazte guri
guztiak atsegin jataz,
atsegin niri.

Erosi prakak,
erosi gonak,
auzoko ohe,
etxe ta txoznak.
Guraria bete,
ezkontzak apurtu,
politika usainez
eukiak lapurtu.

Gerraldi batez, bai,
baliatu zinan,
gizon zazkar hori,
emazte ezpan lodi;
inorenaz jabe
egiteko ordua,
sasoian sasoiko,
okerrak dordua.

Zeure ondasunak zeure badira,
laga besteenak besteren,
begiramen ordez
gorroto hagin baltza,
niretzat esnea,
zuretzat korotza.

Halantxe dagoz gaur
han, hor eta hemen,
zedenak jandako
zur eta oholak.

Barriro berotu
dira odolak,
erre, hil, kendu,
goseak gogortu
daizala makalak,
narrugorri lagako
asko ta asko,
ikusezinak diran
multinazionalak,
daukez dirua,
indarra
eta mundu uhalak.

Laga jabeari
zeurea ez dana,
agindu hau beteten
gure gizaldi honek
izango dau lana.

HAMAR AGINDUAK ORRIALDE BATEN


(Zortziko txikian)

Hamar asko izan arren
orrialde baten
aginduak errezto
ditu Jaunak sartzen:
Bera goralduten gu
saiatu gaitezen,
ta hurko lagunagaz
ondo konponduten.

GAZTEZAROKO ELE ARINAK

1985

Lirika
Zirika



LIRIKA

AMATXOREKIN
elizara joaten zinenetik
ezagutzen zaitut,
jauregiko neskatxa,
urrun urrunetik.

Zuk, ordea,
ez ni ezagutzen.

Zure aldamenetik
kalean eta elizan
iragaiten nintzen;
ni koruan kantari
eta zu entzuten,
ez zenuen jakin
nola nizun begiratzen.

Ur bedeinkatua
apalik eskaintzen nizun
aukera guztietan,
ama zuenak
garratz, aholkua:

—Mutiko mukizuei
ez kasurik, Txune.
Zaldizkoa dagokizu,
oinezkoa... ezune.

Jauregiko neskatxa zu,
handiki-mandiki,
odol urdina agian
zainetan iduki.
Urrea eta zilarra
gorderik moltsetan,
ta leinu goitiarra
paper zaharretan.

Ama hil zitzaizunean
ta aita erbesteratu,
geroztik duzu, Txune,
mundua ezagutu.

Berriro hasi nintzen
ur bedeinkatua
maitasarez eskaintzen,
erdi bildurrez soa,
dardarez eskua.

Behin eskularrua
zitzaizun erori,
biok makurtu eta
zure masailak nerea
gozaro igurtzi.

—Eskerrik asko
esan zenidan;
esku zuriskak
atsegin nigan.

—Zure izena Txune
dela nik badakit.

—Eta zurea, nola?
Ba al duzu izenik?

—Hori gutiena da,
jauregiko nexka.
Zure bakartadeak
ematen dit kezka.

—Oi, mutil begi eder,
xerlo¹ gorriskara.
Inork ez dit aipatu.
Lehena zu zara.

Corri-gorri jarri nintzen,
ta zu ixilik, Txune;
ahantzi ezinik dudan
sentimentu abagune.

Hainbat egunez nizun
ur bedeinkatua eman,
elkarrenganako haizea
inguruan hegan.

Ohi zenuen
eztizko irrifarra
egunto batez zitzaizun
ezagunean ilundu,
aldakuntzaren
erpe zorrotzak
zintuen, noski,
iraindu.

Arnasaldi batez
atzerapena nuen
marruskatu,
ta apalki nizun galdetu:

—Txune, Txunetxo,
zergatik zagoz itunik?
Niretzat ez da
hiri honetan
zu bezalako lagunik.

—Eskerrik asko,
ene Belasko—
erantzun zenidan,
negarra begian.
Bai ona zarela!
Aita gogorak
eramango nau,
ezkonduko nau
atzerrian.

Biharamonean
eta hurrengoan
eta geroetan,
ez zintudan ikusten,
jauregiko nexka,
elizateetan,
ez kaleetan.

Jauregiko neskatxa
ezagutu zaitut,
zure oroimenean
arima saminean
bertso minberatsuok
idatziak ditut.

¹ Xerlo: txima, zapa.

AITONARENEAN zegoen
erloju luze
Jourdain lerdena
egitan begiko zitzaidan.
Atsegin hura ahaztu ezin,
din, din, din ...
luze luzeak, oihartzunez,
pasiloan barrena.

Hitz egiten zidala
uste izaten nuen,
irrifar gozo,
behin eta berriz
mintzo zoli
din, din, din ...

Orain poz hura,
atsegin berbera
ta are hobea,
zuk ematen didazu,
maitea.

Orain, zeu zaitut
erloju kantaria,
soinuz betetzen nauen
durundia,
dirdir egiten didan
goizizar txuria.

Tamala izan nuen
aitonaren Jourdain-a
erre zenean.
Zu galduko bazintut,
ene enetxo hori,
leze beltzera naiteke,
atzenik ez duen gau ilunean.

ICARLE, vate edo poeta,
zure barruan zer duzu gordeta,
emakumeen gogoak
horrela xoratzeko?
Zer duzu begian
mundu berezi bat
horrela ikusteko?
Zer du berezirik
zure entzumenak,
soinu berriak
guri emateko?

Zeuk entzun duzu
lehenbizi
hiriko berria,
ta txundituta dago
zugaitik herria.

Esan egidazu,
esan zuk, poeta,
maiteminez bainago
zeharo erreta ...

—Maite-iturria?
Ez goiko mendian,
ez sarobean,
ez bidertzean.
Iturri hori,
gazteño,
zeure bihotzean.

GURASOEN etxean
nire gela bakarrean,
ohe apalean
nagoenean
ene ametsen lilura!
Ta gogoaren ardura,
ezagutzen ez dudan
maiteberriaren
mintzoa ta itxura
nolakoa ote den.
Zer darabilt nik hemen ...!

Arimaz aingeru,
itxuraz liraina,
goitik behera eder,
moduz bikaina;
haurren amatxo laztan
izateko dina.

Hiritar neskatxa,
ala erbesteko?
hemen dut mihisea
asmamena janzteko.

Loregiro ondoko
haurrak,
sortu aurretik
maitatuak,
haurtxo berri
jaiokeratik
bedeinkatuak.

Eta orduan
ni aita, zu ama
ta emazte,
seme-alabak
karnaba kantari,
txoriño gazte.

HAN, ermita ondoan,
 Petralandan
bildu ziren
neskatxen artean
begi urdina nuen
ene nini barrenean.

Eguzkiak, aguretuz,
ihes egin baino lehen,
neskatxa begi urdina,
joan egin zen,
joan egin zen.

Nire bihotzak geroztik
alferrik atsedan.

Petralandako neskak,
begi nereon zulatzaile,
geroztik ibili natzaizu
 jai eta aste,
 bila eta galde.

Azkenik,
 hau zori betel
aurkitu zaitut, maite.

Ixilik zagoz
nire hitzok
entzun ondoan ere.
Ez egidazu eman
lehenengo atsekabe.

Esku horrek niretzat
 eskubide dio;
gaurtik gorakoan
 betor amodio,

eta gaitezen
 gu biok bat;
kabia bateko,
 etxe bereko.

Ametsak
 bere kortina
ilunpean,
 argia dio noski
munduari ostuko.

Eta guri,
 zuri eta neri
 eskainiko.

Betiko.

BATEL tipian biok
—“Kaioa” izena—
ibai mantso haretan
gindoazenean
nik, bi arraun haiekin
grak, grak, abantean,
zu batelaren
atzekaldean,
begian irria,
kanta zoroa ezpainean,
zuhain nigargile
malenkoniatsuek
ibaieko uretan
adats lardaskatuez
soina garbiketean.

—Ontzia zulatu eta
... hondoratuko bagina?

—Ez, maite, ez zintuzket
bakarrik utziko.

Bi biok itoko,
ala bi biok biziko.

—Bai, baina ...

Bihurgune baten
ur jauztiria,
harkaitz zorrotz gaiztoak
hurbilean;
ura gero ta lasterrago
beheak behera zihon,
ene besoek, esturaz
arraunak ...

Baserritar bat leihoan.

.. ..

Ibai aldameneko
basetxean
konorteratu
ginenean,
maitea,
irrifarreka
baserritarrak.
Zure begietan
malko alferrak.

Ez ginen ito.
Zetarako negarrak?

IZARRAK daude
gauez zeruan.
Urrunegi, maitea.
Hemen, hodeipean
teilapecan
dugu zeru gurea.

Amets harrapatu ezina
ametsezko gurari.
Ihintza du lurak
goizaren malko berri.

Zure ondoan
nagoenean
bildurraren
saguzar beltza,
uxatzen dut,
uxatzen;
zure kolkoan
txori alaia
aguro baitut
somatzen.

Kattalin gonagorri
heldu zait leihora
kapa polita du, ta
ixila heiahora.

—Maiteak bidali nau
—esan dit gozaro—
gaur ez dela jeikiko,
gaixorik baitago.

—Kattalin gonagorri,
itzul zaite hara:
ta eman maiteari
laztanak gogara.

HITZ asmaketan
ari ginen atzo.

—Ar... ar... ar...

—Artoa.

—Bai.

—Em... em... em...

—Emea.

—Bai.

—Ma... ma... ma...

—Mama gozoa.

—Ez; maitetasuna.

—Mu... mu... mu...

—Murumendi.

—Ez; muxua.

Eta kale erdian
biok zutik
elkarri muxu ta muxu
ari ginen gero.
Modaren indarrak
guregan lur bero.

Bi atsok deiadar

—ez genuen espero—:

—Nun duzue asmatu

haragi txinparta?

Hori da elkar

jan beharra,

hori istilua.

Gero, denbora

baino lehen

hautsiko, zera ...

ispilua.

Ma... ma... ma... ma... ma....

—Inbiria, ala?

Atsoak joan ziren
ximista bezala.

GOIZEAN nagi nago.
Sarkaldean lano narrasa,
ez joan, ez aldatu.

Zu, artean, lo zagozanean
maindirepeko maitea,
gauetako abaraska,
soinu iturri idorgaitza.

Zure urruneko arnasak
arnasa lotu ohi dit.
Begiak hertsita,
leiho-azala jeitsita
dagoenean,
iluntasunean
—zu, lozorroan—
nire eskuek
zure eskuen kutuntasuna
dute kutiziatzen.
—Zer duzu, maite
lo egin orduko
ta lo ondoan ere
zure gurariaren sutan
ni honela erretzeko?

Ez zuen inoiz inork
horrelakorik dastatu;
zorioneko ostatu,
pekatu ote, pekatu?

...Elea sobera,
ixila gozoen,
iluna bera ere
argi dut hemen.

Eta ene oroimen eroan,
zure altzoan,
maiteberri hori,
atseginaren ezitia,
arroxa eta zitiori.

OSABAREN ardantzako
txakolina
eskaini zenidanean,
zerbait gehiago ere
ez ote zenidan
hortzarrean aipatu,
sorgin zoratzaile?

Larrabelar biguinean
etzin ginenean
zerura begira zengozan,
bizkarra lurrean,
besoak zabal.

Nik ez nekien zerbait
adierazi zenidan,
keinu maltzur hura
zuk neri egitean.

Txakolin bonbila
bota zenuen aldebat,
eta txakolin-ondokoa
nola hala iradoki:
ez ote zen egoki ...

Eta ni, anartean, lo.
Belengo artzaina iduri.

Muxu egiteko
eskatu zenidan,
muxu bekokian,
muxu labur gero
ahq irekian.

Nere goixtar muxu
nextkaren ahoan!
Moxu luze luze,
geroagoan.

Bapatean nuen
odola somatu,
zainetan goratua
azkar beheratu,
suzko ibilia, noski,
barne bideetan,
halakorik neronek
inoiz ere ez benetan ...

Txakolina eskaini
zenidan arrats hartan
han gertatu zena
ahantzi zitzaidan.

Agian,
maite-zaragitik biok
edan eta edan.

Artzain batek
ikusit bai, baina
ez zuen ezer esan.

BARNEAN dudan iraultza
kanta bihurtu nahi nuke;
ta zuri kantatuko dizut
baina gure muxu truke.

Ilunabarrean zebilen
txindor minbera hura
ez nuke gaur izan nahi.

Jaurtikiko dut
harri beltza,
eta nekearen astuna;
bizkar biluzian jarri
haizez betea
kapa gorri mehea.

Hutsaren sareak oro
urratuko ditugu,
zulo bakoitzean
askatasun berriko
kabiak egingo.
Lezera ez gara jeitsiko;
amets ehunezko teilatu,
kabirako bide zeharra
enbor zaharraren inguru.

Mihura izanen dugu
kabiko auzo ferdea
perla txuriko borobiltxoz
ifarraldeko leihopea,
hegoerantz bego
etxe atseginaren atea.

Olerkari bat erosi gura nik,
ameslari omen da ta,
baina hark ere esango ez luke
nire barneko hizketa.

Lore artean ibili nintzen
kintapeko nintzenean,
aske ta jarei, txoria iduri,
hainbat neskatxen artean.

Ezinbestean hasi dut
goizean zorapen kanta,
zure irudia
baita niretzat
maitagarria,
xarmanta.

Nini, ene loretxo
belar artekoa,
halare usain gozoa
bestek ainakoa;
elkart gaitzenez
oi, une erosoan,
hurbil izanen dugu
zorion osoa.

NOLA ahantzi nik
Marimaiteren harpe zoragarria?
Gerizak han zeukan tapiz urretsua,
goitian isekia.

Atadian, eguzkia,
gerizan argi-hazia
erein nahiean,
zangoak zabal,
besoak dantza arinean.

Harpe hezoa, beroaren aterbe.
Han, sarreran, sargori adiguriak
zeuzkan ugari, basokada sagardo ozkirriak.
“Helduberriok —esan zigun—
sagardoa hemen, tole.
Hortarako guk tolare.”

Goitian behera tan tan tan tan fina,
ur aletuaren doinu pinpirina.
Guk, maiteberriok,
samur ta lotsatiok
itzalgaizka soka, begiok.

Lorenini uxterra¹ bezala
herabe ukitua,
hasi nahi kantua,
baina kemenik ez.
Ingurukoak irrifarrez.

Nola ahantzi
Marimaiteren
harpeko gure argiontzi?

¹ Uxter: samur.

Kandelatxoak, apal, argi,
bihotzak keinuka,
eskuak elkarkari,
neofito gisa
dardarez urduri.

ILUNTZEAREN karrozan
sartu gara, laztana.
Aterik ez du,
zaldirik balu ...
Eskuan hartu dut uhala,
mila esku latzek
koipeztatua,
labainkor dago
gizakitua.

Gurpilak nagi dira
lehenbizikoan,
ahantzirik ote dute
maitezaroan
egin gogo dugun
bidai ezta?
Zaldi beltza, zaldi zuria,
bikote txintxo, neronek hautetsia.
Eta hortxe zu, laztana
luze ta zabal etzana,
ibiltearen ondoren
biok lo gozoa eginen.
Maitegurdi apal,
jauregi eder aina,
gure gurariak hortxe izango du
hasiera ta gaina.

.. ..
Oi, eztaiondorik beteen!
Hotel ibiltariko
gau erromesak
ilargi eta izar artean
zilarrezko ametsak,
izterrik izter jolasean,
urretxinolaren
maite doinuen
oihartzunean.

Basoetako zuhaitzak
aazorik hurbilen.

ZURE burua beti,
amatxo kezketan.

—Nobia ote duzun
entzun auzoetan.
Honela baldin bada
esan zuk benetan,
zer ikusi izan duzun
damatxo horregan.

—Nini ...
 nexka ona da,
 argia begia,
 barne tolesgabea,
 irriño garbia.
Nun ezagutu nuen
 zuk jakin nahi duzu,
 tanean nindoala
 brast! jakin ezazu.
Eder delarik ere
 ez da Carolina,
 baina grazi gurbila¹,
 gogo atsegina.
Borondate oneko
 orez da egina,
 zure ondoren soilik
 nire erregina.

¹ Gurbil: txukun.

ILUNABARREKO kanpaiak
entzun ditugunean
katu beltzei izapi!
aspaldian bezala
gure kontzejupean
biok biltzar tipi.

Ez digu axola
jendearen joan-etorria,
ez ezpaloi ertzean
bideginen ari den euria,
narras marras daramatza
kaleko zikinak.
Dena garaiarazten
digu maiteminak.

Dorrean ari dira sorginak,
ilargirik ez eta, negarrez;
dilin dilin txilinak,
maite hilen zinkurinak.

Iazko udaran hezten
genituen uhinak;
zu ere jantzi motxez
eta lehengusinak.

Gure inguruan beti
lehenmina.
Ta dena esan behar da,
ikusi ezina.

Baina zuk gorde ezazu
bihotzean
biltzar tipi honetako agiria.

Zoin den gogoangarri
biltzar tipia,
erdi ilunetan
kontzejupean,
neguko gauetan.

GALDERATXO bat egin didazu,
Nini, gaur arbolapean;
ama gurea nolakoa den
zehatz jakin nahiean.
Bertatik hemen esango dizut
esaldi labur batean.

Ama... bakarra dela,
hau da diodana,
harek sortu ta harek
bizia emana.
Ama genuen etxean kutun,
eta Jainkoa elizan.

Inoiz ere ez dut pentsatu
apala den ala dama,
edertasunaz gain daudelako
haren bihotza, haren arima,
haren dena.

Ama etxean
Jainkoa elizan,
beste inola
ezin izan.

ZURE bularrak
 bi mertxika
 gazte orori
 garraxika;
zure begiak
 bi iturri;
zure ahoa
 goizaldeko loa;
zure...

Nagoen ixilik.
Gazte guztiak hor,
txirtxor txirtxor txirtxor,
bekaitzez erdi hilik.

Baina zure gorputzeko
dohainak ez aski
niretzako.
Zeu zara,
lore zeruetako,
zeure arnasa,
zeure irria,
zeure laztanen
grazi eztia.

Txoria bazina, maite,
nik zure kabia izatea
nahi izango nuke.

Horrela
zoriontsu
nintzateke.

TATARI tata ...!
tatari tatata ...
turutaren zolia,
egunsentian
kasernako patio zabal
nazkagarrian.

Amesetan nengoen,
Ninitxo, zurekin,
hemen zengozen
gona motxekin,
biok elkarrekin,
laztan beroak
muxu mordoak
ezpain eta
abarretan,
batean berriketan,
bestean ixilketan ...

eta betbetan ...

Tatari tata!
tatari tatata ...

Zenbat aldiz nik
 madarika
turuta zitalaren
goiz kalamatrika.

Galtza berdeak,
zapata zakarrak,
atorra,
aharrausi etena
eta estura.

Bat,
bi,
hiru,
lau ...
berrogeta hamalau
mutil gazte zutik.

Hau bizimodua,
Ninitxo maitea,
igurzten ari zinen
aurpegi nerea,
pozik nengoen ni,
bai igurtzi emea,
zein bero...

eta

Tatari tata!
tatari tatata ...

kamainatik behera
bizi latz kaxkarrera.

ZERGATIK betitsu
edari mingotsa
zure edontzian?

Ez ote dakizu
ilargiak ere
poza dakarrela
hitsa den argian?

—Lan egin, lan egin,
lo, jan eta jantzi,
bizitza, hori soilik ote,
Mariburduntzi?

—Ez ikutu. Geldi.
Pekatu da-eta.
Geldi, mutil ausart.
Esku luze hori...

—Azal hutsa zara,
Mariburduntzi,
panpina dirudizu
kapela ta jantzi.
Uuu...! zure gorputz horrek
ez al du lorerik?
Lorerik ezean
ez dator sagarrik.
Zu ere Ebaren
alaba baitzara,
baduzu lorea,
baduzu sagarra.

—Ez ukitu neri!
Ez da zilegi.

—Amatxo zuenak
hori egin balu,
akabo mundua
ta akabo komentu,
fraide eta mojek
ez baitute mentu.
Ta gizarteak ere
galdurik zimentu.

Zure gorputza ere
liraina delako.
Jaunak egina zaitu
haurren amatzako.

Maiterik zailena zu
zaitut Maribur,
ta zu izanzen zara,
uso eta ainara
seme neren lur.

Hau entzun duzunean
poztu egin zara,
itsu zengozen beti
hobenen ikara,
gizonok haragizko
beraizik¹ bagara,
gorputzak biltzen dira
Jaunaren gogara.

Entzun ta entzun zagoz,
Maribur berria,
gure haurrek zertuko
gutarron herria,
gurazko aberria,
munduko altxorra da

¹ Beraizik: apropos.

gure askazia,
amak bere haurra du
bere txirlarria,
txirlarriak balio
txit izugarria,
munduko diruen gain
dagoen neurria.

Ez negarrik egin,
Maribur berri,
biona da zure gerri,
biona, nerea,
bion bihotzez,
bion baietzez
zuga haurra da
sortuko,
laster gure poza
ta gero laguna,
gure zahartzaroan
abaro biguina,
gure maitetasun ogia,
eta azkeneko saria.

—Zure baietzez,
gure bihotzez
beteko dugu legea,
elkar maitatuz, elkar sorosiz
guraso zaharren bidea.

—Ai, Maribur, Mari,
gaurgeroz nerea,
zoriona lortzeko
beharra nekea.

Oi, bai dela polita
sagar istorio,
giza grina bitartez
giza amodio.

EZ ninduzun landare egin
ezta harkaitz ere,
are gutiago abere,
Jaun mugaz gainetako.

Gizon egin ninduzun,
gurasoen seme eta
guraso izateko;
hau geroak du esateko.

Etxea izan dut
eta sehaska,
titi gozo, ogi
eta abaraska.

Herria ere eman didazu,
Herri maitagarria
noizbaitean aske,
geroago larri,
orain ere lorrez
arantza ta elorri.

Pizkundea!

Zoin den eder
galtzen ari den
gure Herri hau
indartzea.

Hemen dugu lur, etxe,
baserri, hiri,
itsasbazterra
burruka nahasian,
urteen kale luze
bihurrian.

Honeraino nondik
heldu den
ez dakigun Herria,
enda

sendo
zahar
mintzaira berezia,
misterio sakonaren
giltz ahantzia.

Euskal Herri zahar,
Euskadi berria.

HERRI txiki handi honek
baditu seme abilak,
proban, segan, palankaz,
harrijasotzen, korrika,
arraunlari, pelotari ta dantzari.

Aizu, bertsolari!
baserriko jakituria
jakite sakonaren iturri
bihurtzen dakizula.
Abejondizula!

Gure plaza gizonak,
hor dira osotasunak,
bakoitzak bere saioan
jakite, kemen, edertasunak.

Guztiok nire gogoan,
gorapen beroan.

Oroimen goxoen artean
mutikotakoa dut
barruan eta azalean.

Han, hiriko plazan,
herri osoa adi,
ta gu erdi-erdian
zortzi ezpatadantzari,
zortzi mutiko
jantziak zuri
gerriko ta txapel gorri,
txintxilinak zangoetan,
eta tanbolinterua agintari
doinu zoliz.

Hasierako "ti titi titititi ...
ingurada egin
eta gero belauniko,
 ikurrinak blablable haizetan,
zortziron buru ganean,
eguzkia parrez zeru aldean.

 Zortzikoa, launakoa,
 makil dantza glaskatsua,
 binakoa, banakoa
ezpatajoko kliskatsua,
eta azkenean
zankoerrenkoa
doinu berezikoa;
eta dantza, ta burruka
ta goraldikoa,
bi sendoenek
hartu ninduten
eta zerurantz jasoa
izan nintzen:
 aidean luze luze
 nere eskuak gurutze,
 beste bat lurean
 dantzan inguruan,
 ezpata eskuan.

Lasterrean, betbetan,
 lurrera ninduten
 ikusleen txalok
 biziki irauten.

Jaiá bukatzean
 oro etxera bidean,
 gure aurretik
 tanbolinak tuntun ...

Oihartzun gozo hura
betiro ohi dut entzun;
hain zait atsegin,
hain kuttun.

ETXEAK nire bihotzeko
lau txokoetan
maite-aulkia duen arren,
ate zaintzaileak
—gizartera bideak—
irriño gozo eginez
baimena ematen didanean,
hor noa
mailetan behera,
zakur askatua bezala.

Sentimenaren
kilikili arinenak
ukitu ez-ukitu
diotenak
opor ta jaialdirako
dira prestatzen,
oinetan haizea,
belaunetan indarra
dute janzten,
etxaurrean
lurgaineko
harri jator zaldunek
ongi etorria didate egiten.

Hor doa gizadiaren
tren luzea,
beheko lanak harbide,
eten ezineko nekea.

Eta kalea
gaueko bakartadean
inuska¹ bihurtzen denean,
egun berriaren gurariz dago,

lehen baino lehenago
goiztarren bisita
hartzeko gertu.
Hiriko kale zuzen,
kale okertu,
zenbat istorio zahar
didaten agertu,
zenbat ibilte,
ta joan-etorri aztertu.

Hiriko kaleok
begiko zaizkidaz ...
Orain bi urte zera,
ta berria igaz,
kale eta mutiko,
kale eta neskatxa
giza geografia
gutziz aberatsa,
etxean eltzekoa,
kaleetan xaltxa.

Solasleku berezia
etxe artean irekia,
une ta gazte
zahar ta nahaste
kale eta plaza
gorputzaren zainak,
hiriko odol biziak
hor ditu tintinak,
hor guztion garaitzaz
egun atseginak,
hortxe aldi beltzetan
unada saminak.

¹ Inuska: inauska, tantai.

Nere lehen maitea,
ta eskola laguna
ta irakaslea
kalean denak adiskide.
Kalebazter ezin ahaztua,
gaur hasi dut
merezi duzun kantua,
kale biloiz,
kale santua.

ZIRIKA

Igande haretan lehenbizi dantzan
egin genuenean
orduak hartu nuen usain berezia,
ezin azaldua, ezin idatzia.

Zure gorputzari, iratzeko Puri,
oparo, nabari, zerion lurrina;
nire inongo inon idoro ezina.

Gizonak guragarri duen keru fina.

Alai zengozen alai, hizketa gozoan
nik muxua eskatu, muxu bat ahoan.
Bekozkoz jarri zinan, eta ene harrimena,
Puri puritana, gautxorien pub hortan
muxua, laztana, jana ta edana,
ta bina binako esturazko lana ...
eta xoxo honi, hainbateko destaina ...?

Jakinik nago, ordea: entzun duzu,
ez da gauza gordea, Puri, uso kurrumazu¹.
Puri puritana, izterra izter gainean,
paradisua soinean, bidaia flete merkean.

Ai, ene lira maitea,
Purik urratu dizu
zure hari mehea.
Gaurkoz alfer da lirika,
ordezkoa dut akuilu zirika,
iratzeko neskatxa zenak
okertua du musika.

¹ Kurrumazu: urumatsu.

Has nadin aharrausika!

Ai, Puri, Puri ...!
larraberdeko xirita².

² Xirita: oihu, txilio.

Ama zuena, ene polita,
zemaibe zen ezkondu,
aita gaiztoak elkar maitatzen
batere ez zion lagundu.

Haragiaren grina
aitaren sutegi,
ixkepot egarriak
zerabilen beti.

Gizaseme zakarro
mutur gizen gorri,
kopeta medarreko
hezur ta haragi;
oilar kastako baitzen
txitxila¹ urduri,
narru makurra lantzen
zapataria iduri.

Barkatu, baina ez naiz
ezpal horretako. Zorion etxea dut
opa zuretzako.

¹ Txitxil: zakil.

Lorea gure baratzean
sortu zenean
munduko politena
zela zirudian.

Halaxe zuk ere,
maite urrundua,
gezurra esan zenidan:
zerua zela mundua.

Begietan zenuen
zuzi izetua,
garretan jarri zenidan
nire grinaren lastoa.

Xixpor xoxpor
hasi ziren jauzika
mila su-izar
gauaren golkoan,
sua zebilen
lastoan.

Ihintzak eraso gogorrez
ureztatu zuen
xixpir xoxpor oro.
Sorgina zinela
jakin nuen,
negarrez.

Sorgin belarrez
bete ziren
landa eta soro.

Esandexé,
perepexé,
nun dago Parixé?
esandaxé,
gure Joxé.
jan ta beti goxé.

Harro esan zenidan
Pariskoa zela
lurrin gozo betea,
potixka zapala.

Lurrin horren usainez
ninduzun zoratu,
iluntze nabarmena
ezin nik ahaztu.

Lurrinik ugari, bai,
jantzi guztietan,
panpina harroena
mila koloretan.

Gaineko itxuretan
hamaika amarru,
osoa zelakoan
nonbaiteko larru.

Harro esan zenidan
usainaren zera;
ta, ixildu, ordea
...bigarren nintzela.

Haserre puxkaren
lano bihurria
gure maite arboladarretan
korapilatu zenean,
gure hitzen lokarria
eten
eta ixil gaitza sortu ...
ez nekien, laztana,
ez nuen jakin heriotzea
bidean bapatean
nola gelditu zen.
Bai izugarria
harako ixil ozen.

Hil egingo nintzela
agitz sinestu bainuen.

Satorrak egin zuen
bere jokoa,
nire aurkari
mutil auzokoa,
eta zu,
ez ur ez ardo,
soraiokeriak joa.

Garai haretan
gertu egon nintzen ...
... hainbeste mintzo labain,
... hainbeste irudi zoro,
berritxuaren
azpijoko nabarra.

Geroztik,
zauri antzekoa dut
ene erraietan;
batzuetan idor, erre,
inoiz, odoletan.

Ez nuen inoiz esango
inongo amaren alabek
halako edenik
zidala ixuriko.

Zoazkit, bada,
begion aurretik
eta oroimenetik,
Matxalen Busturiko.

Pago zuri artean
pago bat gorria,
hantxe somatu nuen
zure presentzia.

Jipoi estu haretan
usotxo zuri bi,
inoiz ez zuten haiek
iguzkia ikusi.

Usoño xuri xuri
polit borobilak,
jipoipean estali
bularsagar biak.

Jipoia estua baina
gona barren zabal,
gabiraiak bazeuzkan
moko eta hegal.

Ni heldu nintzenean
berandu xamar zen,
gabiraiak grausk! mintza
mokokatu zuen.

Amattok emandako
sabelpeko mintza,
urratu zizun harek,
nexka sen-murritza.

Behinolako zure
itxurakeria ...!
Ai, pago gorripeko
zure presentzia.

Pago gorri gainean
mingorra kantari:
—Ama, alperrik orain
jostorratz eta hari..

INTXAUR AZALAK

1989

Bidaztiarena

Lili zurigorri

Eskuen berbetea

Oturuntza


Higuina lurperatuko dogu

Lokarriz askatu

Arerioak erpeak ditu

Txatxandu direanak begoz txatxanduak

Intxaur azalak



BIDAZTIARENA

Zergaitik esan zenduan,
Axular,
“ez dugu geroko
segurtasunik?
Eta nola geroko
benturaren benturan
bentaraturik ...”

Ez dogu ulertzen
noiz ete dan berandurik.
Hasierea ez dakigu ta
zelan jakin amairik?

Bizitzea bidea da;
lehorrean inoiz estua,
itsasoan naroa,
naroegia ortzian,
gure begion urrutian.

Eskuen oihua
eskea da,
ez dot hegorik sorbaldan;
joanbehar-minak
kilikili oinetan.

Egon nahi,
ibili gura,
zerk ete deust ardura
garatu ondoren,
atzokoa ezin ahaztu,
gerokoa ames huts,
nora joan, non gelditu?

Mugarriak hurrengo hurrengo
joan doaz begion aurrean;
abarka-mantak orkatilan,
urretx-makilea eskuan,
pausu-harriak non aurkituko
bideko erreka koskorrean.

Erreka koskor horrek
lur-alorra zeuk zergaitik
ebagiten?

A, bai! Umeez jostailua,
zuk... zubia eskatzen,
hurre-hurreko zeru-zatia
bailitzan.

Zubia dozu adiskide,
gizakientzako bide.

Bidaztiaren oinek
badabe oztoporik,
harri kizkirri,
harri mokor,
larre ta sastraka.

Batzuetan ibili,
hurrengoan atsedean,
bizitzako bidaztiak
beti zerbait ikasten.

Bakartiak, ostera,
hainbatetan daroa
bere erromes lerea,
inoiz harro ta bulartsu,
inoiz barruan ikarea.

Eta auzotzat nahi ditu
bideska, zelai, tontortxu,

zuhaitz gerizaduna,
eguzki epel, lora liraina
ta iturri amultsua,
hegalarien txintak,
errekasto garbia,
haize otzanaren loisina,
adarrean igalia,
atarrean etxekandra mazalaren
ogi ta jakia.

Ilunabarrero
izarren nimir gardena
ta teilapea izan ezkerro ...

Iretargiak gauero
agerraldirik egin ez arren
ez da arbin, ez da urduri;
jainkosa hori
egunoste guztietan
bardina ez dalako.
Ez dau unero sortzen
izaki barririk.
Bere arau-txortea dauko
ortzitar lugineme horrek.
Halan be, bidaztia eskale jako
askazia hondatu ez dadin.

Neu naz bidaztia.

Degiodan,
degiodan bideari eutsi;
horretarako ditut
oinetakoak jantzi,
bidezorroa leporatu.
Bidazti amesti...
egonezina gerriko dot,

besoak aske
edonor laztantzeko beste.

Burua amesbera,
bihotza egarri,
maite nik goizabarra,
maite oskorri.

LILI ZURICORRI

Basobidez noala
nekeen lokarri mehearen ihes,
zidorra hauts kolorez,
baditut orbel eta sastraka,
bedar gizena noizik behinean;
txabolarik ez inon
ezta harperik be,
haitz gogorrean jesarri naz
jasanbeharrak eihoa.

Betazalok euron adorea
nagiari saldu deutsoe,
baina entzumeneko atea
edegirik dirau.

Iturriño batek kantuan
diharduala susmatu dot,
orduan begion errezelok
neuk jatsi ditut
eta samurkiro entzun
ituriko urak
dinoan abestia,
abesti barria
lehen inork ez adia.

“Lili naz,
lili zurigorri,
maitez mozkortzea
nire guraria,
non dot amaren titia?
Baina inortxok ez dakarst
behar neukean edaria.
Iturria
hor dago

nigandik asao,
bideko bidazti nahi neuke
nitzat bihotz gozo,
txera guri guria leukena ...”

Erdi lokartua nengoan hau
itzartu naz zeharo.
Basoko adar artean
liliaren
esan bigunen
oihartzuna.

Bapatean
zuhaitz barru-hustu baten
sabeletik urtena
hona hemen
umerik ederrenaren
irudi xarmanta.
Nire begion zoramen!

—Lili!

 dinotsat,
zeu zaitut lili tatana,
laminen iturri ez dan
ur xirripa honetan
sortu zatxatazana,
ene begion gelgarri,
maitagarri
txatxana.

Neu nozu bihotza zabalik
natxatortzuna.

 Lili...!

—Ez. Lehiane nozu,
galai txolin horrek.
—Ai, bai! Aspaldian

nik ames egina,
arimaz eder,
gorputzez birgina;
gogora jatort orain
Platon zirina.

Bidazti honen lagun
izango zara,
urrats barrietan
sartuko gara,
albotiko zeu izanik
begiak itxirik noake,
malkar eta erroitz artean
grinatsu ta pozik.

Iturritxuaren
inguru minguru
oraldi bigunak
ohea eskeintzen deusku
nekea arintzeko,
egunsentiko ames garoaz
goiza loratu dadin.

Oi, Lehiane,
lilialdian zagozan hori,
ene bihotz hau
baratza balitz,
gure izateak
bitsetan bits.

ESKUEN BERBETEA

Zure eskuen zuriak
atsegindu nau,
zure eskuen zuriak,
Lehiane.

Bihotzaren atalak ete direan,
edurraren emoi oparoak,
gora ta behera
batera bestera
hegan dabilzan
zure esku zuriak,
eguzkiak igurtziriko
arpegi zurigorriaren
ahiztatxu politak.

Eta soinua lagun dakarren
zure berben oihartzunak
nire entzumenean
olerki dira,
ailagin.

Zeure begira egon naz
urte luzeen bide gurutzetan;
zeuri begira nagoke,
ur, harri,
islaz, zeruaz at,
zure begien ziztada linburiak
niregaz dagian bat.

Ogi barriaren hasikinak
atonduko deusudaz
amasaran, oramahaian,
legamin zatitxuak landatu
urun zuri artean;

hortxe, ur garbia
iturritxuan,
eta orea, bigun eskurakoi
zeharo harrotu dadin,
izara artean ipini
ixil, lo antzean.

Eta gero,
ogigeiak
taiu biribil, taiu luze
txito berotuta dogun labara
—ilintiak bazterretara—
daroakeguz.
Labeak ehunduko dau urrea,
ai, labasuko arto,
talo ta ogi errea!

OTURUNTZA

Laba ahoko
zurezko atetxo,
alboratuko zaitugu
laster lastertxo,
eskatu genduan ogia
ez deuskuzu ukatuko.

Barriro be
zuriago dira zure eskuak
ogiaren ikusian,
edurra zure haginak,
galburu heldua zure mototsa.

Ai, maite, Lehiane ...

Labaldi hauxe dogu
gure lehenengo oturuntza,
ogi gozo
ta esne bero,
maitetasun abian
bat dira honezkero.

Ta geroago datorke
zure eskuen berbetea,
niretzat lumea
azal gane zehar igarotea,
goien barren
igurtzi betea,
pozezko soinekoz
jantziko jaku suetea.

Zugaz ogia
eta bestea,
zeu zaitut ibilera honetan
aurkitu dodan lorea.

Ustebakoa,
ume guragarria
ta zoramendukoa.
Bihotza hasiko jat kantuan,
bego ixilik ahoa.

... benturaren benturan
benturazkoa.

HIGUINA LURPERATUKO DOGU

Hurrentasun minez
naukazu, Lehiane;
zure hurrentasun minez,
bidazti barri nintzanean
ezagutu ez zindudazalako.

Hurrentasun minez
artizarra biztu danean,
txepetxaren kantu azkenean.

Zeure hurrentasun minez
bidazti barriraztua nintzan hau;
lehenengo aldian, damurik,
ezagutu ez zindudazanez.

Bizitzako oboan
ordu baltzak eta zuriak,
geureak dira erru batzuk
baina ez guztiak,
harainegun ez nekizan
zure maleziak,
atzo esan deustazuz
damuzko graziak,
gaur zaitut maite eta
begoz atxakiak,
alkar-zaletasunez gainduko
bion miseriak.

Higuina lurperatuko dogu,
zulo sakonean chortzi,
ehun atxurkada lur ganera
lo luzeak dagian etsi.

Lurperatu dogu,
eta agur.

Ez da inoiz barriro
gure artera azalduko
higuin ume bidutzia¹,
abereek be
gorroto deutsoen
izaki kaltegarria.

Bizitzako oboan
obo erresuminezkorik
ezin zeharo uxatu
aitorren semek ez alabak,
hor dira alkondara ta atorrak
azpikoa zelanbait estali guran,
bidea behera doan uneetan
aldatzaren iragar akulua
dabilke hegadetan;
aldatzak eskeiniko
amila ta trokea,
jauste ta hondamen,
argien behar danean
orduante ilunen.

¹ Bidutzi: munstro.

LOKARRIZ ASKATU

Lehenaren ihesi
—erbirik ez bizkorrago—
gabiltzan artean
lokarrien ihesi be bai
bakotxaren uste apalean;
halan be, lokarri bila
ez ete nabilen
dinotsat neure buruari ...

Eta honetan, zeu zaitut ikusi.
Zeure begietan neureak
isladatzen nahi nik atxiki;
zeure begi ederron
zain dozuz errezel leunak,
gardenaren arerio,
gerizearen misterio.

Ezin, ostera, maite,
begietan ixkaturik eskatu,
begien leihoan
alkar susmatu behar dogu,
gau luzeegien ordeztan
goizabarraren distirak
gurariz ta garrez bilatu,
nagia behera, grinea gora,
ohearen epeltasunean
baldin balitz, hoba.

Lokarrien burdinak eten,
oinak zuzpeltu,
eskuak askatu.

Zeuretasunean
lokarriz askatu nozulako,
maitezko hegoez batu nozunean,
ta besarkatu, arimen
oturuntzarik samurrenean.

Gozartu nozu,
gozartu zaitut
burdinazko katea
urezko kate laztan
bihurtzean.
Laztankate,
bularron hurrentasunean.

Higuina lurpean,
erremuskadak
inpernu baltzean.

ARERIOAK ERPEAK DITU

Ez ditue punta motzak
arerioaren erpeak.
Urian sartu gara, Lehiane,
uria bidean topez
egin dogulako,
ez bestetarako.

Zubi haundiraino heldu gara,
hemen gagoz urari
goitik begira
uretan arrainak ikusi guran
ihiri, dantzari,
sabelez beheara,
sabelez gora
zuri eta urdin,
azaleruntz errez
bolbol ta zipriztin.

Ura
haizerik ez danean
ispilu garden
urrael bihurtzean;
hurrengoan barriz
ihesi minez
urduri ditu errai ta gane,
joan doa gure antzera,
gure antzera, Lehiane,
baina zetarako aipa
mingots edari hau,
joan eta joatea?

Jai eta aste
argi ta ilun nahaste,
adiskiderik badot,

bai areriorik ere,
uste ez danean datoz
azaleratzen nabarmen
adiskide mamarroa,
arerio saldua
sator eta azpijale,
Lehiane, ez ete zenduan uste
oinpeko bedarra ebateko
norbait gertu ohi dogula
inoiz zahar baina inoiz gazte?
Inbidiaren upan sartzeko
edozein da aske.

Eguzkipean gabiltzala
besteren keinu arrotzak
min egiten deust niniotan.
Ez dakit arima arrotzik inoiz
etxeko ete dan.
Ilun ikutua susmatu dot
arrotz horren begiradan.

Mundua arrotzerri haundi
dogun ezkerro, oro arrotz.
Ez, ostera, maila bardinean;
negargarria halan be,
gizakien artaldean
hurrentasunik ez danean.

Kaleak eta plazak ditugu
alkarrenganatzeko,
baina bananduteko
hormazko etxe ta torreak,
etxe barruetako
suetean goritzen dira
gorroto burdina gogorrak,
golde ordez ezpata,

golde ordez kainoe.
Madarikatua
maite-habia truke
etxea
hasarre egurrez beteriko
laba baltza danean.

Kale ilunbezuko
etxeño baltzean
izan dogu ostatu
gau honetan, arean.
Biharkoa, zirimiri, bideak
esango nora.

Eskariak dardare
egiten diranean
ez da inongo bakerik
bularrean,
zalantzaren haundiz
—ez hegan, bai tatarrez—
ibili gabilz
kilikolo.

Uxa dagiguzan
saguzar ta mozolo.
Hazi onez bete dagigun
edonongo solo.

Jarrai, eta bidean
bake lorak aukeratuz,
batuko ditugu eta zabalduko
bihozpera eta
emankor dan eskuz.

Eta moztu, eta moztu
arerioen erpe zorrotzak;
gure eztegu aurrekoan, Lehiane,
erein dagiguzan hazi onak,
eta zaindu arduraz,
gal ez dagizan
giza-neguaeren hotzak.

TXATXANDU¹ DIREANAK BEGOZ TXATXANDUAK

Maiatza heldu zanean
haize barriaren begira nengoan,
urretxindorraren bila
etxetik basora nintzan;
behingoan entzun neban
zorionean
urretxindor-aitaren
maitakanta luzea,
giro gozoz aseá.

Une haretan non zengozan,
non zeu, Leihane?
Ene eskuok trakets,
ene begiok lauso,
ez zindudazan susmatuten,
ez zengozan
zure soinekoz jantzia
ez biloiztua.
Hutsik aurkitu neban
une mingotsean
zure gela erosoá,
zure ohe epela.

Zer egin ez nenkiala
ibai ondora joan nintzan,
itorik ete zengozan,
etzunda ur azalean.

Nora zinean,
bidazti honek
bidaldian aurkitu
zindudazan hori?

¹ Txatxandu: maitemindu.

Lasterrean gura neban
ikusi, eta bizi,
zure idun zuria,
bularren biribil fina,
sorginek egina.

Nora zinean, Lehiane?

Senera nintzenerako
ixildu zan
urretxindor-arra,
beste zuhaitz baten
entzule izan jakon emea;
eta bitzuok batera
ihes egiten
ikusi nebazan.

Txinta luzea atertu;
hurrengo ilunabarrean
joko, barriro be,
maitetasun soinu.

Non, baina?

Eta zu, sukaldean,
sorgin-afari biontzat
atondu guran,
ontzi artean
musu zurigorri hori
irribarre betean.

Parkatuko deustazu
nire urduri.izate hau.

Harrezkero, zeugana nago,
Lehiane,
zagokez neugana.

Gure urre lokarria
soilik balbeak
etengo deusku;
gure askatasuna,
gure lokarria
bego zeture esku
txatxanduen erresuman,
mendeen mendetan.

INTXAUR AZALAK

Lirika ontziño neureak
—intxaur azalak—
errekan behera doaz,
 lokarrien ihesi
 lokarrien bila,
zanbulu bigunez
 jolastuten dira,
 joanaren kutxa,
 geroaren kabi,
nire intxaur azalak
 ihiri ta ihiri.

Gondola nimiño
 zidarrezko uretan
hur jatorreko bazter gozo
 euren aldamenetan,
 bela txiki bana
jarri deutsedazanetik
 ur bizitan zehar
 ez ontzi egondurik.

Argiz barrizatzen
 ditut egunero,
 haizea poparean
 urdurizko aro.

Haizearen aho soinua
 ixilik luzaro
 zirimolak unez
nagizko oporraro
 ta biago betea,
uhinek gudurako
barriro be, eskea;
 egonaren zanak

aldaera bila
ausardizko putzak
beteko bela zutunak,
indarrak zirikatuko
nagiaren grinak.

Brodatzen ikusi zaitut,
brodatzen, Lehiane,
leiho zabal horretan
zerutiko ume,
itsasora ni zeugaz
joateko erne,
uhinen erresuman
itsaslapur gu be;
hartu dot eurrezean
jaki eta ogi,
gosepean ez dago
inongo maitari.
Brodatzaile maitea,
larritu ez zaitez.

Ohe zabalik ez, ba,
nire intxaur azalak,
txirriek eta kaoiek
gure opaz hegadak.

Arnasea doguno
askatuak gara,
ur azalean harro
gure intxaur azala.
Atzo han ta gaur hemen
-argia da zabala,
barrero guk ikusiko
olanfresen ibarra.

Laster helduko gara
izaro batera
ta gure hazurmaminok
jauzi lehorrera,
han inor ez balego
guretzat aukera,
inor baldin badago
senideak gara.

Zuhaitzen hegalpean
txiten antzera
eguzki goriari
kuku egitera,
gerizpe gozatsuan
gozartuko gara,
oi Lehiane laztana,
geuk zorion-era.

Nire ames ontziño
lirikaz beteak,
holakoxe onurea
dau abaraskeak,
gizonak itsu dira
ezezkor, erreak;
eztirik gozoena
dau borondateak.

Ilungarri da ixila
bertsoetako usoa
hegan egiteko
prest dagoanean:
uso kurumazu
olerkariak aitatua,
amodio soinuak
ixuri direanean.

Ixuriaren oldarrak
asti ta unea eskatzen,
bolkanaren eraso
brastadan jagiten,
geroago atseginak
badau galga ta eten,
amandre Loa jatorkunean
samur baizen guren.

Ontzi galanten truke
nik intxaur azalak,
leunena dan eskuaz
loisindau magalak,
maitaroa sortuko
barruko ahalak,
ortzian zehar doguz
aberri zabalak.

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlana eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlana: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlana: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri mailia*
Aurkezlana eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlana: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Carro *Otxolua: Ixtorio-Misterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratazalea: Jaime Kexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten
olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perca
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo mailia. Euskerazko
gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean (Eskubete neurtitz) I*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean (Eskubete neurtitz) II*
Sarrera: Igone Etxebarria

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

27. HAURGINTZA MINETAN
Mikel Zarate
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. KRESALA
Domingo Agirre
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. ZORIONA. 31 ETA ESKU
Xipri Arbelbide
30. ABARRAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa
31. IZARTU EUSKALDUNAKI
ELANTXOBETAR BATEN OLERKIAK ETA
ARTIKULUAK
Gorgonio Renteria
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizinoa: Igone
Etxebarria
32. ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Biltzailea: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
33. GÜRE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK
Estepan Urkiaga. *Lauaxeta*
Sarrera: Xabier Altzibar
34. NEÜRE AMATXO MAITIA
EUSKERAZKO GUTUNAK
Balentin Berrio-Otxoa Santua
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKÜBETE NEÜRTITZ • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
36. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKÜBETE NEÜRTITZ • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria



LABAYRU IKASTEGIA

bbk



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia
Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

ISBN 84-89816-08-5



9 788489 816084